



Xalbadorren barrua





Joxe Mari Aranalde

Gaztelu herrian jaio zen 1933an. Apaiza dugu ofizioz, eta euskalzale, idazle eta bertsozale afizioz. Asko lagundua da bertsolariei. Eta asko idatzia, bai bertsoaz bai bertsolaritzaz eta bai bertsolariez. Hor daude lekuko, besteak beste, “Bihotzak dion hura” eta “Bertso kontuak” liburuak.

Eta eskuetan duzun hau, hirugarrena badu Xalbador zenaz: “Xalbador per-tsularia”, “Xalbador” -haurrentzat egi-na- eta orain “Xalbadorren barrua”.

Inork bada-eta, bertso kontuetan egin du lan gazteluar honek.

Xalbadorren barrua

Auspoa Liburutegia
274



AUSPOA



SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Joxe Mari Aranalde

Xalbadorren barrua

Auspoa Liburutegia
(2001)

© SENDOA ARGITALDARIA


ISBN: 84-95378-45-0

Depósito Legal: NA.: 2.655-2001

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Eskaintza:

Milesker, Leoni, Xalbadorren "lore".



Xalbador. (Foto Aigués, Donostia, 1967-VI-11)

Atarikoa

ORAIN dela bost urte agertu nuen *Xalbador pertsularia* liburua. Hura, lagunek behin eta berriz eskatuta eta ia-ia aginduta edo manatuta egin nuen. Oraingo hau egiteko ez dit inork esan. Harritu ere egin daiteke norbait, berri hau ikustean.

Harengatik baditut hitz onak irakurriak eta entzunik, bai argitaratu berri haretan eta bai oraindik-orain.

Buruan dauzkadan izen batzuk esan beharra daukat. Nere betiko adiskide Mikel Atxaga aurren-aurrena. Ederki igurtzi ninduen. Ritxi Lizatza, Felipe Joaristi eta Rufino Iraola jaunei ere bihoakie nere eskeron zina, zin-zina. Ez naute nolanahi tratatu!

Beste norbaiten izena ahaztu baldin badut, barka diezadala, faborez. Ez naiz gauzak jasotzailea, eta burua ez da seguru-segurua beti. Adin batez gero, berriz, zer esanik ez.

Aurten bertan ere baditut berri onak jasoak *Xalbador pertsularia* liburuarengatik. Oraindik ere grazia egiten dit gertatutakoak.

Pazko eguna zen. Ezkontza bat nuen nik eguerdian. Eta haren ondoren, urrezko eztaietako meza bat nuen, handik kilometro dezentetara. Hau egin eta ni ezkontzakoengana itzuli nintzenerako, haiek mahaiean eserita zeuden. Ez neretzat lekurik jaso gabe.

Han zegoen hutsik; eta han neukan aurrez-aurre jaun bat, propio jarri omen zena leku haretan, nerekin hitzegiteagatik.

Badakizu, irakurle, zer izan genuen hizpide? Nere *Xalbador pertsularia*. Haren esan beharrak! Hura berotasuna eta hura miresmena! Iñaki Arantzadi apaiza zen jaun hori. Milesker, Iñaki.

Xalbador pertsularia ezkeroztik badut beste txiki bat idatzia. *Xalbador* du izena, eta haurrentzat egin erazi zidaten. Hamar bertsoiarekin egin genituen, *Sendoa* argitaletxeak eskatuta. Oso begikoa dut txiki hau; ia-ia haurrak ditudan hainbat.

Oraingo hau, *Xalbador* osoago bat erakusteagatik egin dut. Lehenengo haretan, plazarik-plazako bertsolaria erakutsi nuen; eta esaten nuen, sarrerako hitzetan, “motz gelditua” nintzela artzainaren aurkezpenetan. Oraingoa ordukoaren osagarri bat da. Hori nahiko luke izan, behintzat.

Izena, berriz, ikusten duzu zer jarri diodan. *Barru* horrek, gure sendimenduen eta pentsamenduen gune hori esan nai du. Gure norbaitasunaren mami-mamia duzu hori, *amentsetan* eta guzti.

Beste zenbaitek barrunbe horretan beste zerbaitzuk arakatuko zituen, akaso. Nere hautaketa, hauxe duzu.

Nerea da, eta gauza haundirik ez daiteke espero. “Jaioko dira berriak” eta egingo dituzte bestelakoak eta hobeak, *Xalbador* ez baita hil eta handik hogeita bost urtera hitzaltzeko argia.

Xalbador pertsularia haren sarrerako hitzetan, “nekez bezain pozik eta maitez” idatzi nuela esaten nizun. Gaur gauza ber-bera esan dezaket. Pozik nintzateke hura haina ixtimatuko bazenu *Xalbadorren barrua*. On egin.

Bertso-jartzaile hasi-berria
edo
“Oilanda arroltzeño”

“Oilanda arroltzeño”

“...arroltzeño”. Ez al da polita “ño” hori? Neri asko gustatzen zait. Eta begientzat baino gehiago, mihia-
rentzat gustatzen zait. Zeinen exea eta bettea eta guria
esateko! Belarriak ere ondo hartzen duena da “ño” ho-
ri. Bazterrak-eta batere urratu gabe sartzen da, goxo-
goxo, leun-leun. Fin-fina du hotsa.

Guk, Xalbadorrek-eta bezala, *arroltze* esango bage-
nu, *arroltzetxo* aterako litzaiguke. Baina guk *arrautza*
esaten dugu; eta *arroltzeñoren* ordez *arrautzatxo* atera-
tzen zaigu. Gogoratzen Olentzero tripazaiaren kantua?
“Kapoia era baitu arrautzatxoekin” esaten dugu han.

Zerbait txiki xamarra dela adierazteko erabiltzen
dugu guk “txo”, eta Xalbadorrek-eta “ño”. Ez beti, jaki-
na. Nik nere inguruan haur bat *aitatxo* esaten suma-
tzen badut, ez dut pentsatzen metroterdiko gizon bat
ikusirik behar dudarik, burua jiratzean.

Eta kantuan *maiteño* entzutean, zeini bururatzen
zaio ipotx bati ari zaionik olerkaria hizketan?

Ez. Ez “ño” eta ez “txo”, ez dira beti neurri urriaren
adierazle. Badute bestelako kerurik eta zaporerik.

Eta gure “oilanda arroltzeño” honetan, zer adierazi
nahi ote du, arroltzeri erantsi zaion “ño” horrek? Go-
xo--goxoa dela esan nahi ote digu, edo ttipiskoa edo
txikitxoa dela esan nahi ote digu?

Oilanda zer den, izen hori entzun duen guztiak ba-
daki. Eta ba ote da euskaldunik hori entzun ez due-
nik? Hala ere, oilanda eta arroltzeño elkarri lotuak
zergatik dauden ez dakienik, bai, badaiteke.

Badaiteke, noski; baina ez, halajaina, gure basetxe-etan edo baserrietan.

Haietan badakite ongi, oilogaia den oilanda noiz oilotu den. Oiloak arrautzak egiten edo erruten dituzten kabietan edo kafietan, ohikoak baino txikixeagoren bat agertzen bada, etxekoandreak badaki oilandaren bat hasi zaiola arrautzeginen.

Ez da haundia izango arrautza, baina bai gustagarria biltzailearentzat. Harek badaki, handik aurrera, ekoizle bat geiago baduela etxean. Badela oilotu den oilandaren bat sailean. "Oilanda arroltzeño" hura da lekuko. Beraren ttipitasunak erakusten du zeinena den.

Uharriet jaunak, urte haietan Urepelen erretore zegoen apez jaunak, eta Xalbadorri bertso haiek eginerazi zizkionak, bazekien bertso haiek hasi-berri batenak zirela. Bazekien *oilanda* batena zela bertso sail edo andana hura. Horregatik jarri ote zien izena *Oilanda arroltzeño*? Edo txiki xamarrek iruditu zitzaizkiolako jarri ote zien?

Utzi ditzagun asmaketak, eta entzun dezagun Uharriet jauna bera. Hona:

"Bankatik lehenik, gero Aldudetik, bi *arroltze* igorri dauzkute gotorrak. Eta guk *oilanda arroltzeño* bat baizik ez izanki ordainez eskaintzeko!... Den hau igortzen dauzuegu berondate onez. Har zazue halaber. Oraiko denboretan jakin behar da ukanarekin pasatzen". ("O. M.", 90)

Hitz horiekin presentatzen ditu Uharriet apez jaunak Xalbadorren bertsoak *Eskualduna* aldizkarian.

Ez dago duda haundirik zergatik jarri dien *Oilanda arroltzeño* izena. Ttipitzat dauzka bertsoak. Alde ederrekoak etorri zaizkie beraiei Bankatik eta Aldudetik! Haiek bai arraultza *gotorrak!* Berenak...

Baina ez dago gehiegi eskatzerik garai haietan. Gerra ari du Frantzian, eta "jakin bear da ukanarekin (dagoenarekin) pasatzen".

“Borondate onez” eskainia bai, bada arroltzeño hori. Hala har bezate aldudarrek, bankarrek eta baigorriarrek. Guttiz ez dezatela, beraz, utzi. Nolako apaltasunez datorren Urepeleko jaun erretora! Horretaraino burua makurtu beharra ote zegoen auzoko herrien aurrean? Horrenbestekoa al zen aldea, jaso zutenaren eta ordainetan biali zutenaren artean?

Aldudetik arroltze gotorra biali zuena badakigu zein zen: Joanes Harriet, *Premundo* ezizenez. Hala dio urepeldarrak:

“Banka’tik hasi zen norbait obra horiek aipatuz bertso igortzen. Aldude’tik Premundok ihardetsi zion, Urepele ere aipatuz, bidenabar ni deitzen ninduela pertsu zombaiten moldatzerat”. (“O. M.”, 88).


Premundo hau, urepeldarraren esanetan, ez zen nolana hiko bertsolaria. *Odolaren mintzoa* liburuan, 43. orrialdean, honela dio:

“Kantatu izan nuen ere Aldude’ko Harriet edo *Premundo* zenarekin. Hau pertsulari ona zen, aho onekoa. Horren boza eta kantatzeko moldea ere gustagarriak ziren. Damurik, etzen, oraikoak bezala, alde guzietarat hezia”.

Horra, artzainaren esanetan, nolako bertsolaria genuen Aldudeko Harriet jauna.

Bankatik ez dakigu zeinek bial zitzakeen bertsoak. 43. orrialde horretan bertan, bi bertsolariaren izenak ematen ditu urepeldarrak: Iriarte eta Zubikoa. Lehena Bankakoa bertakoa zen. Zubikoa ez, nahiz-eta hango bezala hartua izan, “Banka zuenez geroz bere ardureneko bilgia (maizeneko bizilekua)”.

Iriartek biali ote zituen bertsoak? Zubikoak? Bieta-koren bat izan zitekeen. Badakigu, beraz, zeintsurenak izan zitezkeen bi arroltze gotorrak. Horren lotsagarri uzten ote zuten hauek urepeldarraren “oilanda arroltzeño” hura? Edo-eta Uharriet jaunak ez zeukan artean aintzakotzat hartua bere oilategiko oilanda hura?



Antonsai-ko gurutzetik, Urepele.

“Ene arreba Marik, berriz, laudatu zauzkitan pertsu horiek

Ez dut ezagutzen, dakidala, Xalbador zenaren arreba hori; baina besarkada bat emango nioke gustora, orduan erakutsi zuen begia erakusteagatik, eta esan zizkion hitzak anaiari esateagatik. Zenbat baliu duen hitz onak jasotzeak maite gaituztenengandik! Nola pozten gaituzten, eta pozteak nola ontzen gaituen -neri gaxte batek behin idatzi zidan bezala-, eta nola sendotzen duten gure nortasuna!

Bai, Xalbador ere, argitu zuten ederki arrebaren esan haiek. Entzun eta handik hogeita hamairu urtera ere ez dauzka ahaztuak. Estimatu ere halaxe egin omen zituen: “Auzapezak (alkateak) eman dirua bera baino gehiago”. (“O. M.”, 87).

Joanes Monako genuen auzapez jaun hori. Herria gorai patuz-eta egin zituelako bertsoak, sosen batzuk eman zizkion gure bertso-jartzaileari. Lehenengo peztak ziren bertsoekin irabazten zituenak. Zer poza duen lehenengo irabazten den sosak!

Haundiagoa eman zioten, hala ere, artzainari, arreba esandako hitzek. Nola unkitzen gaituzten etxekoen hitz on horiek!

“Oilanda arroltzeño” baino zerbait gehiago iruditu bide zitzaizkion Mariri bertso haiek. Horregatik zizkion *laudatu* edo famatu edo alabatu edo gorai patu. Hitz batean, horregatik zion esan onak zirela, oso onak, eta esango zion ere, seguru asko, Aldudetik eta Bankatik jaso zituzten haien inbiririk gabeak zirela.

Ez ote zion esango, Uharriet jaunak esandako deitura edo abizen edo apelido haiek baino zerbait sendogorik merezi zutela ere? "Oilanda arroltzeño", halako alea edo bihia?

Neri Uharriet jaunak, Gipuzkoako herri txiki bateko jaun erretorea gogorazten dit, abizen edo deitura jartzetxe lan horretan.

Esaten dutenez, bazen herri horretan erretore jaun bat, zeinari etorri zitzaion behin mutil gaxte bat, oso gaxtea, ezkondu egin nahi zuela-eta. Eta, jakina, apai-zak ezezkoa eman zion, haren urtetan ezkontzerik ez baitzuen ametitzen eleiz-legeak.

Handik bi urtera hor dator berriz gure gaxtea asmo berarekin. Oraindik ere nahiko gazte bada gure mutila ezkontzeko, baina legez ez dauka ukatzerik jaun erretoreak. Oraingoan ez du gure gizongaia atzera eraziko. Lehen ere itxaron du zerbait.

Hasi dira, beraz, paperak betetzen, eta gure erretore jaunak galdetu dizkio abizenak. Eta mutilak abizenik ez. Sasikoa zen nonbait ezkongai presatia.

Eta zer egin orain? Nola utzi bizitza guztirako abizenik edo deiturarik gabe gure gizona? Nola agertu bearzuen inon eta inoren aurrean abizenik gabe? Asmatu beharra zegoen abizen pare bat.

Baita asmatu ere egokiak. "Haizeburua Ezkonbera" omen ditu geroztik delako ezkongai bero harek bere bi abizenak.

Izen-sortzaile egokia ez zenik ez daiteke uka gure erretore jaun hau, Uharriet hura bezelaxe. Baina asma zezakeen politagorik, eta bial zezakeen apainago jantzia mundura gure sasikumea. Badakigu izenak eta abizenak ez dutela beste munduko garrantziarik; baina halaxe ere!

Eskerrak gaur neke haundirik gabe kanbia daitezken, gustoko ez diren izenak eta abizenak, eta bizitza guztian nozitzen ibili beharrik ez dagoen horrelako aldrebeskeriak.

Ez da dudarik, bi apez hauek intelijentzia erakusten dutela izenak ematerakoan, baina bihotz bigunik ez.

Uharrietek ere asma zezakeen izen laudagarriagorik Xalbadorren bertsoentzat; baina guttiesgarri batekin utzi zituen, gipuzkoarrak itsusi xamar jantzi zuen bezala bere eleiztarra, gizon egiten zen egunerako.

Uharrietek baditu lagunak Xalbadorren bertsoak guttiesten. Eta ez edozein! Izenik ez dut esango, baina bai gertatua kontatuko, nik jaso nuen bezala-bezala xe. Hau ere Donostian gertatu zen, beste hura bezala.

Trinitate plazen geunden. Iraileko euskal jai horietakoren bat izan behar zuen. Primerakoa zen eguraldia. Eguzkiak ederki jotzen zuen. Ospakizun osoa ez dakit nola zen; baina tartean Xalbadorrek bertsoak kantatzen zituela, bai, badakit. *Xenpelar saria* irabazitako bertsoak ziren. 1973. urte inguruko kontua da.

Lagun bat eta ni geunden elkarren ondoan. Atzean bi bertsolari haundi, punta-puntakoak, geneuzkan. Bertso kontuetan ari ziren. Halako batean hala dio bietako batek:


–Hook ez dakite bertsoa zer den.

Zein ziren “hook” horiek? Xalbadorri *Xenpelar saria* eman ziotenak.

Baleki gizarajo harek, oraindik orain, hura bezalako xe beste bertsolari haundi batek nola esan zigun, beste bati eta neri, haren bertsoetan ez zegoela hautatzeko modukorik.

Eta bazeneki zuk, irakurle, zein ziren haiek eta zein den hau, mutu eta lotu geldituko zinateke, zer esan eta zer pentsatu ez dakizula. Uharriet jaunak baditu, beraz, lagunak.

Baina arrazoi Marik du, laudagarriak baitira bertsoak, bai ugariz eta bai ederrez.



Urepeleko eliza,

“Hogoi eta hamairu urte horietan gauza guti ikasi dutala (“O. M.”, 89)

“**H**OGOI ta hamairu urte”. Famatuak dira lehen-dik ere urte horiek, Nazareteko Semeak ere horiek omen zituen-eta hil zutenean. Hogei eta hamar famatuak diren bezala, Hura saldu alde Judasek jaso zituen diruengatik.

Eta Xalbadorren hauek, zer ditugu? Noiztik noize-rakoak dira?

“Oilanda arroltzeño” bertso saila *Eskualduna* aldizkarian agertzen denetik, berriro Xalbadorrek bertso horiek eskuetan ikusten dituen bitartekoak. Eskuetan ikusi eta irakurri, jakina. Tarte hori betetzen dute “hogoi eta hamairu urte” horiek.

Odolaren mintzoa liburuan daukazu ederki kontatua hori guztia eta gehiago, 87. orrialdetik hasi eta 90a bitartean. Ez ezazula utzi irakurri gabe, irakurle. Bertso sail horren jatorria eta bat eta beste, hor daukazu klarki adieraziak. Gainera, hitz laxoz edo hitz lauz edo prosaz irakurri daitezkeen orrialderik beteenetakoak irakurriko dituzu. Bertsolariak, bertso-bota-tzaile edo jartzaile apartak ez ezik, prosagileak ere primerakoak baitira.

“Oilanda arroltzeño” delako bertso sail honek, *Ure-pele-ko elizari* du izena *Odolaren mintzoa* liburuan.

Gogoan omen zuen bere “lehen pertsuetarik batzu”, “eleiza horren ehun urte” betetzea zela-eta egin zituela.

Uharriet jaun ertorak edo erretoreak eskatuta eginak omen zituen. Apezak, gero, *Eskualduna* aldizkari-

ra bialtzen ditu, eta han agertzen dira, delako "Oilanda arroltzeño" izenarekin.

Ez omen zuen gogoan "ez zonbat, ez nolako pertsuak izan ziren". Gogoan zuen, hala ere, auzapezak edo alkateak "diru zerbait eman" ziola, lehen esan dugunez.

Gauza horiek guztiak gogoan izanik ere, ez omen zuen "pertsu horien gehiago eskuratzeko esperantza mikorik". Beraz, etsia zegoen ez zituela berriz ikusiko, arreba Marik laudatu zizkion pertsuak. Bere aurrenetakoak. Hori pena!

Harek ez "esperantza mikorik"; baina bai bertso horiek bazirela entzun zuen beste norbaitek. Bazirela entzun eta *Eskualduna* aldizkarian argitaratuak izan zirela jakin, eta Antonio Zavalak bertsoak bilatu ez? Esatea ere! Badu horrelakoxe bat eskuraturik gure paper--zakur honek! Eta "Oilanda arroltzeño" hura aurkitu ez gure tolosarrak!

Eskuetan ditu berriro artzainak, bere "lehen pertsetarik batzu" haiek, arreba Marik laudatu zizkion haiek eta auzapezak "diru zerbeit"-ekin saritu zizkion haiek. Fotokopiatuta eman dizkiote.

Irakurle, ez al diozu halako ikara bat sumatzen eskuetan Xalbadorri? Eta bihotza ikusiko bagenio? Nolako pilpira hari ote du bihotz nekatu horrek!

Ikusmin haundi batenak eta kezka txiki batenak ditugu ikara hori eta dantza hura. Zer irudituko ote gaztetako bertsoak? Onak? Eskasak? Bere burua ezagutuko ote du obra horretan? Jakin dezagun:

"Nik, segurik, gogotik behatu diot ene "oilanda arroltzeari", eta badakizue zeri ohartu naizen? Hogoï eta hamairu urte horietan gauza guti ikasi dutala!"

Ez zeukan esan beharrik "gogotik behatu" diola bere "oilanda arroltzeñoari". Ez ditu berehalakoan eskuetik utzi. Kantatu ere eginak izango ditu isilean. Doïnu gogoan ote zuen?

Eta, irakurle, ez al zera jabetu nola ari zitzaion argitzen bekozkoa, bertsoak irakurri hainean? Ez zen dudarik, zerbait atsegina entzun behar geniola artzainari. Baita entzun ere.

Altxa du burua, eta hona zer jakin arazi digun: “Badakizue zeri ohartu naizen? Hogoï eta hamairu urte horietan gauza guti ikasi dutala!”. Izan du, bada, denbora, zerbait ikasteko. Eskolaru txarra izan nonbait. Lehen ere zerbaitegatik utzi zituen bere “hameka urtean” eskolako aulkiak. “Guza guti ikasi”, halajaina, hoinbeste urtean!

Eta bere bertsoaz zer esan digu? Ezer esan al du?

Zuk nahiagoko zenuen akaso, irakurle, esan ziezaigun onak zirela, gaztetakoak izateko oso onak ere bai, eta liburuan sartzeko ez zeukatela inolako lotsarik edo ahalgerik, eta horrelako kontuak.

Nik ez. Neri gehiago gustatzen zait zeharkako aitormen biribil hori. “Bertsoei gogotik behatu” ondoren egindako aitormena.

Zuk badakizu zenbat urte dituen artzainak, hitz horiek idazten dituenen? Bertso horiek ikusi gabe egin dituen “hogoï eta hamairu” horiek eta idatzi zituenean zeuzkan hogeita hiru haiek. Berrogeita hamasei dira guztira. Horiexek dira, dakizun bezala, mundu honetan egin zituena. *Odolaren mintzoa* agertzen den urtea ere horixe da. Hil zen egunean egin zen liburu horren aurkezpena Urepelen.

Eta zer entzuten zaio gaztetako bertso horiez, bertso kontuetan goia jo duen artzainari? Zer, garaiko saririk haundienak, dela *Xenpelar* behin eta berriz, dela *Mendaro Txirristaka*, dela *Kutxaren Pilota*, *euskal joko* irabazi dituenak? Zer, paregabeko bertso-jartzaile dela sari guztiek aitortzen diotenak?

Harek esaten du, edo esan nahi du, haren gaztetako bertso haiek eta oraingoak ez daukatela alde haundirik. Bera orain bezalatsuko bertso-jartzailea zela orduan ere.

Zer esan nahi du, izan ere, besterik, delako “gauza guti ikasi” duelako kontu horrek? Bertso-jartzaile onaren eta onartuaren eta onetsiaren eta miretsiaren kontzientzia daukan Xalbadorrek, zer esan nahi dezake hori besterik?

Orduan ere Xalbador zela esan nahi du horrek.

Beraz, ez da Mari bakarrik bertsoen laudatzaile. Anaia ere hala da. Eta “Oilanda arroltzeño” baino bataio-izen politagorik eta sendoagorik ez ote zuen Uharriet jaunak ere, akaso pentsatuko zuen artzainak. Eta ez zuen arrazoi faltarik.

“Beren huts nabarmen guziekin”

Ez al dirudi gehiegitxo, “hогоi eta hamairu urte” hartan ikusi gabeko bertsoak onak iruditu eta gero, “beren huts nabarmen guziekin” esateak? Horrenbeste huts nabarmenekin nola gustatu zaizkio, oraingoen paretsuko iruditzeraino?

“Gogotik behatu” dienak bertso horiei, ez da gezurra akatsak ikusten dizkiela.

Nik, epaile edo juje lanetan hasiz gero, 4. bertsoa dela esango nuke ahulena. Azken bi puntu horiek, pareegian ezarritako bi harri berdin dirudite, eta bestee-kin gutxi lotuak. Kolokan daude; eta bi sinonimo izanda, askoz gehiago.

3. bertsoan ere, errimak, errezkeri haundiz erabiliak dirudite. *Burian*, *mundian*, *gainian* eta horiek, zarkeria zerbait erakusten dute. Hori ez daike uka.

Baina, halaxe ere, “huts nabarmen” esan beharrekoak ote? Urepeldar batek bere auzo-herritar baten-izat egindako bertsoetan, *burian* eta *mundian* eta horrelakoek ez al dirudite nahiko ontzat eman beharreko *txokotasun* batzuk? Nik baietz esango nuke.

Aldudar bat *kitzikatzen* denez gero eta hari erantzuten, ez da misterio beren artean erabiltzen duten ahozkeria erabiltzea. Ez dut uste txokokeria haundiegia denik. Eta are gutiago 1943an idatzitako bertsoak izanda.

13. bertsoaren errimak ere ez dute beste munduko pisurik. 14. horretako 3. puntua ere ez da sendoegia;

baina ez dira hain urriak ere, nahiz bata eta nahiz bestea, iparraldeko bertsogintzan. Nondik atera du, beraz, huts edo akats edo makats edo makur nabarmen kontu hori Xalbador kritikariak?

Odolaren mintzoa liburuari egiten dion sarrera luze haretan, *Pertsularitzaz bi hitz* izendatzen du zati bat. Han, 59. orrialdean, honako hau irakur daiteke:

“Ez ginuke hargatik, rimaren itxura egin beharrez, gure hizkuntza gaizki erabili behar. Esenplu asko ematen ahal nituzke hortaz; bainan, ez luzeegi izauteagatik, hau emanen dut bakarrik. Maizegi entzuten da zerbait hola-ko, konparazione:

Deitoragarri zaut hiltzia
maitatzen baidut bizia.

Bizia-rekin ondo joanarazi nahiz, erran du horrek *hiltzia*, *hiltzea* delarik hitz xuxena. Poto egitea baino lotsagarriagoa zaut hori eni. Poto egiten duenak, ez du nehor enganatzen; hura agerian gelditzen da. Aldiz, *hiltzia* erran duenak, enganatu nahi izan du”.

Salaketa hori egin eta gero, nola ez nabarmentzat jo *burian* eta *mundian* eta *gainian* eta horrelakoak? Eta bapatekoetan itsusi den hori, are eta itsusiago da idatzizkoetan, eta *Urepele'ko elizari* hori idatzizkoa da. Eta “han oraino itsusiago egiten du”.

Euskaltzale eta euskara-zaintzaile baten kontzientziak eragiten dio horren iritzi gogorra bere bertsoentzat urepeldarrari. Bertsoaren legeetan ez, baina Xalbadorren begietan dira horren haundiak akats horiek. Ez dakit zeini eman behar zaion arrazoi: gazte bertso-jartzaileari edo heldu euskara-zaintzaileari.

Salaketa horiek gorabehera, bertso saila edo andana egokia da. Sarreratik bertatik hasten da ederki, bertso-jartzaileen aspaldiko ohiturari jarraiki, Jainkoari laguntza eskatzen diola. Delako bertso-paper horietan-eta, hamaika aldiz ikusiko du hori irakurleak.

Herriak ere, berriz, hurrenez-hurren daude aita-tuak: Baigorri, Banka, Aldude, Urepele. Horrelaxe aurkituko ditu lerroan Urepelera doanak.

Eta zer psikologia erakusten duen gero koplariak, bere sorterrria eta bere aitarena kantatzean! Inbiritan dela Banka, Aldude goraiatzan duelako?

Inbirian direnak jakin dezatela
koplariaren aita han sortua zela.

“Zela”, bai. Ordurako hila zuen Xalbadorrek aita. “Obra un (on)” askoren egile izateaz gain, koplariaren aitaren sorterrria da Aldude. Bitan, beraz, maitagarri eta laudagarri.


Berrea, hala ere, Urepele du. Zeinen bertso fina eta apaina eta psikologiaz jantzia honako hau:

Azkenik, Urepele, zutan gelditzen niz,
gure xokoak ere merezi tu bi hitz;
nork bera laudatzea itsusi ez balitz,
bertze oroz gorago ezar niro (nezake) ainitz.

Urepelek badu bertsoalde bikaina jaso bere seme honengandik. *Urepele* du izena, eta *Odolaren mintzoa* liburuan dago, 105. orrialdean. Eta Xalbadorren herriak ez dauka gordean edukitzeko bere semeak eskainitako kantua; baina bertso hauxe ere begien bistan eduki beharko luke beti. Hain da polita!

Ni, “gogotik behatu diot” harekin gelditzen naiz, eta “hogoï eta hamairu urte horietan gauza guti ikasi dutala” harekin, eta ez “huts nabarmen” delako horrekin.

Bertso horietan ez da huts nabarmenik. Txokokeria gehitxo? Ez, zeinentzat eginak diren ikusita. Bertso horiek ez dira, nahiz gero *Odolaren mintzoa* liburuan agertu, Euskal Herri osorako eginak. Auzo-herrientzat eginak dira. Eta haietan ohikoak dira bertso horietan agertzen diren ahozkeria guztiak.



Jean Baptiste UHARRIET apezta

Alduden sortua: Martxoaren 27ian: 1885

Apeztua 913

Hazpainen eskol-emaile 1913

Urrugnar bikario 1924

Urepeleko erretor 42 urtez
925 1967

JAINKOAK bereganatua

Martxoaren 26iar: 1972

EZ AHANTZ ZUEN OTOITZETAN

“Pertsulariak pertsuak egin behar ditu”

PERTSULARITZAZ ari da Xalbador hori idazten duen lekuan. Eta hala dio goiko hori baino lehentxeago:

“Azken denbora hauetan, pertsuzale batzuek atera daukute ez duela rimak inportantziarik haundiena pertsu batean; barnean zer duen dela gehienik konda. Eta banago, hori entzunik edo, zombait entzule ez ote diren egoiten gaizki rimatu pertsu bat entzun arte, esku zartak hasteko.

Behar bada, pertsulari batzuek ere atseginekin entzun dute ateraldi hori, askatasun horrek arint lezakelakotz gure lanaren zailtasuna. Bainan ez ditela lokar. *Pertsulariak pertsuak egin behar ditu*. Nolakoak egiten diren, hori bertzerik da. Bainan arrazoinamendu txar bat ongi rimaturik, pertsuago da, arrazoinamendu on bat gaizki rimaturik baino. Irinik hoberenarekin egin oreka ere ez da ogia, labea axala egin artean”. (“O. M.”, 58).

60tik 70 bitarteko urte haietan, eta geroxeago ere bai, iraultza egin behar zen nola edo hala edozertan ere, eta orduan sortutako buruzpidea da Xalbadorrek aitatzten duen hori.

Hamaika horrelako sutxo piztu zen garai haietan gauza horretan eta beste askotan. Zer ez da entzun hemen!

Bada gure artean bertso kontuetan aldero ederrik egin duenik, behin alde batera eta behin bestera. Burgesa zen bertsolaritza, eta baztertzeak, beraz, iraultzaren aurrean, beste busgerkeria guztiak bezalaxe. Ez

zuen estetika jasorik, eta gaurko mundurako zarpilegia zen. Bada irri eta burla pranko egin dionik. Eta haiek berak gero... Oraindik ez ditugu ikusteko guztiak ikusi. Hamaika ikusteko jaio ginela? Baita hamaika eta bat ere, Jainkoak bista kontserbatzen badigu.

Eta ikusi, edo entzun, dugun hamaika horietako bat da, delako “ez duela rimak inportantziarik haundiena pertsu batean” hori. Artzaina ez dago konforme horrekin. “Arrazoinamendu txar bat ongi rimaturik pertsuago” omen da, “arrazoinamendu on bat gaizki rimaturik baino”.

Hona dago artzaina, berari hainbeste buruhauste eman dion errimari garrantzia kentzeko! 57-58 orrialdeetan ederki dauka adierazia, nolako eskastasuna sumatu izan duen berarengan errima kontu horretan. Ez omen da bertsolaria izan behar ere, harek baino errima etorri haundiagoa izateko.

Hala ere, ez du onartzen errimari garrantzia kentzea. Nahi eta nahiezko zerbait du bertsoak errima, oreak, labean erreta, axala izatea nahi eta nahiezkoa duen bezala ogi izateko.

Beraz, guk ere bertsoen kalitatea ezin utzi ahal izango dugu lan honetan. Ia-ia erabat bertsoan dagoen mezu bat dugu aitatzekoa. Molde horretan eman du artzainak bere pentsamenduen eta sendimenduen berri. Eta guk, moldekua hartzean, nola utzi begiratu bat eman gabe moldea?

Ez da gezurra, jakina, lehendik ere badagoela horretaz zerbait baino gehiago esanik eta idatzirik. Eta ez oraintxe hasita!

Xalbadorren bapateko bertso gintzaz, adibidez, zer esan daiteke gehiagorik eta ederragorik eta haundiagorik *Etxano* jaunak esaten duena baino? Hor dabil Bizkaiko bertsolari aparta *Xalbadorren mirakulu*-ka. Eman dio beste inork ez bezalako *tornua*. Neronek ere badut, berriz, zerbaitxo baino gehiago aztertutik hori *Xalbador pertsularia* liburuan.

Eta zer esan Xalbador bertso-idazleaz? Ez al dute klarki oihukatzen irabazitako sariak, zer neurritako bertso-jartzailea zen gure artzaina? Ez al da aski aitormen? Hala ere, idukia jaso hainean, izango dugu egokierarik gauza bat eta beste aitatzeko, eta egingo dugu, Jainkoak nahi badu.




Artzain besta, Urepele, 1975.

“Mendian sortu bainintzan...”

**Mendian sortu bainintzan,
laguntzat ene bizitzan
artaldea dut nik izan;
haur nintzaneko, aitak erranik
ardiak goberna nitzan,
plantatu nintzan artzaintzan,
mundu honetan gabiltzan
gizon xumeen langintzan.**

(“O. M”., 97)



Urepele.

“Mendian sortu bainintzan...”

GOAZEMAZU gu ere, irakurle adiskide, mendira Xalbadorrekin. Hura izan du gure artzainak bere sorleku, eta lanleku, eta bizileku, eta amesleku eta ez dakit nik beste zenbat zer-leku.

“Mendian sortu bainintzan” dio bertsoak. Haren sortetxea mendian dago eta haren supazterreko edo sukaldeko leihotik ez duzu mendia besterik ezer ikusiko ia. Eta herriaren inguru guztia ere, esateko, mendia da. Alduderantz doan ibaiak bakarrik eteten du uztai.

Baina Xalbadorrenea baino toki menditsuago asko da. Alturaz edozein dago hura baino gorago. Neronen jaiotetxea bera ere hala dago. Xalbadorreneak baino mendiarte zakarragoa eta beltzagoa, etxe askok eta askok dute Euskal Herrian.

Hala ere ez da gezurra mendian jaiio zela gure artzaina. Eta mendian jaiio zela egia bada, egiagoa da, berriz, mendiagoan izan zuela bere lehenengo lanlekua eta bere bizitzako ofizio nagusia: artzainza. Hura bai mendia! Entzun dezagun kontatzen bere lehenengo bixita lanleku honetara. Hona zer dion:

Aspaldi du zure ganat, haur hutsa nintzan garaian,
aita zenak ninduela goiz argi batez ereman.
Orroit zirea, ahapetik, zer botu egin nuen han?
Beti maiteko zintudala nik nola nerautzun hitzeman!
("O. M.", 102)

Gure artzain etxolari du kantuarak izena, eta hari ari zaio kantari bertsolaria.

“Haur hutsa nintzan denboran”. Ttipia zela izan zuen, beraz, bere lehenengo harremana bere lanleku menditsuarekin. Oinez egin ote zuen bidaia osoa? Ez ote zuen aitaren bizkarraren beharrik izan? Edo astoarenik? Edo behorrarenik? Edo zaldiarenik?

Ez dezagun ahaztu “etxetik urrun” dela etxola, berak bertsoan dioen bezala. “Haur hutsa” den batentzat ez ote gehiegi, bidaia osoa oinez egiteko?

Ez zaigu esan nola joan zen. Esan zaiguna, “goiz argi batez” izan zela bixita hori da. Zeinen ederra oroitzapena! Sortetxea baino askoz mendiagoa den lekua- rekin, mendi-mendiarekin, bere lehenengo harremana “goiz argi batez” hasten du artzainak.

Bai. Ona beharko zuen eguraldiak edo aroak, Xalbadorren aita bere “haur hutsa” hura hartuta mendira joan zeneko goiz hartan. Zein ausartzen da, izan ere, halamoduzko giro batekin mendira ateratzen, bere kuttuntxo horietako bat hartuta? Eta aita baldaxkoren batek hala nahi izan eta ere, zein amak utzi hori egiten? Ez da, beraz, harrigarria, argia izatea, Xalbador bere aitak mendira eramane zuen goiz hura.

Eta harritzekoa ahal litzateke Xalbador haurrari argi-agoa iruditzea goiz hura, ordurarteko beste guztiak baino? Zeinek ez daki artzainaren goiza goiz izan ohi dela, eta besteona baino lehenago hasten dela harena? Xalbador ttipia ere, ordura arte, aita ardietara joaitean, ohean edo ofean geldituko zen goxo-goxo.

Egun haretan, berriz, ez. Orduan aitarekin jeiki zen, eta artean ezezaguna zitzaion goiz bat agertu zitzaion, eta ordurartekoa ez bezalako argitasun bat ezagutu ahal izan zuen.

Eta haren lehenengo erteeraren edo ateeraren gogoangarri, “goiz argi” bat da. Ikusiko zuen besterik ere, “etxetik urrun” den mendialde hartara bidean, dela borda, dela etxe, dela mendi, dela baso eta dela bestelako bazterrik. Eta berri-berriak denak. Hala ere, goiz haren gogoangarri argitasuna da. “Goiz argi batez” zuan aita zenak eramane.

Urepeleko muttiko hau bezalakoxe beste artzaintxo bat ere atera zen behin bere mendiarteko herri zokotik. Eta harritu zen hau ere bere lehenengo ertee-ra haretan. Hona nola kontatzen duen:

Lenengoz atera nun kabitik mokoa
(artean soil nekien erriko zokoa);
larranbilutan giñan: "Zenbat da mundua?"
esan nion; eta arek: "Aundi... Jaungoikoa".
Bein ere etzait aztuko ango zirrakoa.

Xalbador argitasunak jotzen du. Orixe haunditasunak, eta amonari entzun dionak, bere harriduran "zenbat da mundua?" galdetu dionean. Zenbat den mundua? "Aundi... Jaungoikoa".

Naparroan hazitako gipuzkoarra eta urepeldarra, biak ere, ukituak gelditzen dira, mendira egiten duten lehenengo atieran. Argitasunaren ederrak jotzen du bata, eta haunditasunaren argiak bestea.

Ez zion gaitzik egingo argiaren ikuituak gure artzainari. Ikus zer aitormen egiten duen *Gipuzko maitea* kantuan:

Gogo iluntasuna dut nik nerezkoa,
Jaungoikoak egina nau honelakoa;
bihotzaren altxatzen, berritzen gogoa,
askotan zuk laguntzen nauzu, Gipuzkoa.
("O. M.", 313)

Zenbat on egin ote zion goiz argi harek "gogo iluntasuna" berezkoa zuen hari! Nola hasi ote zen haur erabe haren barren hura zabaltzen eta lasatzen eta pozten!

Ongi hasten du harremana bere lanleku izango den mendiarekin. Gaur aurkitu duen aparteko argi horrek izango du segirarik. Ardientzat ez ezik, artzainarentzat ere badu mendi horrek bazka edo jana; eta lehenengo goiza argi berri bat sumatuz hasten duen horrek, aurkituko du geroan beretzakorik. Eta nolakoa!

“Korota’ko lepoa

Artzain besta izena duen bertso sail edo andana bat badu artzainak *Odolaren mintzoa* liburuan. Artzainen bestan izandako mezako *Herriaren otoitza* deitua dira bertso horiek. Otoitz bat, beraz. Bai goxoa eta xamurra gure artzainak artzaintzat egiten duen otoitz hori!

Hitz lauz edo laxoz egindako sarrera bat ere badute bertso horiek; ez da aldrebesa huraxe ere. Irakurtze-koa. Han ageri da delako “Korota’ko lepo” hori. “Gure etxetik goraxago” dio artzainak dagoela.

Nere iritzirako, irakurle, “goraxago” gutxiegi esatea da. Goraxago ez ezik, gorago ere bada hura.

Oinez abiatzen bazera, ez pentsa *Xalbador* etxe aurretik pasa eta lehenengo aurkitzen duzun lepoa denik *Korota’ko* hori. Ez, ez. Ez hasi “hau al da?” galdezka, haur bat hasi ohi den bezala etxetik atera orduko. Ibilaldi polita dago *Xalbador*renetik hara

Baina, seguru asko, zu ez zara oinez abiatuko, eta zure ibilgailuak erraz eramango zaitu delako *Korota’ko* lepo hartaraino. Eta oinez egiteak nahiko neke badezakeen bidea, eroso egingo duzu zure ibilgailuan.

Zure hanken gainean nekosoago eta besterenetan erosoago egin daitekeen bide hori, egin gabe behintzat ez dezazula utzi.

Bidea bera ona da. Eta ingurua, berriz, ederra du. Ikusiko duzu baso eta mendi gustagarririk. Garaleku edo iratzelekuak ere bai. Artalderik-eta ere ez da faltako alderdi haietan.

Baita ere ikusi ahal izango duzu, bide horretatik bertatik, Xalbador zenaren alargun Leonieren sortetxea. Hara ere badaude bi pauso Urepeletik. Ez zuen etxeko ate aurrean aurkitu gure artzainak ere bere bizitzako laguna.

Eta Xalbadarren emazte Leonierekin inoiz hitzegiteko aukerarik bazenu –Donibane-Garazin bizi da–, galdeiozu nere partetik senargaiak eta biek elkar nola saldatzen zuten menditik mendira.

Nik ez dizut esango. Samurtu edo haserretu daiteke-eta alarguna nerekin. Horixe behar genuke! Suerte on galderarekin.

Eta lepoa oso gain egokia da. Begiek badute noruntz luzaturik, nahiz alde batera behatu, nahiz bestera. Larranbilurik edo kamamilarik edo mantzanilarik biltzeko aukerarik ere ez zaizu faltako, sasoi denean.

Mendi da gain hori; eta mendigo da, berriz, inguru. Haiek mendi puskek zure begiek joko dituztenak! Euskal Herriak dituen haundientsuenak han dituzu bistan.

Izenak ikasten ez naiz saiatu. Bada ni baino arretatsuagorik horretan. Zaila ere ez da-ta. Antonio Zavalak, hankaz eta begiz jotzen dituen mendi guztien berriak biltzen ditu. Halako ikaslerik!

Zuk ikasiko dituzu, zoazenean. Eta izenik ikasiko ez bazenu ere, zoaz ikustera mendi haiek, eta jabetzera zeinen egia den han “Mendian sortu bainintzan” hura.

Beraz, ez da batere gezurra mendian sortu zela gure artzaina, eta are eta egiago da, berriz, mendian izan zuela bere ofizio nagusia: artzaintza.

“Gizon xumeen langintza”

GIZON edo emakumezko, artzain edo artzaintsa, nahiz artzain-neska, bietatik bai-baita langintza horretan. Mendian ez akaso. Han gehienak, edo ia denak, gizonezkoak izango dira; edo ziren, batez ere.

Baina etxera ezkerro, emakumeak baziran –eta badiara– gizonezkoak haina artzain, bai gazta egiten, bai ardiak deizten eta bai beste edozein lanetan.

Konfiantza horretan egin ohi zituzten gizonezkoek beren egunpasak aitzaki-maitzaki. Eta... gaupasak ere bai, kezka haundirik gabe, jakinik beraiek bezain ongi beren emazteek egingo zituztela ardien lanak eta bestelako beharrak.

Mendian bai, mendian gizonezkoa agertuko zen artzain; baina etxean? Artzainaren emaztea senarra bezain artzain.

Ez al dakigu denek emakumezkoa pluriofiziodunagoa izan dela beti gizonezkoa baino?

Zeinek ikusi izan du gizonezkoa gobada edo bokata edo lixiba egiten? Eta zeinek ez du ikusi emaztekoa behiak eta ardiak deizten edo jeizten? Zeinek ikusi du inoiz gizonezkoa arropa zaharrak konpontzen, jostorratza eskuan duela? Eta zeinek ez du ikusi emakumezkoa segan belarra pikatzen edo ebakitzen?

Eta horrela baserriko beste lan guztietan.

Nere begi hauek laiean ez zituzten behin ere ikusi emakumezkoak; baina Orixe jaunari ikasia diot ari-tzen omen zirela. *Gorriti'ko andreak* poesian dauka,

ikasi nahi duenak. Hori gauza! Andreak berak bakarrik laian eta berak bakarrik jorran, gizonezkoak hargintzan omen dituztela-eta.

Eta andreak laian eta jorran ari diren bitartean, haietakoren baten haurra alorraren goinean, tarteka amari bularra eskatuz bere negar antsiekin. Zer da hori!

Ez dakit baden pintorerik poesia hori irakurri duenik; baina hala denen batek irakur baleza, aurkituko luke argirik, egundaino egin duen koadrorik ederrena egiteko.

Bai, emakumea askoz poliofiziodunagoa izan da beti gure artean gizonezkoa baino. Ez naiz ezer berririk esaten ari.

Mundu guztiak ez al du esaten, aita sasoikoa galtzeak oker gutxiago ekartzen duela familia batera ama galtzeak baino?

Hori esaten da, eta hori uste da, eta hori ikusi izan da: bakarrik familia aurrera ateratzekotan, ama gehiago dela aita baino.

Nondik nora gabiltzan, irakurle. *Gizon* hitz haretatik abiatu eta honeraino etorri gara.

Begira: bere langintza ardietan duen jendea, maitekiro tratatzen du Xalbadorrek, aparteko goxotasunez; eta nik ez nuen nahi artzainaren goxotasun hori gizonezkoetan bakarrik gelditu zedin. Emaztekietara ere hedatu zedin nahi nuen, ardien arta biena baita: gizonezkoena eta emakumezkoena.

Hemendik aurrera, beraz, gure artzainak *gizon* esaten duen lekuetan, zuk *emakume* ere irakur ezazu, adiskide.

Eta zerorri ofizio horretakoa baldin bazara, are eta gehiago, ene artzaintza edo artzain-neska.

“... xume...”

ETA nolako edo zelako pertsona klasea dugu delako artzain hori? Xalbadorrek, haren langintza bereko jende horrentzat erabiltzen duen izenondorik maizenekoa, *xume* da.

Ikusi duzu nola bukatu duen bertsoa: “gizon xumeen langintzan”.

Artzain besta izeneko bertsoetan, bigarrenetan eta hirugarrenean, “artzain xume batzu” dio eta “entzun lurreko artzain xumeen galdea”.

Gure artzain etxolari kantuan, berriz, etxolari hizketan, hona zer entzuten dugun hirugarren bertsoan:

Zuk ezagutzen dituzu, etxola maitea, ontsa
udaren edertasuna eta neguaren beltza;
munduak duen kiretsetik garbi daukazu bihotza,
hango berririk guti dakiten gizon xumeen egoitza.

Ikus, beraz, behin eta berriz *xume* nola ateratzen zaion Xalbadorri, beraren ofizioko pertsona klase hori nolakoa den esateko.

Guk, nik dakidala, ez dugu erabiltzen *xume* pertsona batentzat. Zein izango litzatekeen xumeren ordeko izenondoa gure artean? *Xentxillo* hurbilenekoa, nik esan behar banu.

Gaur *herri xume* eta horrelakoak asko esaten eta idazten ditugu, eta badakigu zertsu esan nahi duen; baina ez gurea delako, bestek erakutsi digulako baik. Zorionez!

Horrelakoa omen da, berriz, artzainarentzat artzaina: pertsona xumea. Berezko izaeratik hurbil dagoen norbait, beraz; apainduririk eta eraskinik gabea, ez diruarenik, ez eskolarenik eta... ez gaiztakeriarenik.

Irakurri ezazu berriro, edo kantatu, aurreko bertso hori. Ikusten al duzu zer dioten azken bi lerroek?

munduak duen kiretsetik garbi daukazu bihotza,
hango berririk guti dakiten gizon xumeen egoitza.

Entzun al duzu hori? Haundia esan du. Eta ederra esan du gure artzainak bere ofiziokoentzat. Eta haundi eta eder egin du bere burua esan horiekin.

Eta ez dira hor bukatzen artzainak artzainez esandakoak. *Artzain besta* kantuko seigarrenak ere ez dio aurrekoari zorrik. Hona.

Gure artzain zenduak, menderen mendetan
zure ardi leialak zirenak lur huntan,
harzkitzu, Artzain Ona, zure besoetan,
beti goza ditezen zeruko bazketan.

Ez dira “munduko kiretsetik” garbiak bakarrik. Jesusen “ardi leialak” izanak dira gainera “lur huntan”.

Zeinen eder ikusten duen artzainak artzaina! Eta zeinen eder erakusten duten esalea esan horiek!

Eta ondorengoek ez gutiago. *Urepele* du kantuak izena, eta herri horri eskainitako bertsoak dira. Entzun honako seigarren hau:

Artzaingo da zure aberastasuna,
zare, Jesus sortu zen tokien laguna;
fedea zure baitan sendo daukazuna,
horren hil-zeinua zuk ez duzu entzuna.
Zu baitan bizitzea zer goxotasuna!
ez da toki txarrean ene maitasuna!

Artzain-herri bat da Urepele. Hori du bere “aberasutasuna”. Hortatik bizi da. Eta fedea bere “baitan sendo” daukana da. Haatik “zer goxotasuna” duen herriak! Zein harri, beraz, entzutean artzainari: “ez da

toki txarrean ene maitasuna”? Eta ez dira hor bukatzen, berea duen artzain-herri horri egiten dizkion aitormen goxoak.

Oraintxe datorren hau ere ez da dudako horietakoa. Zazpigarren bertsoaren hasera duzu:

Hoinbertze gogo bihotz garbien sehaska,
hartze (merez) ziniztukena ospeak doblezka.

Horiek esate argiak! Guztiz gustagarria gertatzen zait Xalbadorrek bere sorterriaz eta bere soterrikideez daukan irudi dizdiratsu hori. Berriz esan-eta ere, zeinen eder ikusten duen artzaina gure artzainak!

Eta ezin dut honera ekarri gabe utzi *Urepele* kantuko bederatzigarren bertsoa. Guztizkoa da. Ez dago artzainaz eta artzaingoaz gorespen biribilagorik egiterik. Hona:

Arrotzak zugaratzen dauzkitzu Ekainak,
bainan gu ez kutsatzen horien usainak.
Etzauzkigu erdaran lokartu ezpainak,
euskara baizik ez du mintzaten artzainak.
Garbiki beiratzeko euskaldun dohainak,
pare gabeak dira zure mendi gainak.

Beha, irakurle, nolako begirunea daukan Xalbadorek artzainarentzat eta bere artzain-herriarentzat.

Erdaraz nola esaten dela, begietako lunetetan edo betaurrekoetan zer kolore, inguru guztian halako kolore?

Bere ingurua horrelako edertasunez margotzen duen Xalbadorren bihotzean nolako edertasuna ote zegoen galdetzen diot nik neure buruari. Eta zuk?



“Hamalau urtetako ene gain...”

“**H**AMALAU urte”. Norberari zer bait balirudizkio ere urte horiek, berez ez dira gauza haundia.

Gure mundualdiaren zati haundi bat adin horretakoz goragokoekin igaro dugunoi, 15-16-17-18 urtekoekin konparatuz, haurrak iruditzen zitzaizkigun hamalaukoak. Zenbat aldiz ez ote genion elkarri esan, kurtso berriaren hasieran, etorriberriengatik, “ez al zaizkizu oso niniak iruditzen berri hauek?”. Irudipen hori egiten zigun beti hamalau urtekoen etorrerak.

Xalbador ere, bere hamalau urterekin, hamalau urteko bat izan zen; eta ez, zenbait lekutan esaten den bezala, hamalau bat.

Ikus ezazu argazkian Manex Goienetxe lagunaren alboan, *Odolaren mintzoa* liburuaren 30 orrialdean. Zer da hori haur bat besterik? Horixe zen hamalau urteko Fernando Aire.

Haur bat zen Xalbador, adin horretan beste guztiak diren bezalaxe, nahiz zenbaitek sekulako dohainak erakus ditzekeen urte horietarako, bai buruz eta bai bestelako abileziez.

Askotan haundiek ematen diegun baino esker gehiago merezi dute adin horretako nexka-mutikoek; eta horrelakoei lekua egiten ahalegindu behar da, bai etxe eta bai kanpo, beren dohain horien arabera hazi daitezen eta gara eta horni, egizko gizon-emakumerik izaterik nahi bada gizartean.

Eta ahal izanez gero, beraien gustoen araberako lekua nahi litzateke, nahiz besteren esanekoa hobe

izan askotan, norberaren gustoen arabera aukeratutakoa baino; baina hori aldeaz aurretik nekez jakiten da.

Nik, hala ere, fede pixka bat eskatuko nieke txikiei gurasoengan eta haundiengan; eta gurasoei eta haundiei, berriz, konfiantza pixka bat atzetik datozenengan.

Gure hamalauko honekin izan zuten konfiantza, eta egin zioten leku, eta gustorik gehiena zuen lanetan gainera. Ez, hala ere, berak nahi ordurako! Luzetsita zegoen mutikoa.

Irakur ezazu, *Odolaren mintzoa* liburuan, 29. orrialdearen hasiera. Hor irakurriko duzu honako aitormen biribil hau: "... etzuten gure etxean nik nahi baino lehen ene kondu utzi artaldea". Ez zitzaion, beraz, berak nahi baino lehen etorri, artzain oso deklara zezaten ordua. Ez zitzaizkion motzak egin bere 11-12-13 urteak.

Beti izaten du txikiak haundien lanak egiten hasteko inbiria. Bere adinari dagozkiokenak ez zaizkio gustatzen. Haiek utzi egiten ditu, ahal badu; baina beste horiek! Baita zailenak eta nekosoena badira ere.

Haundiak laian ari direla? Laia behar txikiak, gero ederki damutuko bazaio ere, nik dakidan bati bezala. Segan ari dela haundia? Hura behar txikiak. Aitzurrean? Hartan aritzeko tirriatzen txikia.

Eta dena horrela. Gerora besteren gain pozik uzten diren lan horien guztien irrikitzan bizi ohi da txikia.

Elizan ere ez zen nahi ordurako iristen gizonezkoen artera korura igotzeko ordua.

Eta galtza luzeak jaztekoa? Zenbat zaputuzaldi izan ote genituen, amak berriz ere motzak erosi zizkigulako!

Haundia izan nahi mundu guztitik. Gure Xalbadorrek ere bai: artaldea hartu nahi bere gain. Eta eman zioten noizpait, eta hartu zituen bere gain "ardien lan guztiak". Hamalau urtekoa zela izan zen hori. Izan

zuen konfiantza haren aitak bere semetxoarengan. Egin zion leku. Eta semearen gustoen araberako lekua, gainera!

“Artzaintzan nuen gehienik gustu” irakurtzen diogu 29. orrialde hortan bertan. Antzemanda ote zegoen aita, hori zuela lanbiderik maiteena bere seme txikiak? Horregatik utzi ote zituen ardiak haren gain? Edo-eta beharrak eginerazi ote zion?

Zena zela, estakurua edo aitzakia edo motiboa, han *plantatu* zela gure mutikoa, *artzaintzan*, *mendian*. Eta “geroztik...”.



“Ardier erne begia, bihotzez heier josia”

IPARRALDEKOA ez bazaitut, irakurle adiskide, arrotz xamarrak gerta dakizkizuke *ardier* eta *heier* horiek. Guk *ardiei* esaten dugu, eta *hoiei* edo *horiei*. Haiiek asko erabiltzen dute “er” hori, norbaiti edo zerbaiti doakion datibo horretan.

Euskalkien arteko ezperdintasunak sor zezakeen iluntasun hori argitu ondoren, ikus nola dagoen, arztain deklaratu berria duten Xalbador: “...ardieri erne begia, bihotzez heier josia”.

Buruz eta bihotzez, beraz, gure artzainkoa bere ofizio berrian.

Baina entzun dezagun, hitz horiek dakartzan bertso osoa:

Geroztik ene bizia,
izan eguzki xuria
ala elur erauntsia,
santa sekula pentsatu gaber
zer dutan irabazia,
hola deramat guzia:
ardier erne begia,
bihotzez heier josia.
(“O. M.”, 95. Artzaintza.)

“Ikusten duzu goizean...” kantuarena dute airea bertso horiek. Kanta ezazu, irakurle adiskide, kanta. Axalez bitxia da bertsoa. Eta bestela goxoa eta betea, gixen-gixena. Nola jasotzen duelako hitz gutxitan artzaintzaren muin-muina!

Eta titulua jaso berria duen gure Xalbador ere, nahiz uda, nahiz negu, lanaren etekinaz ahazturik, han dago artalde zain, “ardier erne begia, bihotzez heier josia”. Eta nola egon gainera! Ikus:

Xakurraren konpainian,
xori-kantuen erdian,
nago ardien guardian.
Ez dakit zonbat ditutan bainan,
bat galtzen bada mendian,
hautemaiten dut abian
zoin ez den arditegian.
Ai ene kezkek ordian (orduan)!

Eta ai, hori koadroaren ederra!

Koloreak, esateko modua esango genukeena, guztiz zinak eta finak ditu; baina koadroa osatzen duten gauzak dira, batez ere, hautak eta apartak. “Xakurraren konpainian” –ez zakurraren–, “xori-kantuen erdian” –ez txori-kantuen–, “nago ardien guardian”. Hori planta, hori itxura, hori haunditasuna! Hori ederraren ederra!

Zeinek ez zuen ikusi nahiko ikuskari edo ikuskizun hori *Korota-ko lepoa* deitu gain haietan? Ez zen erraza izango handik itzultzen, hura han utzita. Baina itzuli beharko genuen, eta bakarrik, harek han segi beharra baitauka “ardien guardian”.

Lilurarako eta ametsetarako egina dirudien egonera horretan, artzaina ez dago lo. Erne dago. Guardian dago. Haatik, “bat galtzen bada mendian”, jabetzen da segituan:

Hautemaiten dut abian
zoin ez den arditegian.
Ai, ene kezkek ordian!

Esana da, artzainak ez duela egundaino zenbat ardi dauzkan artaldean esaten. Alde-aldeko bat botatzen duela beti.

Ez genekiena zera da: “ez dakit zonbat ditudan” hori. Bestek jakitea nahi ez dutelako ez ote dute esaten,

beraz, artzainek zenbat ardi dituzten, edo beraiek ere ez dakitelako ez ote dute esaten?

Eta zertarako jakin behar du artzainak zenbat ardi dituen, dituen guztiak banan-banan, bakoizka, ezagutzen baldin baditu? Ez dauka larogeita hemeretziak kontatzen ari beharrik, ehungarrena ez dela han jakiteko. Aski du halako edo holako ez dela han ikustea, ardia galdu zaiola jakiteko eta zein den galdu dena jakiteko.

Ardiak ez dira nombre edo numero bat artzainarentzat. Halako eta holako dira, beren izen eta deitura eta guzti. Haatik ez dauka zenbat dauzkan arditegian kontatzen ari beharrik, halako edo holako falta zaiola jakiteko eta hautemaiteko.

Zeini ez dio gogora erazten honek Joan ebanjelariaren hura: “beren izenez deitzen ditu ardiak eta beren arditegitik ateratzen”? (Jn. 10, 3). Horrela ezagutzen ditu Xalbadorrek bereak, eta kontatzen ari gabe daki “zoin ez den arditegian”.

Eta kezkak orduan. Eta ardi bila zuzenean. Begira, begira nola:

Gero bazterrak miatuz,
ikusirik mirakuluz,
urrundik deitzen dut xixtuz.
Ardi gaixoak ihardetsiko (erantzungo)
derauta (dit) bee amultsuz (maitekorrez).
Orduan hasten naiz kantuz,
ardi hau nereganatuz
gogoratzen zeraut (zait) Jesus.

“Orduan hasten naiz kantuz”. Nolako poza ekartzen ote zuen bere ardiarekin etxola aldera? Bidean artzain lagun bat topo egiten bazuen, hari ere jakineraziko zion zer zebilen, eta mokadoren bat hartzera ere konbida zezakeen etxolara, eta gaztarik hoberena eskainiko zion, eta ardo tragoren bat edo beste ere bai, galdu-tako ardia bilatu izanaren pozaren pozez. Eta bertsoaren bukaeran esaten duen hori ere hala zela asmatzen

ez da zaila. Alegia, “ardi hau nereganatuz, gogoratzen zeraut Jesus”. Eta zeini ez!

Ebanjelioko harek ere auzoak deitzen ditu pozaren pozez, jakin dezaten galdua zuen ardia aurkitu duela, eta artzainarekin batera jai egin dezaten. Zer da hori “orduan hasten naiz kantuz” hura besterik? Pozik Ebanjelioko artzaina eta pozik Urepeleko artzaina ardia aurkitzearekin, eta biek beren pozaren berri ematen.

Harritzekoa ere ez zen gure gizon honi ardiren bat galtzea, “nahiz erne begia” dagoen bere artaldeari begira. Entzun dezagun kantu horretako 5. bertsoa. Entzun ez; kanta dezagun. Hasi:

Udak ardia derama
libro oihanean barna;
orduan ez naiz ni jauna.
Libertatea Jainkoak baitu
denen gogoan emana,
uzten diotet baimena.
Nola dezaket kondena
nihaurek (neronek) maite dutana?

Errespeto hori ardiari dion artzainari galduko ez zaio ardiren bat, ardia den inbiriosoarekin gainera? “Bertan goxorik” ez du ardiak. Beti haruntzago joan behar. Eta haruntzagoko hori besterena baldin bada, orduan eta tematiago.

Eta dabilela dabilela, urrundu egiten da taldetik, eta non dagoen ez dakiela gelditzen, eta nondik nora itzuli asmatu ezinik. Preso gelditzen da. Libertatea espetxe bihurtu zaio. Eta artzainak joan behar bila

Ez da bakarra ardia, bere libertateak preso hartu duena. Bihankakoetan ere bagara hamaika horrelako. Zenbaitek ote daukagu geuren buruentzat eginik presondegia! Zenbat ez ote gara bizi, harresiena baino askoz txarragoak diren kartzeletan?

Ardi galduak badu zeinek aterea. Urrundik datorkio xixtua. Ezaguna da. Hari artaldetik ez urruntzeko

esan dion artzainarena da. Hura poza ardiak! “Bee!” egiten dio nagusiari. Jo dute elkar. Begiz ez du ikusten batak bestea; baina belarriak gidatuko ditu elkarrengana. Zer poza bien hala biek!

Baina uda kontuak ziren horiek. Orain bukatu da “eguzki xuria” eta kanbiatu dira kontuak. Bukatu dira libertateak eta oihanean barnako ibiliak. “Negua heldu da” eta orain badu artzainak artaldea zeinek zaindua. Entzun, entzun:

Laster iraganik uda,
hurbildu gira negura,
gaiten bordarat ingura.
Xixtu batekin gaur biltzen ditut
errex ene ingurura;
sartu zaiote beldurra,
eginen baitu elurra,
ardi heztaile segurra.

Horra uzkurtu ardia. Eskura du gaur artzainak: “Xixtu batekin gaur biltzen ditut errex ene ingurura”. Estutu zaizkio mugak ardiari. Bukatu zaio libertatea. Zakur gogorra bildu zaie ardiei ondora. Eta “sartu zaiote beldurra, eginen baitu elurra”.

Ikus artzain berria: elurra, “ardi heztaile segurra”.

Badu orain, “xakurraren konpainian” dagoen Xal-badorrek, alboko lagun hori baino ardi-zaintzaile bizkorragoa. “Ardi heztaile segurra”, ez alde-aldekoa, xakurra bezala, ekarri dio neguak. Horra bizkorki eta ederki esana, zer den elurra artzainarentzat.

Ezagutzen dut beste definizio bat. Artzainkondo batena hau ere; baina bigarren hau edozeinenagoa izan daitekena da, eta nonahikoagoa. “Haurraren jostailu” da beste harena. (*Euskaldunak, Olentzara, 1. bertsoa*).

Ba ote, izan ere, munduan lekurik, elurra noizean behin egiten duenik, haren presentziak haurra aztortzen eta zorabiatzen eta alaitzen eta harekin jolasean jartzen ez duenik? Mila aldiz burura etorri zait Orixe zenaren definizio hori, Donostiako Santo Tomas Lizeo-

aren inguruan elurra agertu duen aldioro. Nola ateratzen dituelako beren onetatik ikasleak!

Artzainkondoak horrela definitu zuen eta artzainak “ardi heztaile segurra” esan zuen. Ederrak definizioak biak ere.

Eta orain, horrelako laguna etorri zaionean, inoiz baino trankilago egon daiteke artzaina; eta sekulan bada-eta, oraintxe bai dagokeela “bihotzez heier josia”, “erne begia” edukitzearen nekerik gabe. Eta halaxe dago gure Xalbador lagun berria etortzearekin. Entzun, entzun 7. eta 8. bertsoak. Hona zer dioen:

Neguan sartzearekin
artzainak badu zer egin,
bai eta ere atsegin:
ate ondoan ikusi baitut
ardi bat bi bildotxekin,
hantxe bertze bat batekin,
urruntxago bida erkin,
zoin uros (zoriontsu) naizen nork jakin?

Horra artzaina uros edo zoriontsu. Pake-pakean dauka artaldea, eta bere fruiturik preziatuena ematen ari zaio: Bildotxa, arkumea, axuria. Bat “bi bildotxekin” ikusten du. “Hantxe bertze bat batekin”. Eta “urruntxago bida erkin” ikusten ditu, hau da, hume-minetan. Hori bildotx edo arkume edo axuri festa!

Eta artzaina hantxe festaren erdian, batzuei jaiotzen lagundu, beste batzuei amaren titia hartzen, bakarren bati ibiltzen... Hitz batean, artzaina hantxe ama-lanetan.

“Ama-lanetan” esan al dut? Beha, beha 8. bertsoa. Kanta dezagun:

Munduko izaitetarik,
gaur eta egundainotik,
bildotxa da eztienik.
Bati nik hauxe galdetu diot
musu bero bat emanik:
“Nor da gutan dakienik

zoinek zaituen maitenik:
zure amattok edo nik?

Piztazu irudimena edo imajinazioa, irakurle adiskide. Piztazu. Neke haundirik gabe egingo duzu, nik ikus erazi nahi dizudana ikus dezazun.

Artzain jaun bat, bere besoetan bildotx edo axuri bat duela. Ahopez dauka aurrena, bere eskuz lepagaina eta buruatzeara igurtzitzen dizkiola. Ikus, ikus nola daukan.

Orain mutturrez gora jartzen du, esku batez haren buruari eusten diola. Ikusten zer aurpegia jarri zaion artzainari? Zer irriparra? Zer da ortzadar, edo Erromako zubi, edo ostarku bat, horrekin konparatzeko? Hori, hori, hori... Eta axuriari begietara begira-begira jarrita, ez al duzu artzaina ikusten zerbait esan nahiz bezala? Bai, bai. Ea entzuten dugun. Orain:

Nor dan gutan dakienik
zoinek zaituen maitenik:
zure amattok edo nik?

Eta bi sudurzuloen erdi-erdiko mamian... musu ematen dio. Hori eztitasuna, berak esango lukeen bezala! Hori xamurtasuna, guk esango genukeen bezala! Hori goxoaren goxoa, denek esango genukeen bezala!

Baina zer nabil ni hitzen bila, hitzetan kabitzen ez den edertasuna aditzera eman nahiz? Beha zuk, behin eta berriz, zeure baitan piztu zaizun ortzadar berri horri. Horrelakorik!

Eta beha, eta esan orain harritzen al zaituen artzainari entzuteak, bere denborako ordurik larrienetakoa, sakrifiziorik haundiena, berak bere eskuz hazitako bildotxa hil beharra izan zela harentzat?

Zeinek sartu, izan ere, labana edo kanibeta, horrela maitatu duen izaite bati? Hala ez izatera, ez al dirudike saltzailearen musua "musu bero" horrek? Zer Judas tzarra orduan gure Xalbador! Utikan!

Lehen nola aitatu dizudala beste artzainkondo bat? Entzutekoa da harena ere, norberak hazitako bildotxa hiltzen ikusteaz ari dela.

Maitagarri du izena poesiak. Polita, politik bada. Ez da luzea guztia ere, eta laburragoa, berriz, honerako behar duguna, eta bere horretan eskainiko dizut, Orixe dakarrenez dakarren:

Maitagarri, naski,
sailean bildotxa, lagunekin lerro, itzulipurdika,
laister.-zaldien zalaparta gabe pakez dabilana.

Maitagarri, bai ta,
ardiak deizten artzaia ari dala,
zamarrari usai egiten diona.

Are maitagarri
ilea klixkatzen ari
zaizkiola ixilik dagona.

Mingarri, ordea,
lepo egiteko maiean jarria!
Marrakarik ere ez labana sartzean.
Iges egin nendun (nuen) bein baiño geiotan,
eta ikustearren neronek azia.

(Idazlan guztiak, I, 603 orrialdea).

(Ez dezazula itzulpena irakurri, Jainkoatik!)

Ezin eraman izaten zuen Orixe artzaintxoak ere, berak hazitako bildotxa hiltzen ikustea.

Eta “musu bero bat” eman dionak? Sinisten diogu, beraz, bere bizitzako ordurik larrienetakoa izan zuela Xalbadorrek, berak hazitako bildotxari labana sartu behar izan zioneko hura.

Ez zion, ez, begietara behatuz sartuko labana. Ez horixe! Leher egingo zion bihotzak, eta haren labanak bildotxa hiltzeko partez, bildotxaren begiek hilko zuten artzaina. Bai, hala Jainkoa! Lehenago egingo zuen eztanda artzainak berak, begietara begira labana sartuko zion baino.

Ongi beharrak hilerazten dio, bai, artzainari bildotxa!

Eta nola ez sinets orain, “musu bero” hori ikusi eta gero, “bihotzez heier josia” bizi dela gure artzaina? Ba al du sinesten lanik esan horrek? Eta ondoren datorena ere sinestu beharko zaio. Hona *Artzaintza* kantuen 10, bertsoa, azkena bera:

Bildotxa Jesus haurrari
eskaintzen izan denari
Jaunak emaiten du sari;
ardi bildotxik duen herria
ez da arras urrikarri:
direlakotz maitagarri,
berak ditugu lotgarri
sortu gaituen lurrari.

Akaso, bertso horren lehen zatia, hots, “Bildotxa Jesus haurrari / eskaintzen izan denari / Jaunak emaiten du sari” ulertzeko, horren aurreko bertsoa irakurri beharko litzateke. Hona:

Ez da atzoko kondaira,
doha bi mil'urtetara,
jakintsunen arabera:
bildotx bat hartu besotan eta
artzainak ziren atera,
aingeruekin batera,
Eguberri goiz aldera,
Jesusen adoratzera.

Ohore da artzainarentzat, eta Xalbador artzainarentzat bereziki, lehenengo bixitari izana Eguberri goizaldera “Belengo portalian”. *Pobrezian* sortu zenaren lehenengo laguntzaileak, artzainak dira, Xalbadorren ofiziokoak. Haiena da ohore hori. Beti eskutik izango dute errukizko ekintza hori menderen mendeetan.

Eta “baso bat ur” ordainik gabe uzten ez duen Harek, nola utziko du berea eman gabe goiz hartako ekintza hura? Haatik Xalbador artzainaren esan horiek:

Bildotxa Jesus haurrari
eskaintzen izan denari
Jaunak emaiten du sari.

Zer sari? Aberastasuna? Ohiko haunditasuna? Ez. Ez du urre kolorerik sariak, ez-eta haundizki kolorerik. “Gizon xume” bat izaten segitzen du artzainak. *Pobrezian* sortu zenaren antzeko gelditu da Belengo bixitaria. “Gu ere hala gabiltza bizitza guzian” esango dio artzainak Artzain Onari. Pobrezian bizi dela, alegia, Hura bezelaxe.

Zer du, beraz, saria gure bixitari goiztiarrak?

Ardi bildotxik duen herria
ez da arras urrikarri:
direlakotz maitagarri,
berak ditugu lotgarri
sortu gaituen lurrari.

“Ez da -beraz- urrikarri” “ardi bildotxik duen herria”. Beste edozein izan daiteke utzia, ahaztua, bere seme-alabek baztertua. “Ardi bildotxik duen herria” ez.

Eta zergatik hori? Ardiak eta bildotxak “direlakotz maitagarri”; eta guk diegun maitasun horrengatik, “berak ditugu lotgarri sortu gaituen lurrari”. Zorionekoa, beraz, “ardi bildotxik duen herria”! Haiei eskerrek, ez zaio inoiz faltako bere seme-alaben maitasunik.

Haatik dago gure artzaina ere, “bihotzez heier josia” ez ezik, herriari ere josia.

Ez du hemengoa bakarrik pentsamendu hori. Hona nola mintzo den *Semeari* izeneko kantuan, Mixeli Ameriketara bialdutako hartan, 5. bertsoan:

Maite hituen behi, ardi ta bildotxak,
hemengo mendi eta dohain baliosak,
etxeari loturik gaduzkaten gauzak;
zer irabazten dugunm, gogoan har ezak,
hauen amodioak galtzen badauk sosak.
(“O. M.”, 201).

Horra hor “ardi ta bildotxak”, “etxeari lotuak gaduzkaten gauzak”, eta lurrari loturik, eta herriari lo-

turik. Horra munduko sos guztiek baino gehiaho balio duen lotura, balio duen amodioa: “zer irabazten dugun, gogoan har ezak, hauen amodioa galtzen baduk sosak”.

Urepele kantuan ere beste horrenbestetsu entzuten zaio artzainari. Hona:

“Euskara baizik ez du mintzatzen artzainak.

Garbiki beiratzeko euskaldun dohainak,
pare gabeak dira zure mendi gainak.

(“O. M.”, 111).

Artzaintza egiten den lekua, berriz ere, gure euskaltasunaren gordeleku. Ez lekuak gure dohainak gordeko dituelako; ofizio horretan dabilenak baizik, hots, artzainak.

Artzain besta izenekoan ere, 4. bertsoan, ardiak eta herria lotuz egiten du otoitz. Entzun nola:

Artzaintzaren geroak triste du begia,

lan hunek galdegiten du odol berria.

Maitatzerat ardiak, heiekin herria,

lehia zazu, Jauna, gure gazteria!

(“O. M.”, 111).

Zer ofizioa gure Xalbadorrena! Hori langintza gizonarena” “Munduko izaitetarik” “eztienik” den hura du -nola esan?- bere lanaren fruitua. Zer fruitua! “Musu bero bat” emateraino maitatzen den fruitua!

Eta hura eta haren lagunak “direlakotz maitagarri”, “lotgarri” ditu sortu zuen lurrari.

Eta horra gure artzaina “bihotzez heier josia”, eta sortu duen lurrari josia, eta horrek dituen gauza baliousei josiagoa. Horregatik ez da “arras urrikarri” “ardi bildotxik duen herria”. Maite duen bihotzik ez zaio sekulan faltako. Hori zoria herri horrena!

Eta artzaina bera? Nola ikusten du ofizio horretan artzainak bere burua? Irakurri ezazu, edo entzun, edo kanta, *Artzain besta* izeneko kantua 2. bertsoak:

“Ni naiz artzain ona” zuk zinion aspaldi,
izen eder horren gai gu ez gira sendi;
gu artzain xume batzu, bainan zure ardi;
zure korletik (artegitik) kanpo ez gaitela geldi.
("O. M.", 237).

Ardien eta bildotxen maitale zen Xalbador haren-
tzat, zer ote zen bere burua Artzain Onaren ardi ikus-
tea? Ardien maitale bera, eta Artzain Ona beraren
maitale. Zeinek dezake asma, nolako amodiozko festa
zitekeen Xalbador artzainaren bihotzaren hura, bere
burua Artzain Onaren ardi eta bere ardien artzain
ikusiz?

“Musu bero bat” hartzearen eta ematearen festa
izango zen hura.

“Mendiko ene maitea”

ZER? Beste maite bat gehiago mendian? Ez al zuen aski artzain-jende maitagarri harekin? “Gizon xume”, eta “bihotz garbi”, eta Jaunaren “ardi leial” haiekin? Beste bat oraindik?

Eta bildotxari “nor da gutan dakienik / zoinek zaituen maitenik: / zure amattok edo nik?” galdegin ondoren “musu bero bat emanik”, zeinek pentsatzen du sor daitekeela beste maiterik, eta behar dela beste maiterik, eta izan daitekeela beste maiterik? Zeinek?

Ez dakit zeinek pentsa dezakeen, irakurle, bainan bada, bada, mendian beste maiterik. Entzun:

Ez dakit noiztik den bainan, bai iragan (joan den) aspaldian,

gure arbasok landatu leizar batzuen erdian,
iparretik hotzik datorken aizearen gordabian (babesean),
etxetik urrun han dago gure *Artzain etxola* mendian.
(“O. M.”, 102).

Horra zein duen bere “mendiko ene maitea”. Horri eskaintzen dio *Gure artzain etxolari* kantua.

Han dago hura mendian. Ez nolana. “Iparretik hotzik datorken aizearen gordabian” “landatu” zuten eta “leizar batzuen erdian”; eta han dago hura mendian, “etxetik urrun”.

Eta noizkoa den galdetzen bazaio, “ez dakit noiztik den bainan, –erantzuten du– bai iragan aspaldian”.

Eta zuri eta neri, irakurle adiskide, xehetasun horiek eman eta gero, honela hasten zaio etxolari hizketan, edo solasean, edo-eta berbetan:

Kaiola maitagarria, hor zaude mendian gora,
zutarat bilduz nuen nik iragan gazte denbora;
bizitza zoragarri hura maiz etortzen zaut gogora,
oraino ere ahal guzietz heldi nitzaizu ondora.

Kaiola esan du? Huraxe kaiola! Ikus, ikus:

Ate apal batetarik da zutarako sarrera,
leio bakarra begira daukazula sorkaldera;
pausu erdian joan daike ganbaratik (koartotik) sukaldera,
halere etzintuzket utziko jauregi baten aldera (trukel).

Berriz esanda ere, huraxe kaiola!

Hiru bat metro da zabal; sei bat da luze. "Pausu erdi" delako horretan ez dago batere gezurrik. Haiet lotarako zeukaten kamaintza edo kamaina haretatik hanka ateratzea aski zen, sukaldean sartzeko. Sutan ere sar zitekeen, deskuidatu ezker. Huraxe kaiola, huraxe.

Baina maitagarria bere txikian eta bere eskasian. "Etzintuzket utziko jauregi baten aldera" esan dio artzainak.

Izan ere, hara zer aitortzen dion 3. bertsoan:

Zuk ezagutzen dituzu, etxola maitea, ontsa
udaren edertasuna eta neguaren beltza;
munduak duen kiretsetik garbi daukazu bihotza,
hango berririk guti dakiten gizon xumeen egoitza.

Artzainaren bizitzaren testigu den hura –"zuk ezagutzen dituzu udaren edertasuna eta neguaren beltza"– eta "munduak duen kiretsetik" bihotza garbi daukan espazio hura, nola ez izan maitagarri eta utziezina?

Bai, "kaiola maitagarria" zinez etxola hura. Lehenengo aldiz ikusi zuenean lapurtu zion Xalbador haurrari bihotza. Zera esan baitzion etxolak gure mutikoari:

Zer ahal zen zure pena ez baitzinitaizken mintza,
nik ordea mixterioz entzun nuen zure hitza:
"Gorde-leku bat erakutsiz hor dagoke ene giltza!
Nitarat gabe, otoi, ez geldi, hemen gaindi bazabiltza".

Horra etxolaren gonbidapena muttikoari. Hor ostean edo ebasten dio bixitari ezezagunari bihotza “kaiola maitagarriak”. Hori bai izan zela, espaiñolek dioten bezala, *flechazo* edo gezi-kolpe egiazko bat. Zer harremana handik aurrera artzain-gaiaren –gero artzainaren– eta etxolaren artean! Entzun ditzagun beraiek –*ditzagun* diot, etxolak ere bai-baitu hitza–:

Egun guziko nekeak unatua (joa) arratsean,
ene ardiak utzirik, zure ganat etortzean,
errege baten urgulua sendi nuen bihotzean;
hameka aments gozo eginik badut zure ohantzean!

Hori babeslekua eta hori pausalekua edo deskan-
tsalekua! Baina segi dezagun entzuten.

Noizbait etxean norbaitek egin baderaut beltzuri (kopeta
beltza jarri),
nintzanekeo haur nigarrak zu baitan ditut ixuri;
gazteko kezka ments (aments) guziak kondatzen nauzkizun zuri,
zuk konprenditzen ninduzula baitzitzaerautan iduri.

Horixe “kaiola maitagarria”, horixe!

“Unatua” datorren gorputzarentzat badu deskan-
tsua, eta minbera datorren bihotzarentzat badu atse-
dena. Zeini ez dio gogora erazten amaren altzoa edo
magala, Xalbadorrek etxolari egiten dion aitormen ho-
rrek? Non gozatzen da, izan ere, haur erretxindua eta
erresumindua eta gozakaiztua amaren sabelean eta
haren bularrean baizik?

Bai, han etortzen da bere onetara haurra, eta han
argitzen zaio aurpegia, eta hasten da irriz eta jostetan.
Itzuli zaio gozoa, eta pakea, eta loak hartuko du gure
ninia; eta, jakina, amentsak!

Non gozatu dira gure artzainaren gerri “unatuak”?
Non gozatu da artzainaren bihotza? Eta, jakina, non
egingo du aments? Entzun: “hameka aments gozo egi-
nik badut zure ohantzean”. Etxolaren altzoan.

Hurrengo bertsoan esango digunak ez du sinesten
lan haundirik, entzun ditugunak entzun eta gero. Hara:

Artaldea zuri hurbil mendietan zabilano,
primaderaren erditik larrazken (udazken) ondarreraino,
zoriontsuago nintzala, ez dut ahanzten oraino,
erregerikan ospetsuena bere jauregian baino.

Hori egonera eta hori biziera gure artzainarena!
Ederregia, luzarorako izateko. Jo du neguak eta iritxi
da ordua esnatzeko. Akabo amentsa! Entzun:

Negu beltza jin (etorri) da gero, amentsetan nindagola,
ostotarik biluzi (erantzi) zen aldeko leizar arbola.
“Berriz ikus arte!” erranik han utzi nuen etxola.
“Ai, sasoin ona zoin laburra den!” iduri zuen ziola.

Bere kopeta beltza erakutsi die neguak, eta akabo
gure maitaleen solasak eta jolasak eta pozak eta zorio-
nak. Akabo amodiozko festa! Eta hasperen bat atera-
tzen zaio barren-barrendik etxolari: “Ai, sasoin ona
zoin laburra den!”. Ondo egia! Hori ez dakienik ez da
hemen.

Jo du neguaren ordua eta bakandu dira gure mai-
taleak. Noiz joko ote du kukuak eta noiz *primaderak*?
Ez noski gure maitaleak nahi bezain laister. Ez ote die
luzeegi joko aparte bizi-beharrak? Izango ote dute pa-
zientzia hurrengo udaberrira arte elkar ikusi gabe
irauteko? Jakin dezagun. Entzun:

Negu batez pentsatu dut elurrez elur joaitea,
ikusi behar nuela *mendiko ene maitea*;
gure etxola elur hotzak azpian zeukan gordea,
gizon bat zuen hila iduri, mihise (*maindire*) xuriz gordea.

Segi ezazu entzuten, adiskide. Hona:

Egun onen erraiterat barnerat sartu bainintzan,
ene bihotzak etzuen atsegin haundirik izan:
teilen artetik itaxura zarion nigarren gisan,
dohakabe bat bisitaturik bezala itzuli nintzan.

Hori ikuskizun negargarria! Gorputz bezala dago
etxola: “gizon bat zuen hila iduri mihise xuriz gordea”.
Hori pena!

“Ene bihotzak etzuen atsegin haundirik izan”. Guk sinestu! “Dohakabe bat bisitaturik bezala itzuli nintzan”. Zeinek ez daki horrelako bisiten berri? Ia-ia joandako damutan itzultzen da bat askotan, maite dan gaiso bat ikusten izanda. Hura zama bihotzak! Hura nahi eta ezinaren lorra! Hala dator mendian behera, “elurrez elur”, “mendiko maitea” ikusten izan den artzaina.

Negar dagi etxolaren bihotzak, eta negar zegikeen artzainarenak, eta negar zegiketenn gure bixitariaren begiek ere. Horra neguaren beltza.

Jakin nahi al duzu, irakurle adiskide, zein hiru izen haunditan aurkitu dutan teilatuaren jario hori aipatua, neguaren beltza erakusteko?

Hona izenak: Xalbador, Uztapide, Orixé. Zer hiru izen, eta zer hiru izan! Artzain izanak hirurak. Xalbador artzainena, jakina.

Eta hirurek entzuten diote musika bera neguari: “nigarren gisan” teilaturik darion horren hotsa.

Hona Orixerena. *Artzaiarena* du izena poesiak, eta hala dio:

Joale-ots geldi
ta ituzurak
iluntzen zituten
artzai-egunak.
(Idazlan guztiak, I. 463).

Ituzurak dio Orixek. *Itaxura* dio Xalbadorrek. Ikusten da hitza bera dela, nahiz-eta ez duen gauza bera esan nahi bietan. Xalbadorrenak teilatutik etxola barnessa doan uraren ttantta esan nahi du. Orixerenak, teilatutik kanpora doanarena.

Baina biek “nigarren gisan” teilatutik darion hori dute “neguaren beltza”-ren ezaugarri.

Uztapidek hona nola kontatzen duen:

“Neguan toki gogorra zan ura. Noiznai elurra egingo zuan, da elurtea tristea da an. Zenbat eta mendiagoan eta tristeagoa izaten da elurra. Alturan, lañoa ere sartzen

du lurreraño, ta, illunabar aldean, txantxangorria gizonagana biltzen asten danean, ixtilla txat! txat, tellaturik bera...". (Lengo egunak gogoan, I, 26).

Hori deskribapena, mendiko baserrian elurrak sortzen duen egoeraren beltza adierazteko!

Eta zestuarra ere, orexarrak eta urepeldarrak bezalaxe, teilatutik darion hori aitutzen digu neguaren ezaugarri. *Ixtilla* dio Uztapidek. Orixeren *ituzurak* da hori, teilatutik kanpora doana. Baina igual du. "Nigarren gisan" teilatutik darion hura hor ere.

Ez al zaizu polita eta jakingarria iruditzen, irakurle, hiru jaun eta euskaldun haundi hauek detaile berari heldu izana "neguaren beltza" adierazteko? Neri bai. Eta kontatu egin dizut, ikasi nahiko bazenu ere.

Baina, noizbait behar-eta, atertu zaio jarioa etxola maiteari. Entzun:

Gaur elurrak hurtu ditu, zabaldu da primadera;
artaldea ere berriz igan da mendi gainera;
ahal bezain maiz sartuko naiz, etxola, zure barnera,
nehoz ukatu ez derautazun bake hortaz gozatzer.

Horra berriro gure maiteak elkarrengana bildu. Bakandu zituen "elurrak hurtu ditu". Aldegin du etsaiak. Orain elkarrekin izango dira "larrazken ondarreraino". Berrituko da berriz ere haien maite-festa.

Bainan gaur zer senditzen dut? Zer heldu da ene gana?
Jazdanikan aurtenerat bortitza zaut mendi gaina;
geiago luzaz ez nitaike izan lehengo artzaina,
bainan, etxola, ez, otoi, trista: utziko dautzut ordaina!

Horra negurik beltzenaren etorrera. Horra hurtuko ez duen elurra egin. Horra: "jazdanikan aurtenerat bortitza zaut mendi gaina".

Ezina etorri zaio artzainari. Urteak ez dute barkatzen. Etxolak han segiko du, baina artzainarenak laister egingo du. Eta orduan zer? "Utziko dautzut ordaina".

Izango du lagun berria etxolak. Izango du *unatua* bilduko zaionik. Izango du “gazteko kezka ments guziak” kontatuko dizkionik. Eta izango du “aments gozo” ugari barne haretan egingo duenik. Hitz batean, izango da haren magalaz behartuko denik: “utziko dautzut ordaina”.



Xalbador, bere artzain etxolaren atean. (Foto Boni Otegi)

Hori mendia!

“**M**ENDIAN sortu bainintzan” hartatik honeraino bitartean, badugu zerbait entzunik haren mendialdiaz. Eta zu ere jabetuko zinen, irakurle, ni bezalaxe, mendi aberatsa tokatu zaiola gure artzainari.

Hor ikusi dugu, lehen-lehenik, “xakurraren konpinian, xori-kantuen erdian”. Txorien hori izan omen zitekeen haren kantu eskola. Entzun:

Beha zure mendi ta oihan ederreri,
zure ur garbietan arrainak igeri;
entzun xoriak kantuz goiz ala astiri,
erakutsi beharrez kantatzen besteri.
Ez dela harritzeko, errez da ageri,
pertsutako gogoa sortzen bazaut neri.
(“O. M.”, *Urepele*, 105).

Bere bertsolari ofiziorako eskola ere, beraz, mendian aurkitu du, “xori-kantuen erdian”, hain zuzen.

Han izango du ere lagun, “munduko izaitetarik” “eztienik” omen den hura: bildotxa. Maitagarri, maitagarririk bada, Orixe zenarentzat bezalaxe, Xalbadorrentzat ere. Eta maitagarri, bereziki, “ardiak deitzen artzaia ari dela zamarrari usai egiten diona”. Horiek kontu politikak artzainarenak! Hori goxotasuna!

Eta lagun, batez ere, bere ofiziokoak izan ditu: artzainak. “Gizon xumeak” berak; baina mundu kiretsetatik libre daudenak. Artzain Onaren ardi leialak, gainera. Berriz esanda ere, hori konpainia! Zenbat ontasun eta ondasun mendian! Aberatsa mendia!

Eta “mendiko ene maitea” dioena gero. Hori “ihesle-
kua!” Hori arnasbidea bera!

Hori askatasun-gunea izpirituarentzat! Zein harri
orain, eta nork duda, zoriontsuago zela “erregerikan
ospetsuena bere jauregian baino” entzutean? Hori
mendia!

“Goiz argi batez” egin zuen topo lehenengo aldiz
mendiarekin. Harengan josirik gelditu zen argizko
ikuitu hori, goizarena ote zen ala mendiarena? Mendi-
ko gozarena izan bide zen.

Hor uzten dugu oraingoz mendia. Gero itzultzeko-
tan?

Sortetxe eta sortetxeko

**Oi gure etxe maitea,
orroitzapenez betea,
zorionaren atea!
Zure altzoan iragana dut
sortetik orai artea.
Izanagatik pobrea,
bertzeak baino hobea
ni sortu nintzan etxea.
("O. M.", Sortetxeari, 83).**



Xalbadorrenea.

“Oi gure etxe maitea”

GUTAKO zeinek ez luke horrelatsu hasiko, bere jaiotetxeari kantu bat egitea bururatuko bali-tzaio? Horrelatsu hasi, eta harek bezalaxe, “orroitza-penez betea” eginez lezake jarrai beste edozeinek ere.

Etxea zenbat maite dugun jakiteko, ez da utzi be-harra izatea bezalakorik. Harek ikasten du ondoen zertaraino sartua daukan etxea.

Ez da gezurra “orroitzapenez betea” hori! Hurrun joan denari, nola etortzen zaizkilako burura etxea eta hango jende, hazienda, baxter, tresneri eta etxaldeko zugaizti, iratzeleku edo garaleku, eta goxotasunen bat senditu izan zueneko beste hainbat gune eta gauza. Zer etzaio etortzen!

Haizearen xixtua berritzen zaio hamaika aldiz bela-rrian! Usainak ere hor etortzen dira sudurraren pun-tara. Zinez “orroitzapenez betea” gertatzen da etxea, hura utzita beste norabaitera joan denarentzat.

Dena pizten zaio eta denak deitzen du etxera, eta dena zaio hobe, etxetik kanpo daukana baino.

Hobe idatzi dut. Xalbadorrek ere hala baitio; “ber-tzeak baino hobe ni sortu nintzan etxea”. Eta hori, “izanagatik pobrea”.

Zergatik, beraz, *hobe*a? Besteak baino balio haun-diagokoa delako? Besteak baino gauza hobez hornitua dagoelako? Besteetan ez bezalako gauzak badirelako gurean?

Ez da hori kontua. Ez da hobe edo txarrago kontua. Ez da aukera gutxiagoren edo gehiagoren kontua.

Gure etxea gureago izatearena da kontua. Hangoak gera gu. Nola gainera! Entzun, entzun artzaina:

Amak, munduratekoan,
etxea, zure xokoan,
hartu ninduen besoan.
Geroztik hunat eduki nauzu
zure geriza (babes) goxoan.
Nabilalarik kanpoan
ez naiz sosegu osoan,
beti etxea gogoan.
("O. M.", Sortetxeari, 83).

Egia. Han hartu zuen amak besoan. Zer gauza! Gerrozkoan etxeak bere geriza goxoan" eduki du.

Han egin da Xalbador. Han egin du negar. Han izan du poz. Han erori da eta han bertan jeiki. Han sortu zaizkio berezko lehenengo pentsamenduak eta sendimenduak. Han jabetu da bere buruaz. Han egin da gizon. Eta sortetxearen parekorik ez da harentzat.

Baina zer ari naiz ni berriketan, irakurle? Entzun dezagun bera, eta kanta dezagun *Sortetxeari* kantuko 3. bertsoa:

Dudalarik zerbait pena,
zu zaituz lagun lehena,
ihes leku hoberena.
Zure alderat inguratzen naiz
ahalik eta maizena.
Munduko leku maitena,
zuri zor dautzut naizena:
izana eta izena.

Horra hitz bitan guztia esana: "zuri zor dautzut naizena: izana ere izena". Horra guztia.

Zuk eta nik, irakurle, dugun apurra, gure izantxoak dugu. Guk ez dugu izenik. Harek bai, bazuen hori ere; eta izana ez ezik, izena ere etxearena zuen. *Xalbador* du jaiotetxeak izena, eta *Xalbador* zuen gure artzainak izena. Horrekin ezagutu du Euskal Herri osoak. Hamatika izango da, oraindik ere, haren izen-deiturarik edo izen-abizenik ez dakienik.

Nola ez maita, garen guztia eman digun hura? Hura da gure izatearen molde, eta han bezain goxo ez dugu beste inon aurkitzen geuren burua. Handik kanpora ez gara “sosegu osoan”. Beste ezerk izan ez dezakeen zerbait badu guretzat gure sortetxeak. Entzun dezagun artzaina kantu bereko 6. bertsoan:

Zutaz hainbertze entzuna,
aunitzentzat ezaguna,
o bizipidse urruna!
Nik betidanik arbuia (baztertu) dut
zure aberastasuna.
Hau da guk deraukaguna,
zu baitan eskas duzuna:
etxeko goxotasuna.

Elkar ezagutzeak dakarren trankiltasuna, elkarren berri jakiteak ematen duen sosegua, elkarrenak izateari darion egokitasunari zor zaio hori guztia. Artzainak esan duen bezala, horri zor zaio “etxeko goxotasuna”. Eta zein harri orain, *altzo* horretan hil ere egin nahi izatearekin? Hona *Sortetxeari* kantuko azken bertsoa:

Pertsu hauk bururatzean,
azken finez (heriotzez) oroitzean,
emanen naiz otoitzean:
Etxea, noizbait utziko zaitut
aunitz pena bihotzean;
Jaunak, zure babesean,
nola bainintzan sortzean,
naukala heriotzean.

Amaren sabel-orde eta altzo-orde izan den etxe horretan eman nahi du bere azken arnasa gure artzainak.

Ez zuen asmo hori bete ahal izan. Goizean bizirik atera zen ate beretik, hilik sartu zen iluntzean etxera.

Ez da gezurra geroa ez dagoela gure esku. Eta inoiz guk nahi bezalatsu gerta baledi ere, ez da guk nahi dugulako izango.

Xalbadorren heriotza ere ez zen etxean izan, harek nahiko zukeen bezala. "Zutan sortu ta zutan haziak, zutan behar dugu guk hil" hura, ez zen egi gertatu Xalbadorrengan.



Xalbador, Xalbadorreneko atarian.

“Leku pausakor hobeagorik...”

“**E**TXEKO goxotasuna”, irakurle, guztiok dakigun bezala, ez da etxeko gauzez hornitzen. Ederki erakutsi du hori gure mendeak.

Gizarteko zein sailetan agertu da, izan ere, etxea ukatu duen jenderik gehiena? Gizarteko zein mailatakoa izan da, gurasoekin eta aurrekoekin eten eta beste zerbaiten bila atera behar izan duen jendea? Gauza onez eta gauza askoz inguratua bizi zen jendea.

“Etxeko goxotasuna” ez dute hornitzen gauzek. Zorionez!

Hala ere, irakurle adiskide, zure baimenarekin, gauza den gauza bat aitatu nahi nuke artzainaren etxekoa, haren bizitzan haren “etxeko goxotasuna” horni zezakeelakoan. Artzainak berak ematen dit bide horretarako.

Hor gaineko hitz horiek bertso batekoak dituzu, irakurle, eta nik aitatu nahi dutan gauza horri eskainiak. Hona emen bertsoa:

Ohea bezain (haina) zer baliatzen
ote da gure bizitzan?
Leku pausakor (deskantsuzko) hobeagorik
nehon ez ditaike izan;
handik kanpora ertetzen gira
eginbeharren peskisan,
astia izanez goizean ere
geiago egonen nintzan.

(Auspoa, Bertsolari txapelketa, 1967-VI-11)

“Ohea bezain zer baliatzen ote da gure bizitzan?”. Hori jarioa hasten zaio gure artzainari, *ohea* gai entzun hutsarekin! Hori esaldia ateratzen zaiona gizonari! Erdi galdera, erdi espantu eta harrimen den esaldia. Hori sarrera bertsoari!

“Leku pausakor hobeagorik nehon ez ditaike izan”. Horrelako pausaleku edo deskantsaleku izanda ohea, harritzekoa al zen bertsoaren sarrera hori eta horko espantua, nekea lagun duen nekazari edo laborari baten izanda bertsoa? Ez, espantua ez zen harritzekoa. Edertasun espantagarri hori da harritzekoa. Eta denak ere, mila eta mila eta mila bider gure gorputz nekatua goxarazten digun oheak esaneraziak.

Neke eta atsedeen kontu honek, zeini ez dio gogoraezaten Lizardi zena? Poeta eder honek, inoiz idatzi den olerkirik ederrenetakoa, “neke-sendalaria” deitzen du *oia* (ohea). Bere kalekumean ere, bazekien gure zarauztar-tolosarrak, zer duten ikustekorik nekeak eta oheak. Bazekien, eta ikasiko zuen hobeki, nekazaria izan balitz. Xalbadorrek bazekien.

Eta bada besterik ere gure Lizardirentzat ohea. “Lanaren saria” omen da gainera. Eta “amestegi guria”, eta “naigabeen azkaia”.

(*Azkaia* hori, Xabier Letek-eta *Erein* argitaletxean atera zuten azken edizioan, *ahazgaia* jartzen dute. Ez dut uste hala denik. Nik buruan gaizki sartua ez badaukat, lehenengo edizioan, *azkaia* horren erderazko ardaina *lenitivo* da. Hau da, hazkuraguneak eta minguneak goxatzen dituen. Beraz *azkaia* beharko luke, eta ez *ahazgaia*.)

Zer goxalekua gure Lizardirentzat ere ohea! Eta nola ez, eguneko nekea bildu denean eta *atsartzeko* den gaua datorrenean, apaldu eta gero, agur guztiak ohearentzat izan? Entzun poeta zarauztarra:

Bitez agur nereak,
afalondoan behintzat.
guztiak zuretzat.

Hurbil dabilta poeta eta bertsolaria ohearen mirespenetan.

Aldetxo bat, hala ere, irakurle, ikuserazi nahi nizuke bien artean. Poetak, goxalekuaren alderdi onak bakarrik esaten dizkigu. Bertsolariak, hura utzi beharren damua eta pena ere erakusten dizkigu. Hain dira hurbilekoak bi gauza horiek! Entzun bertsoaren bukaera: “astia izanez goizean ere geiago egonen nintzan”.

Zuri ere ez al zaizu gertatzen inoiz, irakurle, bertan egotea goxoa bezain garratza handik atera beharra? Gu ere, Xalbador bezala, “eginbeharren peskisan” ateratzen gara gure txoko maitetik; baina ederki kostata askotan, egotea goxo bezain mingarri zaigularik uztea.

“Etxeko goxotasuna” ez zaio arrotz oheko goxotasunari.



Lizardi.

“Maitasunaren ohantze?”

GUK *ohatze* esaten dugu; ez *ohantze*. Gauza bera esan nahi dute batzuetan; baina ez beti, ez-eta gutxiagorik ere.

Iparraldekoentzat, *ohantze* gure *kabi*, edo *habi*, edo *kafi* ere bada. Eta Xalbadorren esan horretan ere, kafi da. Ez da ohea. Bai, irakurle, Xalbadorrentzat kafi da.

Esan dugu nola goretsi duten Zarautz-Tolosaetako poetak eta Urepeleko artzainak gure etzaleku maite hori. “Neke-sendalaria” dela esan digu poetak; eta “leku pausakor hobeagorik” ez ditakeila izan esan digu bertsolariak. Ederki apaindu digute gure txoko maitagarri eta indarberritzaile hori gure bi idazle mirestuek.

Aldetxo bat ere seinalatu dugu bien artean. Toki goxo hori utzi beharraren pena edo damua ere agertu duela esan dugu artzainak. Poeta ederrak egin ez duena.

Baina alderik haundiena orain dator. Lizardi poeta ederrak ederki kantatu du ohea. Edozeini bertara joateko inbiria sorterazteko moduan kantatu digu. “Ai, nolako zoroak –beraz– gauetz kalerik-kale ibil oi-diranak”. Hala deklaratu du poetak.

Eta amets polita ere asmatu du oherako. Nolako ametsa, gero!

...Amets degit (egiten dut) nautela
tximirritek (mitxeletek, ingumek..) eortzi
aberaska baten,
ta illobia, lasaki
ia ixilka, ari naizela
parra-parra jaten...

Hori goxoaren goxoa amets horrena! Hori enterramendu zeruzkoa egiten diotena tximirritek!

Bai, Lizardiri sekulako eder-jarioa jartzen dio oheak. Bazekien zerbait, nonbait, "amestegi guri" horren berri zarauztar-tolosar poetak. Kantatu du ohea poesiarik zoragarrienetako batean. Irakurriago eta ederrago gertatzen dena da Lizardiren *Oia* poesia.

Baina Lizardik hutsik utzi du ohea. Bere *Otartxo utsa* hura bezalaxe, hutsik gelditu zaio ohea. Ez du lagunik ekarri bere *ohantze* edo kafi maitagarrira. Eder erakutsi digu zinez bere etzalekua; baina hutsik.

Betor artzaina, eta bekar laguna eta beza bete kafia. Badator artzaina, eta badakar laguna, eta beteko da kafia, eta berotuko da ohantzea, eta hasiko da festarik ederrena. Horra artzaina kantuan:

Ohe maitea, zurekin badut
nik egundainoko hartze (zorra),
nahiz artetan ematen duzun
kolpeño bat edo bertze.
Bizitza onik zu gabe ez da,
hortaz beti dut aditze,
ez zeradea zuhaur izan zu
(ez al zerade zeorri izan zu)
maitasunaren ohantze?

(*Bertsolari txapelketa, Auspoa, 1967-VI-11*)

Bigarrena da hori, txapelketa haretan *Ohea* gaiari kantatutako hiru bertsoetan.

Ez ziren aldrebesak Lizardik oheaz egin difinizioak. Denak eta bakoitza ziren ederrak.

Hala ere, "maitasunaren ohantze" hori...

“Zure egina nauzu muina ta hezurra”

“**E**TXEKO goxotasuna”, ez gauzek; beste zerbaitek egiten duela bereziki esanda utzi dugu lehen.

Hala ere, zure baimenarekin, irakurle, gauza den zerbait aipatuz hasi gera etxeko goxotasun horren bidean, ez omen dago-eta “leku pausakor hobeagorik” munduan.

Eta hona nola garamatzen orain *Ohea*-k ohekoa. “Maitasunaren ohantze” deklaratu ez digu, bada, artzainak etzaleku maitagarri hori?

Eta zeinek duda, *ohantze* horretan, “bizi laguntako mezu” (*Bertsolari txapelketa, Auspoa, 1967-VI-11, 82 orrialdea*) egin zaionak eta mezu hori jaso duenak duela garrantzirik haundiena? Zer zeukakeen buruan artzainak ere, “maitasunaren ohantze” kantatzen zuenean?

Izan ere, andrea edo emaztea kantatzea tokatu zaion bakoitzean, sekulako argitasunez, eta egokitasunez, eta edertasunez egin izan du gure Xalbadorrek. Bada lekukotasunik.

Hor gainean idatzi dudan esaldi hori, emaztea gai eman zioten saio batean kantatutako bertso batekoa da. Ez da hain ezaguna saio hura, eta ez dira hain entzunak bertso hauek.

Eta ez da egun seinalatu batekoak ez direlako. Askotan, egun bat seinalatu egin duen zera harek beste guztia tapatu egiten du. Hori gerta bide zen bertso hauekin ere.

1972ko apirilaren 30ekoak dira. Gogora erazten zerbait data honek? Han ginenotan ez zuen nolana-hiko ikara sortu, eta sartu. Bai gainerako bertsozaleetan ere, berria jakin zutenean.

Donostiako *Anoeta* (gaur *Atano III*) pilotalekuan zen. *Argia* astekariak antolatzen zuen jaialdia, nik us-te. Sos batzuk biltzeko hamaika horrelako egin behar izaten zen garai haietan.

Jaialdia bazoan aurrera, Joxe Mari Iriondo gaiemai-le egokia gidari zela. Hontan Zestuako bertsolari pare-gabeari eman zion txanda, eta jarri zion gaia kantatze-ko.

Hurbildu zen bertsolari leiala mikrofonora, eta hasi zen kantari. Hasi bai; baina eten egin zen. Berriro ere ekin zion; eta lehengoa berriz ere. Eta gure Uztapide mirestua jarri egin zen.

Han bukatu zen Uztapide haundia bapateko bertso-etarako. 1972ko apirilaren 30ean izan zen.

Egun haretan kantatu zituen bertso hauek, hura gure garaiko “bertsolaririk osona” deklaratu zuen artzainak. Ez dakit Uztapide isildu aurretik edo gero izan zen; baina egun haretan izan zen.

Joxe Mari Iriondok hala eskatu zion Xalbadorri:

“Galde bat, hiru bertsoetan zure erantzuna eman dezazun: zergatik maite duzu, zahartu den zure bizi-laguna, zure emaztea?”

Eta hona artzainaren erantzuna:

Andrea ez dut nik hartu geroko menturan,
neguaz pentsa gabe maitatu dut udan;
bainan oraintxe jartzen ari naiz ni dudan
gero ta maiteago zergatik zaitudan.

Zure egina nauzu muina ta hezurra,
hala pasako zela banuen beldurra;
oraino're zurekin ni beti gustura,
zutan kusi nuena ez baitzen gezurra.



Leoni eta Xalbador, Donibane Lohitzune, 1976-VI-20.

Iguzki egina da zu zaren itzala,
luzaro elgarrekin gaitezke, oxala!
Ikusten dut beti ta hobe zoazala,
armairu-xokoan den ardoa bezala.
("O. M.", 341).

(Norbaitek kantatu nahiko balitu, jakin beza Iparragirreraren "Gitarra zartxo bat..." kantuaren doinuak kantatuak direla.)

Hori hirukoa! Zer sarrera, eta zer segira, eta zer bukaera!

Bai; bakarkako gaiari erantzuteko teknika ere egokia da.

Lehenengo bertsoak gaia planteatu besterik ez du egiten xinpleki:

bainan oraintxe jartzen ari naiz ni dudan
gero ta maiteago zergatik zaitudan.

Horra galderan utzia gaia.

Lehenengo bertsoan zenbat eta gutxiago zehazten den gaia eta esaten, orduan eta hobe ondorengo bertsoentzat. Zabalago gelditzen da. Hori teknika bat da, guztiz mesedegarria, osotasun batean gaiari erantzun nahi bazaio, zabalduz eta bilduz eta biribilduz.

Bigarrenean hasten da erantzuten. Eta nola! "Zutan kusi nuena ez baitzen gezurra".

Begiak eta bihotza lapurtu edo ebatsi zizkion hura, egia zen. Ez zen lilura bat, ez zen itxura bat, ez zen gezurra. Egia zen.

Eta onak hobera egiten baitu, Xalbadorren maitea ere hobetu egin da, "armairu-xokoan dan ardoa bezala".

Zer hiru aleko edo bihiko pieza! Ederra da teknikaz, ederra da konprazionetan, ederra da pentsamenduetan, ederra da guztiz.

“Pentsa zazute alargundu bat ez daike izan urusa”

GALDETU zaionean esan du, eta adierazi du nola nahi dion bere emazteari. Esan dio: “zure egina nauzu muina ta hezurra”. Eta esan dio, baitere: “iguzki egina da zu zaren itzala”, Aitortu dio zinezko maitasuna “maitasunaren ohantze”-ko bere lagunari.

Ederrak eta ederki esan ditu. Eta inor ez gaitu harritu bertsolariaren aitormen horrek. Nola harrituko gintuen, bada!

Ez ahal zeukan, bada, lehendik egina, ez zuzenean, baina bai zeharka, inoiz plazetan egin izan den maitasun eta leialtasun deklaraziorik mardulena? Ez ahal geneuzkan entzunak, eta ikasiak, eta gure folklorean sartuak, hildako emaztearen soinekoari kantatutakokak? Zer behar zen besterik? Gogoratuko ahal ditugu beste behingoz? Gogora ditzagun:

Pentsa zazute alargundu bat
ez daike izan urusa (zoriontsua),
dolamen (negar) hunek, oi!, ez dezala
ainitz (askoz) gehiago luza;
orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan (zintzilik)
penaz ikusten dut hutsa.

Geroztik nihaur ere nabila
guzia beltzez jantzirik,
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak hesterik:

ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan bertzerik
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.

(*Bertsolari txapelketa, Auspoa, 1965-1-1, 93 orrialdea*).

Zazpi urte hartan entzunak, eta ikasiak, eta behin eta berriz errepikatuak genituen bertso horiek edukita, galdetu beharra al zegoen gero, maite ahal zuen berekin “bizi laguntako” hartu zuen laguna?

Ez. Ez zegoen galdetu beharrik. Esana zeukan lehendik. Zeharka, baina esana. Eta gainekoa ikusita azpikoa ere ikusten dakienarentzat, ez zegoen dudarik.

Xalbadorrek bere maitearengan *kusi* zuena ez zela *gezurra* izan. Eta “neguaz pentsa gabe maitatu” zuena udan”, “beti ta hobe” zoakeela, “armairu-xokoan dan ardoa bezala”.

Bai, hori jakina zen; baina zeinen gustagarria gertatzen den, hain harrigarriro ederki esanik, berriro entzutea, soinekoaren aitzakian, emazteari egiten zaion leialtasun eta maitasun sekulakoaren zina! Bai, benetan ederra gertatzen da, lehendik jakinaren gainean egon arren, berriro entzutea:

ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan bertzerik
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.

Esan ote da inoiz, dela gramatika arauz, eta dela hizketa arauz, eta dela arau guztien arauz, ezer apartekoagorik?

Maitasunaren ohantzeko lagunak esan erazia dio hori Xalbadorri.

“Hogoi urtetan bezala”

ORAIN artean entzun ditugunak, pasaizoan edo iraizean esanak ziren, plazan eta bapatean kantatuak, zerbait esan beharraren derriorrak esan eraziak. Hori da bapateko langintza.

Orain datozenak, aldiz, etxeko ixiltasunean eta soseguan idatziak dira. Ez du inork eta ezerk behartu, ez zerbait esatera, ez orain eta hemen esatera, ez burura etorri hala esatera.

Egia da, tabernazulo batean entzun duenak hasi erazten duela *kantatzen*. Hona sarrera:

Ostatu baten barnean entzun dut ahapaldi zoroa, beren ustean oro (danak) dazkiten gazte batzuen leloa: “Zaharrendako salda ona ta gaztentzat amodioa”. Gezurra dela jakin dezaten kantatzen hastera noa.

Ez da ostatu bateko esanek eginerazten dioten lehenengo kantua. *Herria eta hizkuntza* saila ere hunela hasten da: “Iragan egun batez ostatu batean”. Ez daki-gu ostatu berean izan zen; baina ostatuan, bai hartarako aitzaki edo estakuru eman ziona, eta bai gure honetarako ematen diona.

“Ahapaldi -edo ateraldi- zoroa” entzun du, “beren ustean oro dazkiten gazte batzuen leloa”. Hala zioten, nonbait: “Zaharrendako salda ona ta gaztentzat amodioa”.

Ez dezake uka, noski, “saldo ona” on denik zaharrentzat; baina ukatu nahi du “gaztentzat amodioa” delako kontu hori. Eta hala dio:

Berrogoi eta hamar bat urte badu ene emazteak,
berrogoi eta hamairu nik iragan udan beteak;
maitasunezko sendimentutan oraino gaude gazteak,
amodioa zintzoa bada ez dira konda urteak.

“Berrogoi eta hamairu” dio bere urteengatik. Eta berrogeita hamalau betetzear, esango nuke nik, hala baitio kantu bereko 5. bertsoan: “sartzerat noa berrogoi eta hamabortzgarren urtean”.

Dena dela urteen hori, andra-gizon helduak dira Leoni eta Fernando. Haundinez aurrera dute beren bizitza. Hala ere, “maitasunezko sendimendutan” oraindik gazteak daude.

Eta ez daukate hori jakiteko inora joan beharrik. Ederki ikusten dute beren seme-alaben ondoan. Haiek gazte daude, gordin. Bakoitzak badu bere laguna. Bartzuek haurrak ere badituzte. Ez dago urrikgarri inor.

Eta zer? Entzun:

Laister laguna hartzekoa du gure haurretan gaztenak,
lehendik ere bi baditugu ezkondukan daudenak;
bakotxa bere lagunarekin etxerat biltzean denak,
ohartzen gira guhaur girela denetan loriosenak (zorion-
tsuenak).

Berak dira *loriosenak*. Han daukate etxean beren seme-alaben ispilu edo miraila, eta zer ikusten da han? Aita-ameri dariela argirik gehiena, poztasunik gehiena eta zorionik gehiena.

Zu harritzen al zaitu horrek, irakurle adiskide?

Begiek guztiz engainatzen ez bagaituzte, zenbat aldiz ez dugu ikusten bikote xahartuetan elkarrentzat goxotasun eta xamurtasun edo eztitasun gehiago bikote gaztetan baino? Zeinek uka dezake hori? Zenbat aldiz ikusten da inbiria ematen duen bikote xaharrik, eta zenbat aldiz pena ematen duen bikote gazterik? “Amodioa zintzoa bada ez dira konda urteak”.

Baina uztegun beste bikoteak, eta gatozen gurea-rengana.

Ikusi nahi, irakurle, inoiz ikusi den koadrorik edere-
rrenetako bat? Beha:

Maite-mindurik emaztearen inguruan nabilala,
galdetzen diot maite nauenez (edo ez) otoi segurta nazala;
arrosa bezain gorri eginik, begiak apal-apala:
baietz segurki, ihardesten (erantzuten) daut, hogoi urtetan/
bezala.

“Maitasunezko sendimendutan oraino gaude gazte-
ak” esan digu lehen; eta bertso hau entzun eta gero,
ez da zaila sinesten.

Zer da, izan ere, zeruzko bertso horretan esaten
zaiguna, amodiozko gazte-festa bat, ia-ia haur-festa
bat esango nuke nik, besterik?

Hori jolasaren eta jostetaren zoramena! Hori maite-
min zinaren eta finaren fintasun liluragarria!

Hori koloretan eman beharko balitz, zeinek asma
gisako koloreak? Nola adierazi hori, aingeruzko zerbai-
tez ez bada?

“Arrosa bezain gorri eginik, begiak apal-apala”
erantzuten dio maiteak maiteari.

Lehenengo aldiz galdera hori entzun zuenean beza-
la-bezalaxe erantzuten du gure amon gaxteak, bere
hemezortzi-hemeretzi urtetan bezalaxe. Hori ez bada
gazte-zko zerbait, esan bezaidate zer den gatzetasuna
eta adin horren ezaugarria.

“Ahapaldi zoroa” zen bai, zinez, ostatuan entzun
zuen. Ez da egia amodioa ez dela zaharrendako.

“Amodioa zintzoa bada ez dira konda urteak” espli-
katu digu ederki 4. bertsoan. “Hogoi urtetan bezala” ez
ezik, hamazazpi urtetan bezala ere esan zezakeen gax-
te amonduak. Baina zinez baino gehiago esana utzi di-
gu bere “arrosa bezain gorri” kolorearekin.

Aurpegiko kolore eta guzti ihardetsi edo erantzun
dio, bai, maite duela maiteak. Artzainak hura maite
zuela bagenekien lehendik. Ongi ikasia geneukan, pla-
zarik plaza segi genionok.

Esana utzi zuen, aukera izan zuenean, ez zela “munduan bertzerik” haren “arropa berriz soinean har” zezakeen “emazterik”. Esana utzi zuen bezala, bere “egina” zuela “muina ta hezurra”, harengan “kusi” zuena ez zelako “gezurra”. Eta plazakoa da ere “beti ta hobe” zoala emaztea, “armairu-xokoan dan ardoa bezala”. Plazak erakutsia zigun hori guztia eta gehiago.

Baina hori guztia plazakoa zen, gauzak nahi eta behar bezala ez, bainan ahal den bezala egiten diren lekukoa.

Orain datorrenak ez du horrelako aitzakirik edo estakururik. Hau “emaztearen inguruan” etxeko goxoan dabilela esana da. Eta esana ez ezik. idatzia ere bada. Honek ez dauka zertan edukirik, nahi bezala eta behar bezala esana eta idatzia ez izateko motiborik. Eta zer da dioena? Hona:

Zu zira ene zorionaren iturri ta nagusia,
mundu hunetan jarraikitzeke dutan arrazoin guzia;
zure dohainen gozoz ez banu ene gogoa hazia,
lore gabeko udaberri bat laiteke ene bizia.

Hori aitormenaren guztizkoa! “Zu zira ene zorionaren iturri ta nagusia”. Etxea “zorionaren atea” zela esan zuenak berak dio “zu zira ene zorionaren iturri ta nagusia”. Zertaraino ez ote zen “etxeko goxotasuna” emaztea bera gure artzainarentzat?

Haundiak dira esanak eta guztizkoak arrazoinak. “Mundu honetan jarraikitzeke arrazoin guzia” hura du. Hartaz dauka bere “gogoa hazia (janaritua)”. Deus ez liteke bera hura gabe. “Lore gabeko udaberri bat” baka-rik. Hutsa.

Hemen ere harako *Esperantzarik gabeko amodioa* delako haretan bezala, esan zezakeen “zuretzat baizik ez dut begirik, zara ene iguzkia”. Hori ez da esaten; baina bai beste honako hau:

Maitasunezko iguzki batek gaduzka bere gerizan,
o mement baten epearentzat Jainko banindaike izan!

(O momentu baterako Jainko izango banintzi!)

Mana nezoke (aginduko nioke) eguzki horri nehoiz ez dadila etzan,
zorionezko bizitza hunek azkenik izan ez dezan.

Zer besterik desio dezake artzainaren bihotzak, “zorionezko bizitza hunek” beti irautea baizik? Haatik, “mement baten epearentzat Jainko” izango balitz, “nehoiz ez dadila etzan” aginduko lioke eguzki horri. Hori manamendua, hori! Eta zer jainkoa, jainko liteken hori!

Horra “etxeko goxotasuna”-ren ondorioak.

Ez dakit nik Xalbadorren etxea gauzez betea dagoen edo ez; baina haren bihotza emaztearen “dohain gozoz” betea dagoela bai, badakit.

Eta horrek iraun dezan nahi du, eta “maitasunezko iguzkia” ez dadila “etzan” sekulan.

Hurrena berritzen denean beharko du sekulakoa izan, hemen ez baita ezer sekulakorik. Ezta haien eguzkia ere.



Xalbadorren ama.

“Ama maitea”

INOR esaten aritu gabe, irakurle adiskide, badakizu zuk, eta badaki beste edozeinek ere, “orroitzapenez betea” omen den etxe horretan, orroitzapenak ez direla hasten senar-emazteen arteko harremanetatik. Bada aurreragokorik, halajaina! Ba ote da gero!

Gatozen, bada, aiton-amonen arteko maitasun-aitorpenak utzi, eta askoz lehenagokoetara.

Eta inoren bizitzan eta orroitzapenetan lehentasunik izatekotan, amak duela esatea, gehiegi esatea ote litzateke? Harako harena gogoratuko ahal dugu? Hona hemen:

Maitatua sobera nintzelarik haurra,
ez nakien nik zer zen amaren beharra.
Bortu batean orain naiz bakar-bakarra.
Amaz oroit'orduko heldu zaut nigarra.

Errukarri hari ere, bortuko bakardadean, ama datorchio gogora.

Eta beste edozeinen bizitzan bezala, eta areago akaso, Xalbadorrean ere aparteko lehentasuna badu amak.

Xalbadorrek, beraren ama kantatu du batetik; eta edozeinena izan daitekena kantatu du bestetik. Bata bere hitzetan kantatu du; bestea, berriz, *Haur batek bere amari* egiten dion kantuan.

Ene ama zenari du izena lehenengoak; eta *Haur batek bere amari* bigarrenak.

Lehenengoan, beraz, bere ama kantatzen du; eta bigarrenean ama, denarena dela bera.

Edo bietan ere bere ama kantatzen ote du? Inoren amarik kanta ote diteke gero, norberarena kantatu ga-be?

Guk Xalbadorren bi kantuak batera erabiliko ditugu, bi kantuak ere elkar osa baitezakete.

Gu batetik bestera ibiliko gara hemen; baina zuk, kantu bakoitzaren ederrez eta haundiaz jabetu nahi baduzu, banaka irakurri eta kantatu biak. Bakoitzak badu bere tankera, eta ez estiloz eta musikaz bakarrik. Mamiz ere bi dira. Ia-ia bi bihotzek eginak dirudite, edo oso aldarte ezberdinetan eginak behintzat. Banaka irakurriz jabetuko zara bakoitzaz ondoen.

Hasi gaitezen haurrarenak diruditen kontuetatik edo puntuetatik. Gero igaroko gara haundiarenak diruditenetara.

Eta zein da haurrarena dirudien kontu bat? Hauxe:

Ama, nola zure belaunetan nindadukazun denboran,
utz nezazu zure bularrean burua pausa dezadan:
ene bihotzak zer sendi duen nahi baiterautzut erran,
zure ezpain sakratuetarik ikasi nuen mintzairan.

Ene ama zenari izena duen kantuko lehenengo bertsoa duzu hori.

Zeinen goxo jartzen den, amari kantuan hasteko!
Zeinen goxo daukan, bai gorputza eta bai bihotza, gure artzainak! Imajina orain zuk, irakurle, ama-seme horien irriaren eztia.

Eta orain egin jauzi beste bertso honetara. *Haur batek bere amari* kantukoa duzu hau, zerorrek iger de-zaiokezunez. Hona:

Musu emanik utzia bezper'atsean,
ni atzartzean zu ez bazira etxean,
tristura latz bat senditzen dut bihotzean;
gau eta egun nahi zaitut sahetsean.

Goizean, ohetik jeikitzean, ama etxean ez. Hori tragedia haurrentzat! "Tristura latz bat" egiten zaio bihotzean. Horixe ttikitako oroitzapena! Baina bai polita adierazpena! Zer lotura amarekin! "Gau eta egun nahi zaitut sahetsean".

Gaur, mobilatik bederen, eman ahal izango litzateke, besterik ezean, haurrak falta duen amaren musua; eta amaren presentzia nolabait segurtatu ere bai. Baina orduan?

Xalbador haurra denean, negarra bakarrik gelditzen zaio haurrari, "ama non da?" behin eta berriz galdetzen duen bitartean. Hori bai ardi galdua bere etxean!

Zure eta nere kasuan ere horrelatsu zen, irakurle. Eta Urepeleko haur haren kasuan? Beha ezazu, beha, zer deklaratzeko duen *Ene ama zenari* kantuko 3. bertsoan:

Orroit naiz, inozent bat bertzerik ez nintzaneko bizitzan,
ama, zer artak eta pilpirak nitaz zinituen izan;
kartsuki miresten ninduzula zeruk'aingeruen gisan,
ez aingeru bat nintzelakoan, baizik zurea bainintzan.

"Orroit naiz". Ez da asmatua. Nahi-eta ere ez daiteke horrelakorik asma. Asmatu ere, ez da nahi den guztia asmatzen ahal.

Hori oroitzapena! Ama bere haurra miresten! Eta "zer artak (arretak) eta pilpirak (bihotz-ikarak)" haur horrentzat!

Zer sumatzen ote zion amari, "kartsuki miresten" zuela jabetzeko haurra? Zer onarpen modu ote zen ama harek semeari erakusten ziona, eta zer senditzen ote zuen muttikoak?

Jakin gabe geldituko gara. Ni behintzat bai. Maite nindutela erakusten baitzidaten, baina miresten nindutenik...

Hori ikusi eta gero, orain datorrenak ez gaitu batere harritzen. *Haur batek bere amari* kantuko 3. bertsoa da. Hala dio:

Gau eta egun hitz hok gogoan dabilizat:
O, Jainkoa zoin ona izan den enetzat!
Aitari ere esker beroak diozkat,
enetako zu hautaturikan amatzat.

Amak miresten zuela semea, baina hari ere badario halatsuko zerbait bere amarentzat. Semearena, mirespena baino areago, eraspena da, ama-maitetasuna. Hori da, hori, zera.

Hori bihotz-festa ama-semeen arteko hori! Udaberriaren esnatze bat dirudi, dena lore, dena kolore, dena kantu, dena bizi. Haatik esango du hurrengo bertsoan, ahoa betean, honako hau:

Ama, zu zira ene aberastasuna,
ene nahigabeen ezeztatzen dakizuna;
botere hori zuk bakarrik daukazuna,
nehorek ezin ordainduzko ontasuna.

“Nehorek ezin ordainduzko ontasuna”. Hori da haur batek bere amari kantatzen diona, eta horren bestaldea da gizon eginak *Ene ama zenari* kantuan aitortuko diona. Hona:

Ama, gero zerurako deia zitzauzunean etorri,
bizirik zirauten izaitetan bilatu nuen sokorri (babesa);
bainan gure Jainkoak ahalik ez dio eman nehori,
estaltzeko amaren galtzeak egiten duen huts hori.

“Nehorek ezin ordainduzko ontasuna” deklaratu dio *Haur batek bere amari* kantuaren 4. bertsoan, eta horren baieztapena dago beste honetan.

Hura betiko galdu duenean, jo du *sokorri* edo babes bila, “bizirik zirauten izaitetara”. Nolako minez eta grinenez ekin ote zion bilaketari? Alper-alperrik, ordea:

...gure Jainkoak ahalik ez dio eman nehori
estaltzeko amaren galtzeak egiten duen huts hori.

Huts hori bete? Zulo hori berdindu? Zerekin? Zeinek? “Gure Jainkoak ahalik ez dio eman nehori” horretarako.

Gizonezko batek behin esana datorkit orain burura. Lehen ere kontatu izan dudala uste dut. Hura bere arreba zaintzen zegoen klinikan. Eta ni andre hura bixitatzera joan nintzan.

Maria zuen izena andreak. Asko ezagutzen ninduen ni. Gizonak eta biek ezagutzen ninduten asko. Nere berri ondo zekiten, eta bazekiten amarekin bizitzen nintzela, eta baita ere bazekiten ondoezik eduki berria genuela.

Hargatik, andre horrek, hizketan hasi eta berehalaxe, “Eta ama?” galdegin zidan. “Poliki” erantzun nion nik.

Eta han zegoen anaia harek galdetzen dit:

–Ama bizi oraindik?

Baietz esan nion: bizi genuela, nahiz-eta edade haundia zeukan, eta gaitzen bat edo beste ere bai, urteenaz aparte.

Eta Mariaren anaia horrek:

–Hortaz, oraindik egunik fuerteena pasa egin behar.

Ez zait ahazten sekulan.

Gizon hura ez zen ezkondua. Ez-eta ezkontzekoa. Eta harentzat egunik fuerteena, edo astunena, edo gogorrena, edo seinalatuena, amaren heriotzeko eguna zen. Ama galdu zuen eguna.

Nik ere halatsu uste dut: ama galtzen dugun eguna dela zeraenetako –nola esan?– bat.

Hargatik eskatuko ere dio, *Haur batek bere amari* kantuan, “beira” dezala esker gabeen kutsutik. Hona osoan bertsoa:

Ene izarra zaren ama amultsua (bihoztia),
beira nitarik esker gabeen kutsua,
bizi guzian gaurkoa bezain kartsua
izan dadien gure arteko musua.

Zer mandokeria litzatekeen “esker gabeen” pareko izatea gu gure amarekin! Hori munstrokeria! Barkaezina.

Eta ba ote da, amarekin behar bezalako ez izanaren damurik ez duenik? Zeinek uste dezake, izan ere, bere amarekin zorrak kitatu zituenik? Zeini ez zaio berri-tzen behin eta berriz, zezakeen guztia amari ez egina-ren damua? Eta... norberaren erruz haren begiak mal-koz bustiak ikusi baditu? Orduan hona bertso hau:

Errexki konprenitu dut, ene burrasogoko bizian,
ama, zer pairarazi (sufriarazi) dautzudan ezagutza eska-sian.

Kezka hori ene lagun duket ene bizitza guzian,
hoinbertze damutzen zautan hutsik ez baitut kontzien-tzian.

“Hoinbertze damutzen zautan hutsik ez baitut kon-tzientzian”. Eta bueltarik ez gauza horrek.

Gero ahaleginduko da, bai, malko horiek xukatzen.
Beha:

Ama maitea, nondik zetorren zure maitasun garbia,
kreatzea zer den ikastean egin zitzautan argia.
Geroztik betikotz xukatzea izan da ene lehia (eginahala)
ene gatik ixuri nigarrek busti zuten aurpegia.

Hiltzeko hainako pena sortzeko modukoa da, nor-berak eragindako malkoak begietan dituela norbera-ren aurrean ama ikustea. Hitzei gainez egiten dien gauza da, eta utz dezagun horretan.

Horretan utzi ez. Ekar dezagun honera, nere lagun bati asko gustatzen zaion bertsoa. 10a duzu. Ez da amarekiko zorrak kitatzeko hainakoa; baina bada ai-torpen biribil eta gutzizko bat. Askotan egin beharko litzatekeena eta gutxiegitan egiten dena. Hona:

Munduko amarik hoberenak, Jesusena ez izanik,
ez du ekarri sekula hutsik egin ez duen gizonik;
ez ni ere, bainan ene hutsak ene gain hartzen ditut nik;
aldiz, ama, zuri bihurtzen dut, ni baitan bada deus onik.

Iruditzen zerbait bazarela? Iruditzen asko balio du-zula? Uste zure dohainen erabareko tratua merezi du-

zula, eta ofenditzen, hala ez bazaizu egiten? Uste ez dakit nik zer?

Eta... norena zara? Nondik datozkizu, zureak omen dituzun dohain horiek? Non duzu iturburua? Ez al zara jabetzen besterengandik zarela zarena?

Eta beste hori, hurbilenetik hasteko, zein duzu? Zeintzu dituzu? Hurbilenekoak, gurasoak; eta hurrunxeago baldin bazoaz, berriz, beste Hura.

“Zor bat naiz” da nik egin dezakeedan aitormenik funtsezkoena, eta hitzez eta egitez aldarrikatu beharko nukeena bizitza osoan.

Nola ez ote dugu ikasten gauza hau aurren-aurrena gure bizitzan? Basapizti huts batzuk besterik ez gera, hori ikasten ez baldin badugu. Eta bai berandu ikasten dela hori, ikastekotan ere! Bada behin mundura etorriko, eta hitzik ederren hau esan gabe joan denik: milesker.

Xalbadorrek bai, eman ditu eskerrak. Esan dio amari: “zuri bihurtzen dut, ni baitan bada deus onik”.

Baina “ama semego” hori ez da itzalik gabea izan. Ezagutu du neguko beltza. Eta on guztia zor dion ama horri egindako kantua, honela bukatzen du gure artzainak:

Ama, noizbait ibili banaiz zu naigabetzeko moduan, ene hobenez (pekatuez) penitentzia egin nahi dut munduan;

Jaunak zure gai kausi nezala heriotzeko orduan, itzal gabeko ama semegoz goza gaitezen zeruan.

Zer da “itzal gabeko ama semego” hori? Ama-semeen arteko harreman argi bat, ezti bat, erraz bat, buru-bihotzezko bat. Maitasunezko festa bat izango litzateke hori.

Eta buka dezagun *Haur batek bere amari kantuko azken bertsoarekin*. Besteengandik aparte bezala dago. Hitz batek bereizten ditu aurrekoa eta bera:

Bururatzeko:

Hotzak badago edo badago goseak,
gauaz dolamen (antsi) egiten badu haizeak,
nortan goxatzen ote ditu oinazeak,
bere amarik ez duen dohakabeak?
Hori bertsoa!

Esaldi edo frase bakarreko bertso hau gabe, ez zezakeen buka Xalbadorrek *Haur batek bere amari kantua*. Kantu honek "ama semegoz" erakusten duen xamurtasuna, eztitasuna, xarmangarritasuna erakutsi eta gero, nola ez gogora etorri ontasun horren eskasian diren haurrak?

Zenbat eta ederrago eta ederkiago ikusten ditugun gure haurrak, orduan eta ikaragarriago eta lazgarriago gertatzen zaigu, gurasoen babesik ez dutenen egoera. Eta ama falta dutenen egoera.

Nola ez egin jauzi haur hauetara Xalbadorren bihotzak, kantu miresgarri horren sortzailearen barrenak? Nola ez leher egin gizonak eta gurasoak, haur horien egoeraren aurrean?

Barkaidazu, irakurle, neronen zerbait hemen sarzea; baina hain datorkit eskura!

Nere iloba baten haur bati badizkiot bertso batzuk jarriak. Eta sinestu nahi al didazu, nik ere, bukaerako bertsoan, jauzi ber-bera egiten dudala? Ikus:

Jaioberria ikusi zaitut
zure amaren besotan;
horrela nahi luke agertu
mundura agertzekotan.
Ongi etorri! Mila zorion
zuretzat den mundu hontan.
Ai! Zu bezala ez diren haurrak
nola ez izan gogotan?


Ama, haurra. Horiek hitzak! Zer bi errealitateren bi izen! Onean on, baina txarrean...

Bi horien artekoa, ondo doanean, zer edertasuna!
Oker doanean, zer okerra!

Eman eta hartu, bil bitez bular berean, "itzal gabe-ko ama semegoz" goza daitezen biak, eta ama-seme ederrez goza dadin mundua.



Xalbador, Joxe Mari Aranalde eta Mixel Xalbador, belarretan.



Urepele.

Hori etxea!

“**H**ORI mendia!” eginez bukatu genuen Xalbado-
rren mendialdia. Zinez mendi gixena eta abe-
ratsa kantatu zigula esaten genuen han.

Etxearena bukatzean ere, gauza beretsua edo ber-
tsua esan beharko genuke. Pertsona batentzat garran-
tzitsuenetakoak izan daitezkeen ama eta emaztea,
ikus nola kantatu dituen gizonak, bai pena eta bai
poz. Hori larrea gure artzainaren etxekoa!

Haatik-edo, etxe honek ez du galdu behar. Gu har-
taz gabetzea, eta beste norbaitzuek hartaz jabetzea,
pekatu haundi bat litzateke. Entzun, lehen erabili du-
gun *Sortetxeari* kantua 5. bertsoa:

Etzetik hoinbertze gazte,
kanporat zorion eske
zoraturik bazoazte,
bizimoduak behartuz edo
etxea ez aski maite?
Gure faltaz balezate
arrotzek etxe hau bete,
hobendun haundi gintaizke.

“Hobendun haundi”, pekatari haundi, ginake.

Izan ere, hori ez al litzateke, nolabait, gure aurreko-
ak ukatzea? Entzun gure artzainak dioena, kantu be-
reko 4. bertsoan:

Arbason eskutik jina,
o egoitza atsegina,
ez dakit zure adina.

Heiek lurpean estali ziren
zutan utzirik arima.
Hain amultsuki egina,
heientzat zer bihotz mina,
zutaz gabetzen bagina.

Hemen dago haien arima, haien arnasa. Haien eginak eta ahaleginak hemen daude. Ni inguratzen nauen horma arte honek berak inguratu zituen haiek, eta gune hauxe bera izan zen haien izan-toki eta bizitoki, eta haien pozen eta minen eta ametsen toki ere. Nolaz ez du, bada, esango artzainak: "heientzat zer bihotz mina zutaz gabetzen bagina".

Alde ederra, hemendik goazenean, beste berri hau emateko moduan izaten bagara: "Etxea han dago xutik!". Hona bertsoa osoan:

Ene haur onak, badakit
luzaro gabe engoitik (hemendik aurrera)
joanen naizela mundutik.
Arbason ganik ukan (hartutako) dohaina
ez utz sekula eskutik,
aldegitean hemendik
heier erraitea gatik:
"Etxea han dago xutik!".

Zer elkartasuna artzaiarena, gu izatea eta honelatsu edo horrelatsu izatea egin dutenenganako!"

Sendimendu on-on bat dirudit, haiengandik onik eta onez hartu dugun guztiarentzako ixtimazioa eta arreta. Horregatik hurbildu nahi du haiengana gure artzainak berri on batekin: "Etxea han dago xutik!".

“Hotz ikara ilun bat...”

Semeari du izena, gaineko hitz horiek dakartzan kantuak; 199, orrialdean daukazu, *Odolaren mintzoa* liburuan. Hamalau bertso ditu. Gehiago ere izan zitzakeen, noski; baina ez dut uste bat bakarrik ere falta zaionik. Guttiago ere izan zitzakeen; baina ez dut uste bat bakarrik sobran daukanik. Hasi eta buka, guztizkoa duzu kantua.

Baina zer ari nitzazu ni, irakurle argi, bertso sail edo andana honen berri ematen? Zerorrek ikasiko duzu eta ikusiko nolakoa den kantua, inor aldamenetik esaten aritu gabe.

Horra, hor gaineko hitzak dakartzan bertsoa:

Mixel, ezarri bainauk dudazko trantzean,
kantatzerat noakik, pena bihotzean;
esperantzaz beteak ginenak artean,
hire azken aldiko berriak hartzean,
hotz ikara ilun bat sartu duk etxean.

Hori egoera! “Hotz ikaraz” etxea? Zer du? “Dudazko trantze” bat. Esperantza hil zorian. Segi entzuten:

Urtatsetako (Urteberritako) karta ginian lekuko:
etxerako hintzala heldu den neguko;
berri hau izan zian gu denen gostuko,
geroztik asmo horri egin diok uko,
ez ahal haut, gaixoa, betikotz galduko!

Horra “hotz ikara ilun bat”. Horra beldurra: “betiko galduko” duen semea. Eta ez edozein seme! Entzun, entzun 7. bertsoa:

Lau haurridetarikan (senidetatikan) hi haiz hautatua,
etxeke nagusitzan hik daukak eskua;
denek utzia ditek hioretzat lekua;
kontsidera dezakan. jina (etorria) duk ordua,
hemengo lemazaintzat hiauren (herorren) burua.

Oinordekoa Mixel da. Eta hura Ameriketean. Sos batzuk egitera joana omen da, eta oraindik, nonbait, ez du uste, edo nahi, edo behar haina bildu, eta han segitzea pentsatu du.

Eta etxean “hotz ikara ilun bat”. Larria. Beldurra. Entzun 8. bertsoa:

Laster ezkontzeko zaik haurride gaztena,
bertze bien ondotik deramagutena;
amari errex jauzten zaiok hasperena,
gure etxean sendi duk uda azkena,
hi haiz uda berria ekar hezokena.

Entzun izandu dut gure Mixel jaunak negar egin omen zuela bertso hauek an Ameriketean irakurri zituenean. Ez diot sekulan berari galdegin. Zenbait gauza ez dira galdetzekoak.

Baina asmatuko nukeela esango nuke, bertso guztiak irakurtzean ez dakit, baina hau irakurtzean negar non egin zuen esango banu. “Amari errex jauzten zaiok hasperena” delako hori entzun-eta, zeinek ez du negar egiten?

Hitz bakan horietan asko esaten zaio bihotzari; baina esaten dena baino askoz gehiago da berorien azpian edo bestaldean irakurtzen dena.

Ez al derizkiozu zuk, irakurle, hitz horiek irakurri-eta, Mixelek honako galdera hau egin ziezaiokeela bere buruari: “Ama hasperenka badago, aita nola ote dago?”. Eta Mixelen bihotzak negar egingo zuen, eta begiek malko.

Ameriketean semeak negar. Amak etxean hasperen. Etxea ilun. Eta gero eta ilunago, galeran dago-eta. 6. bertsoak esango digu zergatik:

Hi orroit araztea dukek alferretan
etxea daukagula hire beharretan;
aunitz (asko) egin behar duk Amerika hortan
hunek galtzen duena indarraren faltan
ordaindu behar baduk dolar paperretan.

“Indarraren faltan” ari da galtzen etxea. Gazteek
uzten ari dute etxea, bakoitzak bere bidea hartzeko.
“Lemazaina”, berriz, han urrutietan. Gurasoak gero
eta ahulago. Eta etxea galtzen.

Eta betiko galtzeko arriskuan! 9. bertsoak esango
digu ederki:

Ekar dezokek bainan ez utzi gerora,
diruaren dirdiran ez hadila zora;
orai haizela gazte ekar zak gogora;
landu gabe utzirik sobera denbora,
baratzerik onena ez bailaike lora.

Zer erantzunkizuna seme horrena! Bere gain hartu
beharra dauka etxea, lehenbaitlehen hartu ere. “Gero-
ra” beranduegi izan daiteke. Gauza guztiek beren ga-
raia badute.

Eta entzun ezazu orain, irakurle, ondorengo ber-
tsoa. Kantuko 10. duzu. Hona hemen:

Bainan ez nitek nahi, o seme maitea,
desafia dezakan kontraka haizea:
sort-etxearen karga bortxarat (behartuta) hartzea;
hobe baituk hi baino etxea galtzea,
nahiz tristea izan gure zahartzea.

Hori pentsamenduen eta sendimenduen haundita-
suna!

Kantu osoaren bihotza bertso hori da. Guraso
egiazko baten sakrifiziorako gaitasuna ere hor ageri
da; eta baita ere hor ageri da zeinen neurrigabea den
guraso--maitasuna seme-alabentzat.

Hori guraso-bihotza Xalbadorrena! Hori giza-neu-
rria! Hori errespetoa semeari!

Hobe baituk hi baino etxea galtzea,
nahiz tristea izan gure zahartzea.

Ikaragarriak esaten dira. Ez dago ezer ederragorik
esaterik. Eta ederkiago ere, nekez.

“Tristeia” ote liteke gero haien “zahartzea”. Beha,
beha:

Tristeia litaikela ez diat dudatzen,
etxe-amodioa ez baita mugatzen;
ikustea kafi hau sasus (sasiz) inguratzen,
eta gure bazterrak bertzen eskuratzen,
gogoraterat ere ez nauk menturatzen (atrebitzen).

“Gogoraterat ere ez nauk menturatzen”. Pentsatze
hutsak ikaraturik dauka gizona. Burua galtzeko ere!

Etxea galtzen ikusi baino nahiago... zer? Ikus:

Entzutean etxeko agoni-ezkila,
bihotzaren bakea non aurki? Non bila?
Ganbarak (koartoak) hutsak eta sukalde ixila,
biziaren arbola betikotzat hila,
hori ikusi gabe lurperat nadila!

Etxea hiltzen ikustea, bere burua hiltzen ikustea
bezala baita, nahiago du bera hil. Zer bizitza litzateke,
izan ere, etxea hil ondoren, hura bere “zorianaren
ate”-tzat daukan jaunarentzat? “Ganbarak hutsak eta
sukalde isila, biziaren arbola betikotzat hila”. Beraz,
“hori ikusi gabe lurperat nadila”.

Baina badu esperantza ez dela ondamendi hori ger-
tatuko. Bertso horiek an Ameriketean irakurri behar
dituenarengan badu fedea. Hona:

Bainan, seme, nik hitan badiat fedea,
kartsuki hartzen baituk hik eginbidea;
amodioz entzunik aitaren galdea (eskaera),
behingotzat hor utziz Amerik'aldea,
bilatuko dukala etxeko bidea.

Aitak badaki nolako zintzotasunez –“kartsuki”– har-
tzen dituen bere obligazioneak –“eginbidea”– seme ho-

rrek, eta badaki "aitaren galdea" ez dela alperrik izango, eta "bilatuko" duela "etxeko bidea", eta aitak hain maite duen "sortetxeak" izango duela zeinek "xutik" eutsia.

Eta sekulakoa, berriz, azken bertso hau duzu, irakurle. Entzun:

Semea, urrundurik sosaren peskisan,
agertzen duk zer aita erromesa (miserablea) nizan;
zintzoki jarraik hadi hi hire bizitzan.
ni baino aita hobe izaiteko gisan,
gire semeak ez dezan joaiterik izan.

Hori apaltasuna aitarena! Ez dizu errukirik ematen, irakurle? Bere burua egiten du errudun. "Ni baino aita hobe izaiteko gisan" ibiltzeko esaten dio bere semeari, "hire semeak ez dezan joaiterik (joan beharrik) izan". Beraz, Xalbador hobeia izan balitz, Mixelek ez zuen joan beharrik izango Ameriketara "sosaren peskisan"?

Mattin nigarrez ikusi dut hartan, ez da horren klaro mintzo. Hona:

Mattin, ni ere nauzu naigabea lagun,
nola biek semeak urrun ditugun;
Jainkoak berak daki nor garen hobendun,
ala guharen faltaz urrundu zauzkigun;
hola gau ta egun
egon gabe ilun
aztertu dezagun
joan aintzin (joan baino lehen) hoin urrun
hartze (merezki) zuten laguntzik eman diegun.
("O. M.", 167).

Hor ez du erabakitzen. Ezetzik ez du esaten; baina baietzik ere ez. Minak egin ote zion hoinbeste makurtze hori semearen aurrean? Kantatu du min hori bertso eder batean Xalbadorrek. Hemen doakizu:

Aranalde apeza gai-emaile fina,
hark dautzu jauz arazi nigar-zotina:
semez kantatzea zautzun galdegina (eskatua),
nola Paris alderat dautzun aldegina;

ez bada burdina,
atzotik aintzina (aurrera),
daukake jakina
zonbat den samina
seme urrunduairen aitaren mina.
(“O. M.”, 167).

Haundia, beraz, “seme urrunduairen aitaren mina”.
Batez ere, aita hori Mattin deitzen bada, edo Xalbador.

“Etxe-amodioa ez baita mugatzen” esan digu lehen.
Gauza bera, eta areago, esan zeakeen seme-amodioa
ez baita mugatzen ere.

Honetan bukatzen ditugu orain, “etxe maitea”-ren
eta etxekoen gozoz eta gaziz Xalbadorrek egindako
kantuak.

Euskal Herria

**Lehen sartu zitzauzun
ezpata zorrotza,
zure etxe nagusi
jartzean arrotza;
halere etzitzauzun
gelditu bihotza;
etxekoen eskutik
duzu heriotza.**



Donibane Garaziko ate bat.

Kontseilutxo bat

INORK esan gabe badakizu zuk, irakurle, zenbat kantatu duen Xalbadorrek Euskal Herriaz. Hemen ere ikusiko dugu zenbat kantu eginerazten dizkion artzainari herriak. Eta nolako kantuak!

Baina ba al zenekien zuk nolako antzerkia egineraztion eta idatziaz herri-maitasunak? Ez?

Hona orain nere kontseilua: irakurri ezazu *Euskal-Herriatik urrun* kantua, hemendik atzera datorrena baino lehen. Oso gutxi aitatzen dena da. Eta *Odolaren mintzoa* liburuan dagoen apartenetakoa izango da bera. 291. orrialdetik aurrera dauzkazu kontuak eta kantua.

Aurrena kontuak, eta gero kantua. Zer diren kontuak direlako horiek? Ederki esplikatutak dauzkazu, bertsoen aurretik dauden hiru orrialde horietan. Iparraldekoa baldin bazaitut, irakurle, ez duzu nire laburpen honen beharrik. Aski duzu irakurtzea Xalbadoren liburuan dagoena. Hegoaldekoentzat egingodut laburpen bat hitz bitan.

Eskutitz bat jasotzen du urepeldarrak, “mila bederatzia ehun eta hirur hogoi ta hamaseigarren urteko otsailean”. Ezezagun batena da eskutitza: “ezagutzen ez dutan ahezta baten eskutitza”.

Xalbador hil zen urtekoa da, beraz, karta hori. Eta, jakina, bertsoak bere azken urtean egin zituen.

Elkar ezagutzen ez-eta, zertara ote zetorren eskutitza? “Harentzat pertsu batzuen egitea eskatzen zautan” dio artzainak.

Bertsolari bati bertsoak eskatze hori ez da harrigarri. Hamaikak eginerazi dizkio bertsoak norbaiti, halako edo holako kaso salatuz eta bat eta beste. Xalbador ere ez da harritzen horrekin. Hala dio: "Lehen ere etorri izan zaut nor edo nor pertsu eske. Bistan da egundaino ez dutala holakorik onartu". Tente gure artzaina! "Egundaino" ez du onartu.

Orain artean ez, baina oraingoan onartu egiten du gure bertsolariak, ezezagun batengandik datorkion eskea. Izan ere, "aheztar honen eskutitza hain zen unki-garria"! Zuk ere, irakurri nahiko bazenu, hor daukazu eskutitz unki-garri hori 292-293 orrialdeetan.

Zer dio, bada, artzainaren bihotza hortaraino ikuitzen duen karta horrek? Zergatik unkitzen du Xalbador? Zera da kaso: aheztar bat, "Mattinen kusin (lehengusu) ttipia", Frantzia behereko Pithiviers herrian bizi da. Berak kontatuko digu zergatik. Hala dio:

"1953'an etorri nintzan Pithiviers'era betarraba (erremolatxa) sasoinaren egitera; 54'an berriz; 55'an ere ba, eta 56'an hemen ezkondu, herri huntako neska batekin, eta geroztik hemen naiz, erraiteko maneran, euskaldun bakarra".

"Euskaldun bakarra" eta bakar, beraz, gure ahezterra Pithiviers herrian. Udazkenetan zerbait goxatzen da, "betarraba" biltzera datozen euskaldunekin. "Zure semea ere ezagutu izan dut" esaten dio bertsolariari. Udazkenetan euskaldun zenbaiten konpainia badu; baina "bederatzi hilabetez", "bakar-bakarra" gelditzen da berriz. Horra gure txori galdua. Herriminaren min ez bizi da bere Ahetzetik kanpo.

"Bainan azkenean gure Jainkoa urrikaldu zaut, eta igorri (bialdu) nau lagun bat paregabea". Horra gure gizona zorionetan. Orain badu lagun euskaldun bat Frantzia arrotzean.

Badu laguna Pithiviers'en, eta ez nunahikoa. "Erraiteko maneran auzokoa" du, senperra baita Auguste Borthayre; eta Ahetze eta Senpere auzo-herriak dira.

Ez da haserre oraintxe gure Edouard Olaechea aheztarra! Auguste ere, “jendarma kapitaina”, kontentu da. Horra aheztarraren hitzak:

“Bederen astean bi aldiz elgar ikusten dugu. Hura ere, ni bezala, kontent euskaldun bat etxetik urrun aurkitzea.

Bainan, horra! Gauza guziek badute fin bat. Ez nau oraino deus erraiten; bakarrik halako beldur gaixto bat abiatu dut; badut uste luze gabe joanen ote zautan, eta norat? Jainkoak bakarrik daki”.

Orain erraz da asmatzen zertarako eskatzen dizkion gure aheztarrak bertsoak urepeldarrari. “Auguste partitzen delarik (diholean) hari kantuz ene bihotzeko pentsamenduak erraiteko”. Horretarako eskatzen dizkio Edouard atzerriratuak bertsoak artzainari.

Baita zein airetan edo doinutan eta zein musikarekin egin ere jakinerazten dio: “Ahal baduzu, plazer nuke *Mutil koxkor bat*-en airean, posible bazinu”. Eskatzea ez omen da asko kostatzen, eta aheztar honek, behin hasiz gero, dena eskatzen du. Zer demontre gero!

Horra, beraz, gure artzaina antzerkigintzan eta antzerkiginen, “ahal bezanbat haren lekuan” bere “burua emanik”. Bera ez da behin ere erbesteratua bizi izan. Asmatu dauka egin beharra. Antzerkia dauka egin beharra. Bai ederki egin ere.

Beha zeinen ederki hasten den urepeldarra, bere sorterri berriaren izena emanez:

Ahetze deitzen zaitugun herri ttipia bainan garbia,
zure baserri pollit batean ikusi nuen argia;
beroa bainan hertsiegia iduriturik kabia,
zorigaitzean senditu nuen handik airatu nahia,
den egunean han banindago ez bainindaike abia.

Kantu osoa, bere kabitik “airatu nahia” senditu eta handik airatu den txoriaren konparazionearekin egingen du. Zeinen ederki!

Datorkion laguna ere, “luma bereko” beste txori bat da. Eta biak ere, “desertu soileko arbol bakan batean

erori” diren bi txori dira. Eta laguna, hiru urte elkarrekin egin eta gero handik badoanean, hona zer dirudion gure ahezterrari: “Iduritzen zaut bigarren aldiz uzten dudala herria”. Hori moxtadea gure herriminduarena!

Eta horrela doa kantua dena.

Zeinen ederki erakusten duen gure artzainaren herriazetasuna. Nola hartzen duelako gero urepeldarrak ahezta txori galduaren lekua! Kostako zitzaion amestea ere gure Edouard jaunari, hain kantu ederra jasoko zuenik.

Zerbait ona esperoko zuela, artzainari egiten dion aitorten biribila egin eta gero, ez da dudarik. “Zuk bakarrik duzun dohain izigarriarekin” botatzen dio ahezta bere eskutitzean. Haundiak zitzakeen, beraz, esperantzak gure gizonak. Hala ere, jaso zuena jasotzeko hainakorik, nekez.

Bertsoak jaso eta gero, elkar ikusi ote zuten? Izan ote zuen ahezta kantu hori eskertzeko denborarik? Izan baldin bazuen betarik, ez da dudarik begietan malkoekin emango zizkiola eskerrak. Bai kantatu ere, hala egingo zituzten, bere lagun Augustek eta biek.

Baina baliteke, bertsoak jaso eta gero, Xalbadorrekin hitzegiteko aukerarik ez izatea.

Urepeldarrak dioenez, 1976ko otsailean jaso zuen karta, artzaina hil zen urte berean.

Data kontu horretan bada, nolana ere, gauza harriarri xamar bat. Hona zer egunetan datatua dagoen Edouard aheztarren eskutitza: “Pithiviers, Urriaren 25’ean”. Eta Xalbadorrek Otsailean jasotzen du. Denbora asko xamar karta batentzat European.

Dena dela datarena, zuk ez ahaztu nere kontseilutxo: ondorean artzainari Euskal Herriaz entzun behar dizkiogunak irakurri aurretik, kantu hau irakurtzeko, hor ageri baita beste guztiaren espiritua.

“Ez nuen nahi ene burua frantsesez mintzo aditu”

BERTSOLARIA utzi eta goazemazu, irakurle, haren haurzarora, haur-haurretatik hasten baita gure pertsonaia bere herria nozitzen.

Zeinek ez du izan bere bizitzan, bere lehenengo at-era bezalatsu, eskolarakoa? Eta haren paretsu, elizarakoa? Ahaideen etxera-edo ez dela, bi ertera horiek izan dira gure bizitzetan ohikoenak.

Eta bietan ere, hamaika jende bada, oroitzapen on askorik ez duenik. Xalbadorren kasuan, zorionez, elizarakoa oso oroitzapen ona da. Eskerrak! Bestela ez dakit izango genuen, izan genuen gizonik.

Eskolakoa du oso txarra, beste askok bezalaxe.

Hor gaineko hitz horiek egiten duten baino egokiago ez dago arazoa adierazterik. Denek ez dute zehaztasun berdinez sumatua izango, eta are gutxiago izango dute Xalbadorrek bezain klarki adierazia; baina nozitu, denek berdin.

Nik ez dakit guztiz horrela den orain dakardana, edo zerbait puztua dagoen; bainan puztuxea balego ere, ez legoke egitik hain urrun.

Hona zer dion Xalbadorrek: “Nik eskolan abiatu artean, ez nuen behin ere frantses hitz bat entzun”. Kontu hauek denak *Odolaren mintzoa* liburuak lehenengo kapituluan dakartza, *Haur euskalzalea* izena duen kapoituluan.

Gehiegitxo bada ez bada, irakurle, entzun duguna, hor sartzen zuten haurra, berea ez zuen giro batean.

Haur haren munduak eta eskolak ez zuten ikustekorik batere elkarrekin.

Arrotz zitzaion irakaslea ikasleari. “Eskola haundian errient (maixu) erdalduna ginuen, euskararen kontrakoa, bertze aunitzen gisan”. Zer harreman sortu behar da, elkarren hizkuntza ezagutzen ez duten jaun baten eta haur baten artean?

Bihoztuna izan ezkeroko pertsona haundia, zerbait egin daiteke; baina ez da erraza izango bihotzaren esanera ibiltzen, haurraren hizkuntzaren kontrakoa baldin bada maixua. Horiek gauzak ikusi ditugu! Eta oraindik ikusten ditugunak!

Arrotzak dira ere elkarrentzat, haurraren burutxoan egina dagoen mundua eta eskolak sarrerazi nahi diona. Han falta dira, haurrari txiki-txikitatik sartu zaizkion irudi liluragarri guztiak, eta bihotz freskoa ostu diotenak. Dena ezezaguna eta arrotza zaio.

Eta zer datorke orduan? Esango digu Xalbadorre-neko haur argiak. Hona: “Frantsesez mintzo zelakotz eta euskara hastio, nuen nik ere ene aldian errienta hastiatu (gorrotatu)”.

Horra ondorioa. Elkarri argi egiteko ordez, beren hizkuntzez-eta elkar aberasteko ordez, elkarren gorroto bilakatu dira Xalbadorren euskera eta errientaren erdara. Hau mundua!

Eta nola bizi inpernu horretan? Zer egin? Hortik alde egitea dela hoberena pentsatu bide du gure haur ausartak. Eta bai egin ere! “Hameka urte inguruan utzi nituen alde bat eskolako aulkiak”. Hori erabakia, hori, haurarena!

Ezin du gehiago. Gerrotoa hartu dio maixuari eta haren hizkuntzari, eta ezin da han bizi. Ezin da kabitutu.

Ikus zertaraino dagoen gogaitua. Entzun: “Ez nuen nahi ene burua frantsesez mintzo aditu”. Zer gauza! Ezin eramn du bere burua frantsesez hitzegiten entzutea. Hori egoera!

Eta pentsatzen omen zuena! “Zenbat aldiz pentsatzen ote nuen; denak euskaldunak izan bagina edo euskaldunik baizik ez balitz munduan”. Noraino eramaten gaituzten egoera triste horiek!

Eta haurretako pentsamendu hoengatik, hona zer gogoeta egiten duen Xalbador pertsona haundiak:

“Ikusten duzu, irakurle, arrazista ttipi bat nintzala, gero sendimenzuz aldatu banintzan ere, beheraxago ezarriko ditudan bi pertsuek erakusten duten bezala”.

Hemen dituzu Xalbadorrek agindutako bertsoak:

Hizkuntza baten menturan dena murriztuz gelditzen da egun,

hargatik beste zenbaitño ere ahalaz ikas ditzagun;
bat edo bida ez laizke gaizki etor gurearen lagun,
bainan lehenik eta non nahi izan gaiten gu euskaldun.

Nihaurek ere nik konprenitzen ditut bi mintzaira arrotz,
mintzatu ere egiten ditut behartua naizen oroz;
horiek hola ni euskarari nago bihotzez ta gogoz,
ez ederrarengatik bakarrik, baina gurea delakotz.

Bertso horiekin bukatzen da delako *Haur euskalza-lea* kapitulu hori. Nererik ezer irakurriko ez baduzu ere, irakurle adiskide, irakur ezazu kapitulu hori hitz bakoizka. Balio du.

Ikusi duzu noiztik hasten zaion Xalbadorri arazo izaten bere Herria. Haatik ateratzen zaizkio gero ondorengo bertso hau bezalako auhenak edo antsiak:

Zortearen indarrez munduan ni ere
sortu nintzan euskaldun agerien jabe.
Frantsez edo espagnol soretu banintz hobe,
gaur ez nuen izanen hoinbertze naigabe.
(“O. M”., 223, *Nigarra begian*).

“Zortearen indarrez” edo patuaren derriorez, baina euskaldun sortu ginenok badugu, bai, Xalbadorrek esango lukeen bezala, arrangurarik. Ttiki izatearen gaitz guztiak geurekin ditugu guk.

“Frantses edo español” ez sortu izanaren damua erakutsi digu artzainak. Zinezkoa ote damua?

Damua ez dakit zinezkoa izango zen ala ez; baina “hoinbertze naigabe” nozitu behar hori, bai, hori egizkoa eta zinezkoa da.

Kontatuko dizkigu bereak ondorengo orrialdeetan “haur euskalzale” izan zen harek.

“Betitikako arrain haundien lege okaztagarriak”

Naparroari du izena kantuak. *Odolaren mintzoa* liburuan hor daukazu. Gaineko hitz horiek handik hartuak dira, zazpigarren bertsoetik. Entzun dezagun bertso osoa. *Donostiako hiru damatxo* ezagunaren doinua du musika. Hona:

Betikako arrain haundien lege okaztagarriak (nazkagarriak) gaitu napartar anai arrebak bi taldetan ezarriak: baina ele huts dira tratuak, itxura huts zedarriak (mugarriak), hitzez ta harriz ezin hautsiak dira gure lokarriak.

Horra txikiaren patua: haundiagoaren esku beti. Harek jartzen du legea. “Okaztagarria”, baina “betitikako” legea.

Haundiak, edo haundiek erabaki dute Naparroa txikiak nola behar duen izan. Lege horrek ditu “napartar anai arrebak bi taldetan ezarriak”. Itxura gabe ezarriak, jakina! Ikus 3. bertsoa:

Ene sortzeko agerietan ni naiz baxenabartarra, titulu horrek lehen hitzean galtzen du bere indarra; ni beheretar zendako deitu, nerez banaiz orotarra? Goi ta beherik ez da enetzat, Naparro bat da bakarra.

“Baxenabartarra”. “Titulu horrek lehen hitzean galtzen du bere indarra”. Jakina galtzen duela!

Zer dira goi eta behe kontu horiek? Ez al da aski *naparra* esatea, goi eta beherik gabe? “Naparro bat da bakarra”. Ondo hala ere, “titulu horrek lehen hitzean galtzen du(ela) bere indarra”.

Eta Naparroa berez den bezala, edo zen bezala, eza-gutzen eta senditzen duenarentzat, gezurrezko titulu hori mingarri gertatzen da. Entzun gure artzainaren 4. bertsoa:

Bere zainetan sendi duena hastapeneko (hasierako) odola, eman dioten izen mendreaz (eskasaz) nekez ditaike kontsola; ezin onartuz bizi naiz beti murrizturikan dagola, bere itzala Baiona'raino hedatzen (zabaltzen) zuen arbola.

Urepeldarra hori "ezin onartuz bizi" da. Bi erdi egi-na eta murriztua dago Naparroa, "bere itzala Baiona'raino hedatzen zuen arbola".

Etendura hori eraman-ezina zaio. Ez da bidezkoa. Zergatik behar du egon bi erdi egi-na, bat eta "bakarra" izatea dagokion Naparroa?

Zergatik behar duen egon ez dakigu; baina zergatik dagoen esango digu gure artzainak:

Bainan enetzat, o Naparroa, ez da ezin igerria izena nola gorde duzun zuk eta guk hartu berria: enbor sendoan sartu baitzuten aizkora beldurgarria, zure laurki bat besterik ez da ni bizi naizen herria.

Horra zertatik sortu den goi eta behe kontu hori guztia. "Aizkora beldurgarria sartu" zuten "enbor sendoan", eta harek puskatu zuen "bakarra" den Naparroa.

Puskatu zuten; eta pusketako bat da Xalbador bizi den herria. Enbor haren laurki bat, printzaki bat. Horregatik hartu behar izan du izen berria. Pusketaren ondorio da *baxenabarra* deitze kontu hori.

Aizkora beldurgarria enbor sendoan, eta, jakina, bi erdi egi-na da orain Naparroa. Eta... erdi bakoitzak nagusi bana! Entzun 6. bertsoa:

Bi aldetarik nagusi bana jarriz geroz Naparroan, ez dakit gure etorkizuna zoin ateri buruz doan: ez eta ere gaur zer hainetan zauden zu euskaldungoan, bat gineneko egun ederrak ditut bakarrik gogoan.

“...nagusia bana...”. Puskatu zen, eta puskatu zuten, eta orain puska bakoitzak nagusi bana. Horiek gauzak!

Euskaldunak poeman esplikatuko du Orixek zer nagusi klase diren horiek. *Denok bat* kantuan ari da. “Zazpi aizparen gai den oiala”-rena kantatu dute. Ondoren Beltxa bertsolaria hasten da kantari. Hala dio:

Oialarena ongi iduri zait
-dio Beltxa'k saietseti-;
baiña sei zati diran tokian
zazpiren kontua nondi?
Bizkaia, Araba, Gipuzkoa ta
Zuberoa ta Lapurdi,
Naparroa bat ezagutzen dut
gezur-mugaz an-emendi.

Eta hurrengoan honela dio, berriz:

Zazpi baiño len, esana aldatuz,
esagun badirela aski:
Naparroa bat -eize gaisoa
bi zakur gosereren jaki-.
Oso ta bakar Euskalerrria
dela edozeinek daki;
mugaz angoa Espaiñi ez da,
emengo au ere ez Prantzi.

“Naparroa bat ezagutzen dut gezur-mugaz an-emendi” kantatu du Beltxa bertsolariak. “Naparro bat da bakarra” kantatu du Xalbador bertsolariak. Ai, poeten hitza entzungo balu munduak!

Eta gero “mugaz angoa Espaiñi ez da, emengo au ere ez Prantzi” gaineratu Beltxak.

Egia. Bidegabekeria hor dago. Hor dago zauria. Hor dago enbor laurkitua. Hor dago pitzadura.

Eta negarra dario Euskal Herriak ebakitik. Esan du ederki asko Urepeleko bertsolariak bertso gogoangarri batean. Imanol Aldaregia adiskideak jaso da Ataunen artzainaren ahotik.

Honela eskatu omen zitzaion Xalbadorri: “Zuk bota bertso bat Euskalerrinari. Zu beste aldean bizi zera, eta gu emen. Gu denok erri bat egiten dugu, baiña muga bat dago tartean”. Eta bertsolariak:

Zutik jarrita otoizka nago,
ene lagunak, zerura,
haundien mende dagon ttipiak
beti badu arrangura:
eskatzen dautzut izan zazula
herri ttipien ardura,
eta txukatu mendien negar
den Bidasoa'ko ura.

(Xalbador: *Herria gogoan, Auspoa* 152).

Hor dago etena. Hor dago banaketa. Hor dago euskaldunaren bihotzak ezin eraman duen zama.

“Bainan ele (hitz) huts dira tratuak, itxura huts zedarriak”. Hori sinesten dugu zenbaitek. Hori uste du artzainak. Hori senditu beharko luke euskaldun guztiak. Baina... baina entzun *Naparroari* saileko azkena:

O, Naparroa, banatorkizu otoizka fagore galdez (eske):
urrikal zaite ukatu nahi zaituzten seme alabez;
beste koroka (loka) batek estaltzen bagaitu ere hegalez,
Baxenabarrak Ama zu zaitu, guk nahi izan ala ez.

“Urrikal zaite ukatu nahi zaituzten seme alabez”. Urrikal! Urrikal! Bestela... gu urrikal! “Guk nahi izan ala ez”. Zer garen jabetzen ez bagara euskaldunok, gu urrikal.

1970 inguru horretan, Iparralden ginen egun batez, hango diren batzuekin egin genuen hitzaspertu bat. Politika kontuak han ziren tarteka. Garaiak ere hala-koxeak ziren haiek.

Hango bati ezin sartu izan genion buruan, haiek prantzes eta gu espainol baino lehenago, haiek eta gu euskaldun ginela.

Urdaileko minez itzuli nintzen egun haretan etxera. Guk txiki izatearen mina geurekin beharko dugu.

“Hemen dago ama bat bere hurrek hila”

HITZ horiekin bukatzen da, Lazkauko Lazkau-Txikik esaten omen zuenez, egundaino egin den bertsozik ederrenetako bat: “hemen dago ama bat bere hurrek hila”.

Bertso hori sail baten azkenekoa da. *Ama Euskal Herria* du kantuak izena. Eta hor “bere hurrek hila” deklaratu den ama hori, Euskal Herria da. Bederatzi bertso dira guztira. *Odolaren mintzoa* liburuan daukazu.

Oraingo honetan ez duela nolana hiko gaia edo *suieta*, sarrerako bi bertsoek ederki erakusten dute. Hona lehena:

Delikatua baitut egungo *suieta* (gaia),
hasi aintzin (aurretik) egin dut zombait gogoeta,
gure arteko zenbait ele (esan, hitz, kontu) entzun eta,
euskaldun agertzea ez baita josteta (jolasa).

Hor ez dago berriketarik. Ez da alde-aldeko konturik. “Delikatua” du *suieta*, gaia. “Euskaldun agertzea ez da josteta”, ez da berriketa. Haatik egin du hainbeste “gogoeta” “hasi aintzin”. Buelta asko eman dizkio buruari. Irauli du behin eta berriz arazoa.

Eta gogoeta egin eta egin, hona nora iritxi den:

Badakit askoz ere nukela hobe,
nehor ez agertu ene dolorea;
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke, bainan ezin dut ordea.

Zer lukeela “hobea”? Nehori ez agertzea bere “dolorea”. “Gordea” edukitzea “odolaren mintzoa”.

Hobeko luke hori guztia; baina ezin du. Gainez egi-ten dio “odolaren mintzoa”-k. Leher eginarazten “dolorea”-k. Hori estuasuna artzaiarena! Hori patua profetarena! Ezin du ito bere ahotsa, eta badao kantua. Hona:

Ama Euskal Herriaz naiz nahigabetua,
uztera doalakotz betikotz mundua,
bere seme alabez abandonatua;
nork barka dezaguke gure bekatua?

Zer gertatzen da, bada? Ihes egin al dute euskaldunek, Euskal Herria bakarrik utzita, urpera doan barkua marinelek abandonatzen duten bezala? Laister ja-kingo duzu. Hona 4. bertsoa:

Bata dela eskuina, bertzea ezkerra,
euskaldunen artean hazi (indartu) dugu herra (gorrotoa),
ahantziz, Ama, zure maitasun ederra;
horra zure seme hok dautzugun eskerra.

“Euskaldunen artean hazi dugu herra”. Gertakizun hori orduan egia ez zenik ez du inork esango; eta are-eta gutxiago esango du ordutik honera haziagotu ez denik.

Gaitz hori hor zegoen orduan, eta hor dago orain; eta... hortxe dagoke geroan ere. Eta guztia:

Baztertu dugulakotz zure maitasuna,
desegin da betiko gure batasuna;
gu baitan aditzen da gudu oihartzuna,
hau da zuri bizia ekendu dautzuna.

“Gu baitan aditzen da gudu oihartzuna”. Ez dira oraindik bi egun, nere belarri ez-txiki hauek entzuna dutela: “Gerra behar badu, izango dik gerra!”. Ene! Ene! Gureak egin ote du?

Hona artzainaren hitza:

Lehen sartu zitzauzun ezpata zorrotza,
zure etxe nagusi jartzean arrotza;
halere etzitzauzun gelditu bihotza,
etxekoen eskutik duzu heriotza.

“Lehen sartu zitzautzun ezpata zorrotza”. Enbor sendoan “sartu zuten aizkora” harena esan nahi ote du horrekin? Naparroa, eta Euskal Herri osoa, bi erdi eginda utzi zuteneko hura? Ondorioz, “bi aldetarik nagusi bana” jarri zenekoa?

Ez da dudarik, horrelako zerbait behar duela izan delako “zure etxe nagusi jartzean arrotza” hori.

“Halere etzitzauzun gelditu bihotza”. Jo zuten, eba-ki zuten, laurkitu zuten eta bi erdi bezala egin zuten arrotzek; baina ez zuten hil ahal izan. Bizirik atera zen. Iraun zuen. Irauten du.

Baina orain? Zer arrotz eta zer marrotz! “Etxekoen eskutik duzu heriotza” orain.

Haatik lehen aitaturako azken bertso hura:

Hil hobi huntan noizbait norbait badabila,
zure izaitaren errestoen bila,
lurpetik entzunen du deiadar bipila:
Hemen dago ama bat bere hurrek hila”.

Ez dira, beraz, arrotzak, gure herria desegin dutenak. Edo dezaketenak. Ez dira horiek.

Geu gara etsaiak. Geu gara baztertu dugunak haren “maitasun ederra”. Eta geu gara hiltzaileak, Euskal Herriko seme alabak.

Duela 26-27 urte hori esan zuenak, zer esan ote zezakeen gaur? Gutxienez zera esan zezakeen: ez zela nolana hiko profeta.

Hegoaldeari dagokionez, behintzat, guztizko egia da artzainaren profetia. Gure herriak ezagutu duen harririk galgarriena, gure arteko batasunik eza izan da urte horietan zehar, behin neri gudari zahar batek aitortu zidan bezala, begietan malkoak zituela.

Eta puskaketak elkar hiltzeraino eraman gaitu. Elkar hil dugu. Hor daude lekukoak. Elkar hiltzen dugu. Hor daude lekukoak. Eta elkar... hiltzen segi dezakegu.

Ez dezala inork inoiz entzun ahal izan deiadar bipil hura! Ez dadila profeta gerta gure artzaina! Baina...



Orixe.

“Nigarra begian”

KAPITULU honen izena bertso sail batena da, eta gaineko bi hitz horiek kantu horretako 6. bertsoaren bukaera.

Prediku gogorra, bortitza entzun diogu artzainari, gure arteko *politikakeriak* direla-eta. “Bata dela eskuinta, bestea ezkerria” eta gure Ama Euskal Herria gorputz. “Etxekoen eskutik duzu heriotza”.

Orain datorren eraso ez da aurrekoa baino bigunagoa. Hartzen du makilatu ederra Iparraldeak. Harrentzat da errietaldia. Izendatu egiten ditu Iparraldeko hiru probintziak.

Entzun 5. bertsoaren hasiera: “Baxenabar, Lapurdi eta Xuberoa'n / nik ez dakit jendea zeri buruz doan”. Iparraldearentzat da, beraz, astinaldi kupira gabe hau.

Eta antzekoa dute buakera, bai *Ama Euskal Herria* harek eta bai *Nigarra begian* honek. Bietan amaren heriotzarekin bukatzen da.

Han, “hemen dago ama bat bere hurrek hila” entzungo omen da. Hemen “ama hil hurran duen hurraren auhena” entzuten dugu.

Zertxobait xuabexeagoa honen bukaera; baina harenaren antzekoa hau ere.

Eta zer du hemen artzainak, horrelako espantuek ateratzeko? Ez du eskuinik eta ezkerrik. Ez da politikakeriarik. Zer da orduan?

Lehen hasi dugun boskarren bertsoak esango digu zer duen:

Baxenabar, Lapurdi eta Xuberoa'n,
nik ez dakit jendea zeri buruz doan;
euskara itotzea hartu du gogoan,
ezagutza gabeen urgulu zoroan.

“Euskara itotzea hartu du gogoan”. Zoin dugu etsai hori? Iparraldeko hiru probintzietako jendea. Beltza salaketa! Ez du gustoko lana. Entzun lehen bertsoa:

Jainko maitea, nago noiz deituko nauzun
munduan zabaltzerat zerbait alaitasun;
ez dakit betidanik zergatik naukazun
gutarteko berri txar guzien oihartzun.

Kexatu bezala egiten zaio artzaina Jainkoari, “beti gutarteko berri txar guzien oihartzun” bezala daukalako.

Eta zer du Iparraldeak euskarari horrela atzea emateko? Zertatik jendearen eta euskararen arteko dibortzio hori? Entzun 6. bertsoa:

Sumatuz euskaldunak, ospetsu nahian,
guretik deus ez duen hizkuntza mihian,
sofritzen egoiten naiz horien erdian,
gutaz ahalgetua, nigarra begian.

“Ospetsu nahian”, “guretik deus ez duen hizkuntza mihian” hartzen dute eta baztertzen gurea. Hori eromena! Hori burugaltzea! Hori... Baina segi entzuten, segi. Hona 7.a:

Bertzerenaz beztituz haundi esperantzan,
garenaz bertze zerbait nahi dugu izan,
bururat eman gabe, haunditzeko plazan,
gure aments zoroak norat garamatzan.

Nora ote garamatza, bada, gure amets zoroak? Zer etorkizun ote da gurea, aments horri jarraiki? Entzun:

Amenstu leku hortan heltzen garenean,
egizkoaren hatsa galdurik bidean,
leize bat egingen da gure gibelean (atzean),
amentsak er'ez baitu iganen airean.

Hori egoera gurea! Hori "leize" ikaragarria gure atzealdean! "Amentsak er'ez baitu iganen (pasako) airean" alderik-alde osin ikaragarri horren ahoa. Hori ikarra gorria "tulumbio" horren ertzean, Orixek esango lukeen bezala.

Bide horretan galdu dugu guk "hatsa", hau da, gure izate berezia. "Bertzerenaz beztituz" "garenaz" hustu gara. Euskaldun izateko gauzarik beharrena galdu dugu: hizkuntza.

Eta orain *Nor gera gu? Zer gera gu?* kantuak galdeztzen duen bezala? Hor dugu artzainaren erantzuna 11. bertsoan. Hona:

Nehoz ez gitaizke gu egizko frantsesak,
euskaltasuna berriz joa azken beltzak;
bilakatu beharrak gaitu gu amentsak
arimarik gabeko izaite deus ezak.

Nor garen gu? Zer garen gu? Zer diren Baxenabar eta Lapurdi eta Xuberoa? "Arimarik gabeko izaite deus ezak". Bidean berenezko izaera galdu dute. Nahi eta ere izan ez daitezkeen zerbait berenganatu nahi izan dute. Alperrik! "Nehoz ez gitaizke gu egizko frantsesak".

Orain ez gara, beraz, ez izatez garen euskaldun, ez amenstu dugun erdaldun. Zer gara gu? "Izaite deus ezak". Ezer ez eta festa. Hutsaren hurrengo. Ametsaren hondarrak. Batez-ak.

Beraz, nik ezagutu nuen neskatx bizkor eta aber-tzale hura, bere hogeita dozena bat urterekin amerikano batekin ezkondua, eta bere euskara guztiz galduta etorri zena diru askorekin, ez-deus bat besterik ez zen? Ezer ez bat? Hutsa? "Izaite deus eza"?

Eta haren senarra, gaxtetan, baina euskararekin Ameriketara joana eta handik euskararik gabe etorria diru askorekin, zer da? Inor ez bat?

Eta harako guraso haiek, biak euskaldun hutsak izan eta beren seme-alabak euskararik gabe utzi dituztenak, zer dira haiek?

Ez da, ez, Baxenabar eta Lapurdi eta Xuberoako kontua bakarrik euskarari bizkarra emate hori.

Hori errietaldia artzainarena Euskal Herriarentzat! Iparralderako eta Hegoalderako berdin-berdin balio du. Edo dezake. Edo zezakeen. Nik ez dut ezagutzen horrelako egurturik Euskal Herriari inork eman diotnik. Hori da kupira gabe jotzea! Hori salaketa!

Eta errua besteri botata bere burua zuritzen ohituta dagoen euskaldunarentzat, aparta! Sekulakoa! Herri honetan gezurrik haundienetako bat hauxe baita: bestek dituela guk euskara galdu izanaren erruak.

Horretan egiarik ez dagoenik ez dugu esango; baina egiarik haundiena bestea da: geuron erruz galdu dugula euskara. Inor ez da gai inori mihitik eta bihotzetik hizkuntza bat kentzeko.

Hala ere badu itxaropen artzainak, “aments zoroak” utziko dituela herri honek eta etorriko dela bere argitasunera. Entzun 9. bertsoa:

Nehoz etzeraukula, nik ez dut etsiko,
gure kontzientzia atzartzen hasiko;
egungo balentriak ez baitu betiko
odolaren mintzoa ixilaraziko.

Atzar edo esna bekio kontzientzia Iparraldeari. Atzar edo esna Euskal Herri osoari. Ez dezala inork esan ahal izan harako Orixeren hura: “Erri bat izan zan”. “Euskaldun izateko gauza beharrena” den hizkuntza zaindu dezala menderik mende.

Eta artzainak azken bertsoan aitatzen duen “dola-menik” ez dezala gehiago inork padezitu Euskal Herrian. Entzun:

Ene etsimendua ez beraz kondena,
ez ere irriz entzun ene dolamena (negarra),
ez delakotz arinki hartu behar dena,
ama hil urran duen haurraren auhena (antsia).


Ez bedi entzun gehiago bertsolarien eta poeten negar-antsirik, euskararen egoera dela-eta.

Sor bezate trankil ele edo hitz ederra, poesiaz, filosofiaz, zientziaz eta fedez ongi hornitua.

Ase bedi, euskaraz egindako lanetan, euskaldunaren gose ogiz bakarrik asetzen ez den hura.

Ez dezala beste inora joan beharrik izan bere giza-gose-egarri horiek asetzera.

Horrela izango da nor gure hizkuntza, eta izango gara nor gu. Bestela ez. Euskarak ez du euskara salbatuko. Euskarazko zerbaitek salbatuko du.



Kanboko eliza.

“Erdaldun fededun”

Ez. Ez naiz deskuidatu, irakurle adiskide. Zuk eta nik “euskaldun fededun” dugu ikasia, eta hala da erran zahar edo esaera istoriko hura. Gaurko ez dakit balioko lukeen, baina horrela da.

“Erdaldun fededun” hori Xalbadorrek sortua duzu. Eta *Odolaren mintzoa* liburuko kantu batek hori du bere izena: *Fededun erdaldun*.

Beti da zinezko edo benetako kantaria gure urepel-darra, edozeinek dakikeen bezala. Izan ere, *Odolaren mintzoa* iturri duen esana, eta kantua, noiz ez da izan ohi zinezkoa?

Baina ba ote du artzainak “Erdaldun fededun” hau-xe baino zinezkoagorik? Eta minezkoagorik?

Izan ere, haren bihotzaren bi maiterik, haundienak ez bada, haundienetakoak elkartzen dira hor: euskara eta fedea. Eta bataren eta bestearen galera salatu nahi luke hantu honetan.

Bai, zinezkoa eta minezkoa da kantua. Bai kantuari egiten dion hitz lauzkoa sarrera, ez-motza ere, halaxe da. Ez dut asko-askotan ikusi nik horren tente eta serio urepel-darra. Hona sarreraren hasera:

“Ez nuke nahi nehorri minik egin, bainan ene euskal-zaletasun urrikalmendurik gabeak ekartzen nau apez batzuei oharrarazpen baten egiterat”.

Ez da hor jolasik edo jostetarik. Serio dator gizona, halajaina, bere “euskalzaletasun urrikalmendurik gabeak” eraginda.

Eta badakizu, irakurle, zeintzuentzat den predikua. Apezentzat da. Beraz, sermoilaintzat da oraingo sermoia.

Ez denentzat, jakina. Badaki urepeldarrak, beste edozeinek bezalaxe, “betidanik izan ditugu(la) apez euskalzale suharrak”. “Nork uka –dio– horiek guziek duten partea gure hizkuntza maitearen iraupenean?”.

Haatik ez luke nahiko “hobenik (pekaturik) ez duten batzuek berentzat har dezaten oharrarazpen hau”. Hau ez da horientzat. Horiek egiten dutena desegiten dutenentzat da hau. Izan ere, berak esango duen bezala, “nongo ofizialeak eraikiko du etxe bat, harek egin ahala norbaitek desegiten badu?” Desegileentzat da oharrarazpen edo abisu zorrotz hau.

Badaki, bestalde, gauzak ez direla errezak beti. “Ez ditaikela hemen nahi denik egin nahikunderik (borondaterik) hoberenarekin ere”. Baina “badira nahikunderik ere ez dutenak eta gure hizkuntzaz etzaiotenak hanbat axola”. “Halakoak ditut bakarrik gogoan” dio artzainak zeazki eta biribilki. Halakoentzat da sermoia, ez bestelakoentzat.

Eta zeren izenean, edo zer aitzakirekin edo estakururekin, baztertzen dute apez horiek euskara? “Nonbaiteko fededunak zerbitzatzeko estakuruak”-ekin edo aitzakiarekin.

Ez da aitzaki edo estakuru edo arrazoi edo motibo berria. Betikoa da, nahiz han eta nahiz hemen.

Hori digu salatuko artzainak *Fededun erdaldun* kantuan. Entzun dezagun arretaz predikari berri honen sermonttoa. Hona lehenengo bertsoa:

Gure erran zaharra “euskaldun fededun”
bere erran beharraz gabetu da egun;
zombait euskal eliza bisita ditzagun,
han adituren dugu “fededun erdaldun”,
tra la lara lara “fededun erdaldun”.

Aldatu da, beraz, “gure erran zaharra” Orain “erdaldun fededun” dugu errana, erran berria.

Hori horrela gertarazi duen apezari, hona nola mintzo zaion 3. bertsoan:

Zuri mintzo nitzazu, apez euskalduna,
hobeki erraiteko, euskal izenduna;
gure gogo barnean deitzen zaituguna:
euskara ostikatzen dutenen laguna,
tra la lara lara dutenen laguna.

Hori iharduera edo ariera apez batentzat! Euskara “ostikatzen”, halajaina! Eginak ez dira ederrak; baina horiek esateko artzainak aukeratzen dituen hitzak ere ez dira bigunak.

Hurrengo bertsoak adieraziko digu zein den auzia, lehen esan dugun bezala. Hona:

Ez ditut oro zaku berean sartuko;
bainan zuk, arrotz bat hor ikusi orduko,
herri bat osoari egin duzu uko,
Jaungoikoaren hitza harturik lekuko,
tra la lara lara harturik lekuko.

“Jaungoikoaren hitza harturik lekuko”. Beltza lekukotasuna edo testigantza. “Herri bat osoari” hitza kentzen zaio Jaungoikoaren hitzaren izenean. Horrela erdaldun behar fededun.

Ondorioak asmatzen ez da zail. Jarri ditzagun segiran 5. bertsoa eta 6. bertsoa. Hona:

Arrotzaren ariman argitu nahia
dela diozu zure helburu garbia;
ez dakit horri pizten diozun argia,
euskal bihotzetan bai zonbait errabia,
tra la lara lara zonbait errabia.

Arrotz horren gogoan beharrez barnatu,
edo zure burua nahiz enganatu,
herri aiherkundera (amorrazioa) duzu zu ganatu;
Jainkoak ez derautzu hoinbertze manatu,
tra la lara lara hoinbertze manatu.

Errabia edo “aiherkundera” piztuerazi ditu herrian. Hori da bereganatu duena gure apez ostikalariak.

Irri egingo dio artzainak, ironiarik zorrotzenarekin. “Jainkoak ez derautzu hoinbertze manatu”. Gizona, gizona! Badakigu apezari asko eskatzen zaiola; baina hoinbeste ere... Hori par egitea!

Hurrengoak ere badu arrazoi mingarririk. Entzun:

Zinez ote da zure eginbidea (obligazio) mina,
ala hortan ote da zure atsegina?
Arimen artatzeaz (zaintzeaz) duzu zin egina,
eta euskaltasuna ez dea arima?
Tra la lara lara ez dea arima?

Bertsoaren sarrerako duda hori duda gogorra da apezarentzat. Obligazio-obligazio bat da hori zuretzat, “ala hortan ote da zure atsegina”? Estakuru edo aitzaki bat besterik ez da zuretzako arrotz horren presentzia, euskara “ostikatzen” segitzeko gustora, “atsegina” hartuz? Gogorra kritika.

Eta *Fededun erdaldun* saileko azken bi bertsoak kontseilu pare bat dira. apezak zer egin behar duen jakin dezan horrelako kasuetan.

Lehenengoan, haiei Ameriketari gertatua kontatzen dio. Hona:

Behin Ameriketari mezan izan nintzan,
dotzenaka euskaldun baginen elizan;
apezak guretzat hitz arrotzak zabiltzan.
han etzen guretzako fagorerik izan,
tra la lara lara fagorerik izan.

Horra besteen jokabidea guretzako. Ikas dezala gure apezak ere amerikarregandik. Hara:

Ikustean arrotzak elizan daudela,
zuk ere pentsa zazu hangoez bezela;
meza ixilarekin geldi ditezela
edo gure hizkuntza ikas dezatela,
tra la lara lara ikas dezatela.

Horra errietaldia, Horra “oharrarazpen” edo abisu zorrotza. Horra artzainaren prediku argia eta garbia. “Gaizo apezak”, berak esango lukeen bezala. Gaurkoz badu hartua beretzat haina.

Eta honetan uzten ditugu gure profetak egin dituen salaketa “urrikalmendirik” edo kupirarik gabeak. Badugu zerbait entzunik euskaldunok. Artzainaren espirituari leial izan nahi badugu, badakigu zer egin behar dugun eta zer ez dugun egin behar.

Xalbador eta fedea

***Iri.:* Bene-benetakoa
nere siñismena...**

***Xal.:* Ene barruan betitik
bizi izan dena,
horrek deraut gaur pozten
triste den barrena;
horrek nauela bizi
horra aitormena.**



Mattin.

Ustekabeko sarrera

2001eko abuztuak 20 ditu gaur. Hilabete honen 16a -egun seinalatua guretzat- baino lehen idazten hasi banintz kapitulu hau, ez nuen orain hasten dudan bezala hasiko.

Delako abuztuaren 16 horretan, bi mezu iritxi zitzaizkidan, lagun batengandik bata, ezezagun baten-gandik bestea. Lehenengoarena eguerdian izan zen, eta iluntzean bigarrenarena.

-Liburua zer moduz? -galdegin zidan adiskideak.

-Ondo -erantzun nion-. Hurrengo astean hasten diat kapitulurik zailena.

-Zein?

-Fedearena -esan nion.

-Ba! -erantzun zidan berak-. Hori erraz egingo duk hik.

Apaiza naizelako zioen hori, jakina; eta uste harek, nere ofizioa erlijioarekin lotua dagoelako, nik neke haundirik gabe emango nuela Xalbadorren fedearen berri. Nahiago nuke hala balitz!

Ez daki asko nere lagun horrek zeinen gaitza den fede kontu horiek behar bezala adieraztea. Nolanahi edozeinek ematen ditu. Nahi bezala, inork gutxik. Eta behar bezala, are-eta gutxiagok.

Bigarrenarena, eta iluntzekoa, harategi batean jaso nuen. Irrati bat ari zen eta harengandik etorri zitzaidan mezua.

Honako hiru hitz hauek errepikatzen zituen behin eta berriz abeslariak: “Jainkoa hil da” edo “Hil da Jainkoa”. Azko aldiz errepikatzen zuen kantuak. Ez dakit besterik ezer esaten zuenik ere.

Gehiena ez ninduen harritu hori esateak. Gazte-ahots batek esateak harritu ninduen gehiena.

Zer zuen gazte harek Jainkoarekin? Non ezagutu du? Zertan ezagutu du? Norekin?

Nolaz zekien Jainkoa bazela? Non ikasi du horrenbeste? Notizi hori ematen ari zenerako, bazekien bizi zala.

Eta norentzat hotsegiten zuen hori? Nori interesatzen zaio Jainkoa hil dela jakitea?

Beraz, zergatik eta zeinentzat eta zertarako ari zen esan eta esan, errepika eta errepika, hil dela Jainkoa?

Gainera, askojakinek ez al dute esaten Jainkorik ez dela? Ez-dena hil dela esaten orain gure gazte hau? Zer da hau!

Xalbadorrek esango lukeen bezala, “narrats kusten dut nik hortan ere gaur naguen ingurua”. (*Bertsolari txapelketa*, 1967-VI-11, *Auspoa* 67, 119.)

“Ez sorturikan Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan”

GAURKO gazte horrena harrigarri bezain konprenigarri gertatzen da Urepeleko gaxte haren tirria, eta haren damua edo pena, “Jainkoaz deus ez dakiten tokietan” ez jaio izateagatik.

Lehengoko gaxte horrek bezalaxe, Xalbadorrek ere libratu nahi du Jainkotik. Entzun dezagun bera. Hona:

Legeak zuen erakaspena hausten nuen guztietan, okaztagarri (gonbitagarri) aurkitzen nintzan Jainkoaren begietan, nitaz betikotz etsi zuela iruditzen baitzitzautan; desgustaturik damuz betea egon izan naiz bortzetan (askotan)

ez sorturikan Joainkoaz deusik ez dakiten tokietan.

“Bortzetan”! Gure *hamaika aldiz*-en pareko da *bortzetan* hori.

Egoera bat adierazten du horrek. Ez da noiz edo noiz burutik pasa zaiola edo bururatu zaiola horrelako pentsamenduren bat. Ez!

“Bortzetan” da. “Legeak zuen erakaspena hausten” duen guztietan da. Eta badakigu, batez ere, zer lege izaten zen hori.

Egoera horretan bizi da gure haur-gazte-gazte urepeldarra. Pena du –“damu”– ez sortu izana “Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan”.

Zergatik zitzaigun gaztearena harrigarri bezain konprenigarri urepeldarrarena? Laister jakingo duzu. Entzun:

Orduko apez suhar zintzoek halako arak (erak) zituzten, etzen maitasun gozo haundirik heien ahotik ixurtzen; heiek Jaunari eman itxurak ari ninduen itsutzen, zeruko edertasunak berak hotz hotza ninduen uzten, gaztiguaren labe gorria baizik ez nuen ikusten.

Jainkoa eta ni izeneko kantutik hartuak daude bertso horiek. ("O. M.", 213). *Mutil koxkor bat* harena dute doinua.

"Heiek Jaunari eman itxurak ari ninduen itsutzen". Nola ez, "gaztiguaren labe gorria baizik" ez badu ikusten? Eguzki kiskalgarri batek bezala ari zizkion begiak erretzen "heiek Jaunari eman itxurak".

Haatik da konprenigarri, "Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan" ez jaio izanaren damua edukitzea artzainak! Itsutzen ari du "heiek Jaunari eman itxurak". "Labe gorria" ikusten du etorkizun. Utikan hori!

Nola ez du, bada, aldegin nahiko horrelako mamu tzar batengandik! Baina mamua han dago, amets gaiztoetan bezala; nahi aldegin, baina ezin. Hura han beti gainean.

"Bortzetan" –Jainkoak dakien haina aldiz– dago "desgustaturik", "Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan" ez sortu izanaren penetan.

Zeini ez zaio konprenigarri egiten, egoera hori ikusi-eta, Xalbadorren libratu nahi hori Jainkoarengandik? Konprenigarri ez ezik, zentzuzko jarrera bakarra ere horrek dirudi.

Ai, jakin izan balu hil zela, hura itsutzen ari zuen mamu hura! Beranduxko zetorren gure gaztearen mezua artzainarentzat.

Baina "Jainkoa hil da" deiadarra gazte hori baino eta Xalbador bera baino ere zaharragoa dela jakinik, entzuna zukeen noiz edo noiz pentsamendu hori urepeldarrak.

Xalbador jaio baino hogeit hamar urte lehenago hil zen Friedrich Nietzsche miresgarria. Lehen urtean egin ditu, beraz, ehun hil zela. Hemen ez da asko ospatu

mendeurrena. Ez udako ikastaroetan eta ez besteetan, ez dut sumatu ospakizunik. Artikulutxoren bat edo beste bai, irakurri dut, betiko topiko aldrebestuak errepikatuz. Baina ikastarorik eta horrelakorik izan denik, nik ez dut entzun.

Xalbador jaiotzeko bezpera-bezperan hil zela, bada, gure Friedrich Nietzsche sonatua. Zer dira, izan ere hogei urte ideen zabalkunde kontuetan? Labetik atera berri-berriak bezala entzun zitzakeen Xalbadorrek Nietzscheren pentsamenduak. Eta bakarren bat entzun baldin bazuen, ez zen azkena izango "Jainkoa hil da" delako hori.

Eta entzuna baldin bazuen, zer pentsatu ote zuen artzainak? Ez ote zuen bere baitarako esango: "Huna hemen gizon bat, ni bezalaxe, Jainkoarekin konpondu ezin dena"? Esan edo pentsa zezakeen horrelatsuko zerbait. Jainkoa arazo zuten pertsonak baitziren bertsolaria eta poeta.

Friedrich ere, artzaina bezalaxe, erlijio-giro itogarri batean sortua zen, eta hazia. Aita, artzain edo apez protestante bat zuen. Eta familia osoa zuen guztiz erlijioari emana.

Eta Nazaretekoarekin eta Haren Jainkoarekin konpondu ezin gogorak sortu zitzaizkion Friedrichi. Ikaragarria.

Hala ere, inork inoiz idatzi dituen gauzarik ederrenetakoak idatzi ditu Nietzsche haundiak Nazaretekoarengatik.

Nik espainoetik jasotzen ditut, eta badakit itzulpenak zer izaten diren askotan. Zer ez zaigu ikustea tokatu! Kontatuko al dut Xalbadorren beraren esan bati, idatzitako esana, egindako itzulpena?

Odolaren mintzoa liburuan, 53, orrialdean, azken-laugarren lerroan, honako hau dio: "alde huntako entzule miseria...".

Iparraldeko bertso saioetan dagoen jende eskasiaz ari da hor artzaina. Hegoaldeko batek ba al dakizu no-

la esan zuen hori espainolez? Honelaxe: “*gente miserable*”.

Baina nik, nahi eta nahi ez, itzulpenetik hartu beharrak dauzkat Nietzscheren esanak. Nahiago nuke alemana baneki, haren esanak haren jatorrizko hizkuntzan irakurri ahal izateko.

Werner Ross jaunaren *Friedrich Nietzsche. Zapelaitz tormentupeko. Biografia bat* izeneko liburutik hartzen ditut. Lehen argitalpena da. Espainolezkoan, 818 orrialdean dakartza. Hona:

“Harek ez zuen behar jada inolako formularik, inolako erritorik, Jainkoarekin harremanerako... Otoitza bere ere alperrik zitzaion. Kitatuak zituen zorrak judutar dotrina penitentziazko eta expiaziozkoarekin; Harek badaki, bizia biziz bakarrik sendi daitekela bat *jainkozko, zoriontsu, ebanjeliozko*, aldi oro *Jainkoaren seme* bat. Transformazio berri bat, ez fede berri bat... da Harena”.

Hori Friedrich! Hori interpretazioa Jesusena! Hori irakurketa ebanjelioarena! Hori argi-iturria! Hori *super-gizona* Nazaretarra! Hori... *Jainkoaren semea!*

(Bidenabar esan dezadan, inoiz esan izan dudana: nik ez dudala ezagutzen ebanjelioaren interpretzaile hoberik Nietzsche baino.)

Hori guztia aitortu eta gero, Hura horrela jainkotu eta gero, nolatan dioke “Jainkoa hil da”? Eta nola deklarara dezake: “Ni naiz Jainkoa”? Ene! Ene! Ene! Gure Friedrich gurea!

Harrigarri eta misterio da Nietzsche bere argian eta bere itzalean. Isiltasuna da egin dakioken ohorerik beteenetako bat.

Haren oihua da, nik gazte hari harategian entzuten niona. Hurrun xamarrekoa gazte harentzat. Bai, deia-dar hori egin du gure Friedrich-ek, eta jainkotu du bere burua: “Ni naiz Jainkoa”. Egin du egitekoa.

Bestalde, ez da berri-berria. Zahar-zaharra da. Zer da, izan ere, horixe besterik Adan liluratzen duen ametsa?

Jo du kukurruku ikaragarria eta ikaratzalea. Hartu du Jainkoaren lekua. Ai Friedrich, Friedrich!

Ez al henkien hik, bi jainkorentzat ez dagoela lekurik? Hotsegin diok eta heldu zaik Jainkoa. Eta zer egin duk, Friedrich? Leher egin duk. Zapart egin duk. Eztanda egin duk. Zulo guztietatik dariok orain gizona. Akabo Friedrich, akabo.

Egin huen egitekoa, eta egin dik ireak.

Eta... penaz eta dolorez bada ere, esan dezadan zertan bukatu duen Jainkoa hil duen gizonak. Penaz eta dolorez diot, baina badiot.

Burumotza eginik bukatzen du. Eta ikus zertaraino: bere kaka jateraino eta bere pixa edateraino; eta bere kakaz eta bere pixaz bere burua igurtzitzeraino.

Horra gure gizona. Horra zer kakagizon bihurtu den. Jainkoa hil eta gero, ez dago gizona salbatzerik.

Hala ere, kakagizon haren leloa errepikatzen segitzen dugu guk. Gurea ere...



Nietzsche.

“Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gaitezen”

“Labe gorria”-ren aurrean utzi dugu artzaina. Kontatu eta kantatu digu nolakoa den bera-
ren egoera: Jainkoarengandik libratu nahi eta ezin.
Hori burruka klasea!

Honera artekoa entzun diogu, eta ikaratu ere egin gara. Segi dezagun entzuten. Eta nora eramaten gaituen “labe gorri” horren atetik. Hona:

Orai ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu ote naizen, etzira egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen; gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen, gure arteko hoztasun hartaz hasia nintzan aspertzen, Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezen.

“Orai ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu ote naizen”. Guk ere ez, ez dakigu. Baina aldetu dena aldatu dela, aldaketa mundiala izan dela, bai, badakigu. Ez dago entzuten segi besterik. Beha: “etzira egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen”.

Lehengoak “itsutzen” ari zuen. Begiak erretzen zizkion. Ez zuen “labe gorria” besterik ikusten. Orain...

“Gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen”. Apaltasun bat zeinek ez du sumatzen hitz horietan? “O nagusia” deitzen du lagun berria. Eta esker ona dario harentzat. Kartsuki eskertzen du aldaketa-rengatik.

“Gure arteko hoztasun hartaz hasia nintzan aspertzen”. Zenbat iraun ote zuen “hoztasunak”? Zer

adin ote zuen artzainak, “hoztasun” hura desegin zenean?

Eta hona orain bukaera dizdiratsua: “Jainkoa maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezen”. Hori naturaltasuna: “ordu zen noizbait lagunak egin gintezen”!

Jainkoa eta ni du kantua izena. “Hi eta ni bat” bezala da hori. “Hi bahaiz, ni banauk” bat bezala. Hori edertasuna!

Lagunen artean ez da haundiagorik eta txikiagorik. Ez da deus bereizgarriak. Lagunak lagun dira eta kito.

Eta Jainkoa eta Xalbador ere lagunak dira. Ez artzainak nahi ordurako! “Ordu zen”!

Ba ote du momentu jakinik aldaketa horrek? Ba ote leku jakinik, Damaskoko hura bezalakorik? Edo poliki-poliki gertatu den aldaketa bat izan ote da? Heltzen-heltzen joan den zerbait?

Dena dela lekuz eta aldiz eta gainerako xehetasunez, argitu duela, behintzat, eguna “noizbait”. “Ordu zen”, ordu zenez!

Badu ondoriorik aldaketak, badu berririk, badu ikustekorik. Hona 6. gertsoa:

Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik,
zure behako samurak eman nau fidantziak beterik;
deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik,
ez gaztigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik,
gaurkoz ez dautzut deusik eskatzen, amodioaz besterik.

“Hori hizketie!”. Harridurazko esaldi hori atera zitzaion ene adiskide bati, Azpeitiako *Izarraitz* pelotalekuan, haren eta nere adiskide baten bertsoak entzun eta. “Hori hizketie!”. Ez dakit delako nere adiskide entzule harek bertso hauek ezagutzen dituen; baina baldin ezagutzen baditu, seguru naiz, azkena irakurri dugun bertso horrengatik ere, “Hori hizketie!” edo anzeko zerbait aterako litzaiokeela.

Neri ateratzen zait: "Hori berria da! Hori bestelakoa da! Guk ez dakigun nonbaitetik dator hori!"

Ez dakigu, eta ezjakinean gelditu beharko dugu. Artzainak berak ere ba ote zekikeen esaten?

Jakin gabe gelditu gera. Izan ere *Jesus izen santua* eguneko mezetako eresiak dioen bezala, "gertatu zaiolak daki Jesus maitatzea zer den". Bestek ez daki.

"Gertatzen denaz" esan digu Xalbadorrek ere. Bai, hari ere gertatu egin zaio, dudarik txikienik gabe, eta berak bakarrik daki nondik sortzen den hizketa berri hori, harrigarri hori, miresgarri hori, besterik ez bezalako hizketa hori.

Entzun ditzagun berriz ere, hitz edo ele edo berba bakar bat ere galdu gabe: "Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik". Neke bakarra, delako "hoztasun hura zen. Neke guztia, Haren falta zen. Harekikoa egin eta gero, artzainarentzat ez da nekerik. Hura gabe, dena zen neke. Harekin, deuz ez.

"Zure behako samurrak eman nau fidantziatz beterik". Lehen ere esana daukat, haurrentzat egin nuen *Xalbador* liburuxka haretan, eta bihoa hemen berriro, Xalbadorren "behako samurrak" nola gogorazten didan beste fededun berezi baten esana.

Orixe duzu beste hori. Bere *Barne-muinetan* izeneko liburuxka haretan, lehenengo poesiaren hirugarren bertsoan, hona nola mintzo den:

Begi oiek begi ôtan
zizta naute.
Negar balerit saminik!
Begikaldu samur batez
nor naizenik
adieraz dautazu garbi.

"Behako samurrak" dio artzainak. "Begikaldu samur" dio artzainkondoak. Zer berdinarorik?

Behako edo begikaldu horretatik sortzen da artzainaren "fidantzia", konfiantza. Hori bihotz-lapurtzea!

Hori etzitea maiteak elkarrengan! Hori etzalekua gure artzainari gertatu zaiona!

Hurrengo, eta sail honetako azkenengo, bertsoan adieraziko digu politki, eta biribilki, eta guztizki. Hona:

Nehoz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria,
bihotzak edan duen ur onak hil du zure egarria,
ur on guzien Jabeak berak emanikan negurria;
horra egi bat amodioak gure bistan ezarria:
Haren oinetan sortzen zaukula bakearen iturria.

Irakurle adiskide, bake horrek, eta fidantzia horrek, eta amodiozko ase horrek, ez al dizute irudimenera ekartzen amaren magalean edo altzoan dagoen haur bat, esne betekada bat egin eta gero, dena irri, eta irrintzi, eta josteta, eta dena zero?

Ikus nolako atsedena, eta bakea, eta ondo izana eta osasuna bihotz horretan! Hori giroa, hori!

Eta zeini ez zaio une honetan burura etortzen, irakurle, San Agustin deitzen dugun afrikar paregabe hura? Zeinek ez du halako ahaidetasun espiritual bat sumatzen gure artzainaren eta Hiponako gotzaiaren artean? Afrika goineko Tagaste hiriko gizonak eta Urepeleko semeak badute berebiziko antza.

Entzun afrikarra: “Zuretzat egin gaituzu, ta ezinegenez daukagu bihotza Zuregan atsedeen dezaño”. (San Agustin: *Aitorkizunak*. Orixé, lehen orrialdean.)

“Nehoz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria” delakoa ere hala bizi zen, Jainkoa eta biak “lagunak egin” ziren arte. Ezinegenez afrikarra eta ezinegenez urepeldarra.

Eta afrikarraren bihotzak eta gurearenak leku berean aurkitzen dute “atseden”. Asetzen dute “egarria”. Eta paketzen dira.

“Zuretzat egin gaituzu” dio San Agustinek, eta Harrerengan “atseden dezaño” ez zaio paketzen bihotzik.

Urepeldarrak, berriz, beste honetara dio gauza berbera:

Horra egi bat amodioak gure bistan ezarria:
Haren oinetan sortzen zaukula bakearen iturria.

Izan ere, “ur on guztien Jabeak emanikan negurria”, ez zitekeen bestela izan. Galdetu bestela Samariako andreari.

Hori antza, duela hamasei gizaldi bizi izan zen afrikarrak eta duela hogeita bost urte hil zitzaigun napparak!

Garai artako jakintza-mota eta arte-mota guztietan hazia eta hezia eta aritua eta aditua zen Agustin. Erdi-haundikia zen, gizartean asko luzitzen duen maila horietakoa.

“Hameka urte inguruan” eskolako aulkiak utzia genuen Xalbador. Gizon “xume” bat zen. Artzaintza zuen ofizio.

Eta hala ere hori antza bi bihotz horiena! Biek pentsamendu berak ematen dizkigute, eta sentipen berdinak adierazten.

Zeinen gutxi aldatzen diren bihotzak, onezko direnean, alditik aldira, eta aldetik aldera, eta batetik bestera.

Noraino eraman gaituen, irakurle adiskide, delako “behako samurrak” eta “fidantziaz beterik” harek. Nola ikusi ditugun parekatuak Xalbador artzaina, eta Orixe artzainkondoa, eta San Agustin Tagastekoa.

Bil gaitezen berriro 6. bertsora. Hitz edo ele edo berba guztiak, bat bera ere galdu gabe, esan dugu berraztertu eta berrikusi behar ditugula. Ez dezagun hitzik jan.

Hala dio “findantzia” delakoaren ondoren: “Deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik”. Eskatu beharrik izaten al da “lagunak egin” diren bihotzen artean? Ez al dakite elkarren berri, inork inori ezer esan gabe?

Are gehiago: eskerik edo galderik egiteko premiarik senditzen al du bietan inork?

Zer gozo, eta zer grazia, eta zer betea bihotz horiena! Ez da goserik, ez da egarririk, ez da eskasiarik. Bakea eta atsedena eta atsegina dira hor. Zer behar du bihotzak besterik?

Hau ez bada berri, hau ez bada bestelako, hau ez bada ez-ohiko, zer da berri eta bestelako eta ez-ohiko?

Baina orain dator, hala ere, esanik harrigarriena. Oraingo honetan, 4. puntu horretan, zer ere ez daukan eskatu edo galdetu beharrik kontatuko zaigu. Hona:

“Ez gaztigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik”.

Zer? “Gaztigua urrun” dezaion ere ez al du eskatzen gehiago? Itzali al da, bada, “gaztiguaren labe gorria” bera ere? Zer da hau?

Non dira itxura “okaztagarri” hura, eta “desgustuak”, eta hoztasun hura, eta “Jainkoaz deusik ez daiten tokietan” ez jaio izanaren damu eta pena eta horrelako kontuak haiek denak?

Hura, elkar ezagutu aurreko kontua da. Hura, gure buruzpide ohikoetako kontua da. Hura, “lagunak egin” aurreko kontua da. Horiek guztiak gure kontuak dira.


Baina Hura, Hura da. Harek hausten ditu gutasuna eta gukeriak, eta bestelakotzen gaitu gu, eta hasten gara bestela ikusten eta esaten eta izaten. Edo, behintzat, bestelako izan nahi izaten.

“Gaztiguaren labe gorria” beldur? “Sari eske” hasi? Harekin ez zerurik, ez inpernurik. Harekin Hura bakarrik, eta Hura da dena, eta Han hasten eta bukatzen da dena. Han bukatzen dira gutasunaren eta gukeriaren ezak. Han, *bai* bat naiz ni.

Beraz, “gaurkoz ez dautzut eskatzen amodioaz besterik”. Horra guztia.



Xalbadorren hil hobian.



Ezkerretik: Lopategi, Mattin, Xalbador, Mitxelena eta Txomin Garmendia bertsolariak.

“Den baino ere gogorragoa bilaka (gerta) bekit bizia”

Ez zuen inor askok desira hori agertuko bere bizitzan. Are eta gutxiago agertuko zuen, Xalbadorrek bezala, bestela ere nahiko gogortasun nozitu behar izan duen batek.

Ez nuen uste du izena, orain aitaturko dugun bertso sailak, eta goiko hitz horiek dakartzanak. Ikus nolako sarrera egiten dion artzainak kantuari, bere hamar bertsoetako lehenengoan:

Ez dakit eman behar nukenez (nukenez edo ez) suerte txar-
raren kontura
edo nihaurek tentatzen dutan delako suerte txar hura;
ene denboran jauzika nabil ixtripitik ixtripura,
zombait oinaze jasaitekoa etorri nintzan mundura.

“Ixtripitik ixtripura” dabil, beraz, gure artzaina. Ez du erabakitzen zergatik den hori, bera nolabaiteko xamarra delako ala “delako suerte txar” harek pertsegitzen duelako. Baina “zombait oinaze jasaitekoa etorri nintzan mundura” aitortuko digu erarik finenean.

Baina, pasatakoak pasa, orain datorrena da ikaragarriena. Horra bigarren bertsoa:

Lehendik ere zombait ez behar etorri den enegana,
zombait seinale aurki daitaie ene gorputzean barna;
nahiz guziek utzi daudaten orroitzapen kirets bana,
bertze guzien gainekoa da aurten gertatu zautana.

“Zombait ez behar” izan duen, beraz, Xalbadorrek bere bizitzan jakin nahiko lukeenak, han dauzka agi-

riak haren “gorputzean barna”, “Orroitzapen kirets barna” ez ezik, utzi baitiote bestelako seinalerik ere.

Hori ez zekienak, irakur edo kanta beza *Ene erre-kontrua* bertso saila. 135. orrialdean dauka, *Odolaren mintzoa* liburuan. Laugarren bertsoak esango dio, besteak beste, zer seinale dauden Xalbadorren gorputzean, izandako istripuen testigu. Hona:

Urrieta (urrialdi) goiz batez, goizik oihanean (basoan),
ihizin (eizean) nindagola harma bizkarrean,
trirot bat eskapatu zaut uste gabean,
xuxen-xuxena sartuz zango muturrean.

Hori ikara! Zenbat horrelako eskopetarekin bazterretan!

Hurrengo bertsoan esango zaigu zer eraman zion tiroak eta zer eraman ziezaiokeen, asko moduz, “barnagotik” “hartu” izan balu. Entzun:

Jainkoari eskerrak hortan gelditurik:
geiagorik gabe bi erhi (behatz) mozturik;
tiroak hartu balu nonbait barnagotik,
egun (gaur) etzen entzunen kantuz Xalbadorrik.

Horra “zerbait seinale aurki” haren “gorputzean barna”; “Bi erhi”, bi behatz edo atz falta ditu hanka batean. Zeinetan? Gaur oraindik ikasi gabe nago. Galde zuk, irakurle, dakikeenari.

Baina horiek ez dira ezer. Hoiien “guzien gainekoa da aurten gertatu” zaiona. Zer da hori? Entzun:

Abar tzar batek begian jorik indar ezin sinestsian,
zonbat denbora lurrean egon ote nintzan hil etsian,
bizitik eta heriotzerat dagoen arte hertsian?
Nago begi hauk behin betikotz nolaz etziren hetsi han.

“Abar tzar batek begian jorik indar ezin sinetsian”. Horra gertakizuna. Horra istripua. Horra ondamendia.

Xalbador, lurrean dagoen arbol bat soiltzen ari da. Ez dakit berak botea duen, ala beste norbaitek, ala

berez eroria den. Haren abarrak mozten ari da ondotik. Eta honetan, lurrekoaren abar bat mozten duela-koan, hor mozten du etzanda dagoen arbolak azpian harrapatua zeukan besteren abar bat. Erortzerakoan, albokoarena hartu zuen azpian. Eta Xalbadorrek hura ebakitzen du aizkoraz.

Eta harek bere lekura itzultzean, “indar ezin sine-tsian” begian jotzen du artzaina, eta han botatzen du zerraldo, eta “zonbat denbora lurrean egon ote nintzan hil etsian, bizitik eta heriotzerat dagoen arte hertsian” galdetzen du gure egurgile errukarriak.

Entzute hutsak ere ikara ematen du. Goitik behe-rainoko dardar bat sartzen da gorputz osoan entzute hutsarekin. Hori egoera!

Asma daiteke zerbait egoera hartaz; baina esango digu berak, gu ezer asmatzen aritu gabe. Hona 4. ber-tsoa:

Ene denboran ez dut pasatu halako momento txarrik,
nolaz etzuan nehork hauteman (sumatu) nik han egin deia-darrik?

Galbideko dei samin guziek etzuten izan indarrik,
oihanak (basoak) ito zituen eta *han egon nintzan bakarrik*.

Hori basoaren biotz gogorra! Berak bota gizona eta berak galerazi haren “dei samin guziek” inorenganaino iristea. Ez dirudi zurezkoa baso horrek. Harrizkoa di-rudi. Nola ez zen kupitu gure artzainarekin, basoak eta mendiak eta natura osoa hain maitekiro kantatu zituen menditarrarekin? Ez zen kupitu.

Eta han egon behar izan zuen lurrean, berak ere ez dakien hainbat denbora. Berez hain luzea izan ez ba-zen ere, harentzat ez zen motza izango. “Dei samin gu-ziak” alperrik! “Han egon nintzan bakarrik”.

Lehendik hor, “orroitzapen kirets”-etan ez ezik, gor-putzean josiak ere “ixtripu” eta “errekontru” txar asko-ren aztarnak; eta orain, berriz, begia galtzerainoko zartada “ezin sinetsia”, “bertze guzien gainekoa”, eta hala ere “den baino ere gogorragoa bilaka” dakiola bi-

zia eskatzen gure Xalbador? Hauxe da, hauxe, arritze-koa. Bai, harritzekoa da. Harrigarria da.

Baina ez da guztiz oraingo kontua. Zabal ezazu *Odolaren mintzoa* liburua. Beha 263. orrialdean. Hor daukazu *Ortzirale saindu batetako gogoetak eta otoitza* kantua. Hauxe duzu artzainaren erlijiozko aitortzarik edo konfesionerik mardulena.

Eta hori lehenagokoa duzu, *Ez nuen uste* hau baino. *Jainkoa eta ni* hura 1974koa da. *Ortzirale saindu batetako gogoetak eta otoitza* delako hau, berriz, 1975ekoa duzu. Eta *Ez nuen uste* delakoa 1976koa da. Artzaina hil zen urte berekoa. Eta ikustazu nola mintzo den *Ortzirale saindu batetako* haretan ere:

Hau da sinesmenaren argia ahulezian hurtzea!
O, Jesus ona, ilunpe hunen iraupenaren luzea!
Noiz onartu behar derautazu ene soinean hartzea
zur'eskuinean itzatu zuten ohoinaren (lapurraren) kurutzea?

Horiek hasperenak gure artzainarenak! "Hau da sinesmenaren argia ahulezian hurtzea"! O, Jesus ona, ilunpe hunen iraupenaren luzea!".

Hori bertsoaren berotasuna! Hori barruaren leher-
tzea! Hori apaltasunaren haundia!

Eta zer eskatzen dio Jaunari bere negar-antsi eta hasperenen artetik? Kurutzea eskatzen dio, haren aldameneko lapur onaren kurutzea. Noraino jausi, edo igo, behar duen horretarako pertsonaren bihotzak!

Hein horretaraino heldu den harek eskatzen du gu-
rutzea. Eta zergatik eta zertarako eskatzen du? Kantu
osoa da galdera horren erantzuna; baina azken ber-
tsoa bakarrik ekarriko dugu honera. Harek erakutsiko
digu ederki zergatik eta zertarako egiten duen eske
hori artzainak. Hona:

Jauna, suntsi dezazun ni baitan, egiten dautzut galdea,
hoinbertze bere gostuko sugai erretzen duen labea;
bihotz berri bat eman zaidazu, o zeru lurren Jabea,
ene jaidura gaixtoek egin karramiskarik gabea.

“Lagunak egin” ziren. Ustez elkarren beteko ziren, eta eske edo galdeak ustez bukatu ziren; baina bihotza lehengora makurtzen da.

Eta hori “suntsi” (desegin) dezala eskatzen dio Jaunari. Hori da “hoinbertze bere gostuko sugai erretzen duen labea”. Desegin bedi hori, eta betor “bihotz berri bat”, “jaidura (joera) gaixtoek egin karramiskarik (harra-mazkarik) gabea”.

“Bihotz berri bat” nahi luke. Bestelako bihotz bat. Eta horretarako lehengoa hil, “suntsi”, desegin dezan eskatzen dio Jaunari, “kurutzea” bada ere baldintza.

Beraz, lehen esan dugun bezala, ez da gaurkoa, nolabait esateko, zigor eske hori gure artzaiarengan. Lehen ere ezagutzen zituen bere “jaidura gaixto” haiek, etz nozitzen zuen bere bihotzaren astuntasuna eta bere “sinismenaren argia ahulezian hurtzea”.

Baina bere bizitzako unerik ikaragarrien honetan bezain argi, ez du nehoiz ikusi hori gure Xalbadorrek. Hor ikusi du, “bizitik eta heriotzerat dagoen arte heretsian” egon den horretan, zertaraino zegoen haren bihotza lurrari eta lurrekoei josia.

Baina zer ari nitzazu ni berriketan, irakurle adiskide, nik eta beste inork baino hobeki berak esan behar digu-eta? Entzun dezagun artzaina:

Herioari so (beha) han nindagon dolamena nariola,
gal irriskuan nadukanari asko pentsatzen niola,
lur huntarikan ene gogoa ezin baztertuz nihola,
ez nuen uste hein (neurri) hortaraino josia nintzakiola.

“Heriotza gainean duela ere, “gal irriskuan” daukan hura datorkio burura, “Lur huntarikan” bere “gogoa ezin” du baztertu inola. Lurrari josia. Eta nola! Berak uste zuen baino ere areago. Entzun: “ez nuen uste hein hortaraino josia nintzakiola”.

Horiek erroak, horiek sustraiak!

Baina pentsa zitekeen, “herioari” so egon den bezala egon eta gero, sustrai horiek etenak zitzakeela, “Gal

irriskuan” zeukanari baino gehiago behatzen hasia bide zela irabazten zuenari.

Pentsa zitekeen, edo uste izan zitekeen; baina uste erdi-ustela izango zen. Entzun, entzun berriro ere artzaina:

Etsimenduak hestutu arte Jainkoa nuen ahantzi,
bainan ordu latz hark ez ordea ene jaidurak ehortzi!
Bixta hauste ta pairamen orok lehengoa naute utzi,
ene gogoa eta bihotza berriz lurrean dagotzi.

Hori aitortza! Hori autosalaketa!

“Etsimenduak” jo arte, Jainkoa “ahantzi”. “Ordu latz” hura pasa, eta berriz lehenean. Larrialdi ikaragarri harek ere ez ditu “jaidurak ehortzi”, lurperatu. Gertakizunek gertakizun, “lehengoa naute utzi” esango du. Eta haren “gogoa eta bihotza berriz lurrean dagotzi”, daude.

Lotua dago, estekatua, berak esango lukeen bezala. Ezin du hegan egin. Jeikitzen da tarteka, beharrez eta bat eta beste; baina lehengora bihurtzen da berriz. Hori ahulezia gizonarena! Hori nahi eta ezina!

Zer egin? Nondu erremedioa gure artzainaren ahuleriak? Non da gaitz horrentzat sendagaia? Nola moztu lokarriak eta aska gogoa eta hegan egiten utzi?

Erremedio bakarra ezagutzen du artzainak, eta haren bila doa. Ez da gozoa. Garratza da, garratzik bada. Sutatik bezala ihes egin ohi dugu medizina horretatik, artzaina aurrena dela.

Baina ez dago beste erremediorik, eta hori eskatzen du, “bakearen iturria” den Haren farmazian. Hona eskea:

hersturak baizik ez badakarkit Zu ganako gutizia,
den baino ere gogorragoa bilaka bekita bizia.

Letra berezitan jarri dutan azken esan ikaragarri horrekin bukatu beharko nuen nik, irakurle adiskide, *Xalbador eta fedea* sail hau.

Egizu kontu, irakurle, Himalaia izoztuaren eta elurtuaren aurrean zaudela egunsenti batean, nahiz ilunabar batean.

Ez al duzu uste, ez zenukeela nahiko inor albotik “*ter-ter-ter*” –Xalbadorrek liokeen bezala– hasterik, hau eta hori eta beste esaten zuri?

Nere oraingo ihardun hau ere “*ter-ter-ter*” baten moduko zerbait gerta dakizukeen bildurra daukat. Letra berezitan jarri dizkizudan esan haiek eskatzen duten isiltasun haundia profanatzen dizudala dirudit.

Zertan ari nitzaizun, beraz, berritzuketan?

Badira kezkek, hitzegin erazten dutenak. Horietako bat daukat nik *Xalbador eta Jainkoa* gaiarekin hone-raino iritxi naizenean.

Gai horren sakontasunak eta goititasunak eskatzen zuten trataerarik ez ote diodan eman daukat beldurra.

Eskerrak hor dagoen Xenpelar errenderiarraren profezia, alegia, “jaioko dira berriak”, eta badutan itxaropen noizbait norbaitek nik baino hobeki erakutsiko duela artzaiaren bihotzaren eta pentsamendua-ren haundiaren ederraren ederra.

Bukatzeko, kezka horretaz aparte, badut beste zerbait. Xalbadorren mendikoa honako hitz hauekin bukatzen genuen: “Hor uzten dugu oraingoz mendia. Gero itzultzekotan?”.

Orain iritxi da gero hori. Eta ez nuen bukatu nahi *Xalbador eta fedea* sail hau, mendiarekiko dutan pentsamendu hau zuri eman gabe.

Xalbadorren fedea erakusten duen neurritz kanpo-ko sakontasun eta goititasun hori, mendiko bakarda-

de “betean” eta isiltasun “haundian” entzundako Hitzari zor zaio.

Alde-aldekoa lirudizukeen nere esan hau, irakurle, akaso egokiagoa irudituko zaizu, inoiz edo behin Xalbadarren artzain-etxola bisitatzen baduzu.

Amodioa “Amentsetan”

**Burua gordez an hasi nintzan berriz Jaunari lo galdez,
bainan amentsa nuen bilatzen, ez nindabilan logalez.
Amdioa, gaur egun ere hoin sendo bada ahalez,
bihotzez bihotz mundu guzia kurri dezala hegalez,
tristura eta herra lur pean sar ditene haren ahalez,
sar ditene haren ahalez.**



“Nihaurek (neronek) maita behar orai bien partez

Ez dakit esan beharrik badagoen, irakurle, baina jakin ezazu, kapitulu honetan amodioa edo maitasuna, bi pertsonak, sexua bide, elkarrenganako senditzen duten tira hura dela. Esan beharra ote daukat zuri, irakurle, eta beste inori, gai hori oso erabilia dela bertsolarien artean, dela plazan bapateko bertsoetan, eta dela bertso idatzietan? Bilintx donostiarra lekuko.

Xalbador zenak ere milla modutara erabili behar izan zuen gai hori bere plazarik plazako ibilietan. Eta baditu bertso gogoangarriak eskainiak bapateko saiuetan.

Lehen aitatu ditut zenbait. Beste bat erakutsi nahi dizut orain. Haiek amodio egokiaren fruituak ziren. Hauek sasi-amodio batek kanta eraziak dituzu. Alderdi asko du amodioak.

Odolaren mintzoa liburuan daukazu, 341 orrialdean. Mixel Itzaina adiskideak ematen dio gaia. Haurdun eta abandonatua gelditu den neskatx batena egiten du artzainak bertso horietan. Entzun:

Amodioak gaitu huntarat ekarri,
zer gertatua zautan erranen dut sarri:
barnean senditzen dut, hau zaut lotsagarri (beldurgarri)!
Sobera fidaturik izar faltsuari,
jarri behar naiz orai denen irrigarri!

Norbaiti eman nintzan maitearen maitez,
hura ere maitale baitzen ene ustez.
Zer on erran ditaike horrelako aitez?
Aingeru bat utzi du amodio galdez (eske),
nihaurek (neronek) maita behar orain bien partez.

Hor erori naizena ni ez naiz lehena,
jende maiteak, otoi, ez egun kondena!
Ezin da errepara egin izan dena,
sofritzen dutana ni ez bainaiz azkena,
otoitz egin enetzat, Santa Madalena!

Ederra hirukoa, bukaera egoki hori eta guzti. Zeini,
izan ere, egoera horretan egingo zaio otoitz, "Santa
Madalena"-ri izan ezik?

Eta plazetakoak ez ezik, idatziak ere asko ditu Xal-
badorrek amodioaren inguruko bertsoak. Ene liburu-
txo hau honera arte irakurria baldin baduzu, ikusiak
ditukezu bat eta bi baino gehiago.

Guztien artean, ezagunenetako bat, *Esperantzarik
gabeko amodioa* deitzen den hura izan daiteke. Zintan
grabatutako lehenengoetakoak, kantu horren azken
hiru bertso haiek izango dira. Hiru bakarrik zirela uz-
te izan nuen, gainera, nik luzaroan. Hautu hori egin
zuenak ez dakit nik nola utzi zituen kanpoan lehenen-
go biak. Esate baterako, bigarren hau:

O, Jainko ona, zendako bada egin nauzu hoin maluros
(desgraziatu),

begien bixtan izar eder bat ezarri dautazulakotz,
ikusi orduko maite nuena nik ditudan indar oroz?
Harek ordainez ez du enetzat ez begi eta ez bihotz...
Nehoz ikusi izan ez banu hobeko nuke ondikotz (askoz)!

"Harek ordainez ez du enetzat ez begi eta ez bihotz"
horrengatik bakarrik ere sartu behar zen hori.

Baina amodiozko bertso idatzietan, nik ezagutzen
dudan sailik bitxiena, *Amentsetan* izena duen hura
da. Hor daukazu *Odolaren* mintzoa liburuan, 319.
orrialdean.

Izenak berak erakusten duen bezala, aments bat da
kontatzen eta kantatzen diguna artzainak.

Zinezko amentsa ote? Asmatuzkoa ote? Hori da
lehen-lehenik sortzen den galdera, edo egin daiteke-
ena.

Nik esan behar banu, egi-egiazko amentsa da. Hala gertatua, alegia. Eta ez, mezu bat eman beharrez, idazleak asmatua.

Bestela nekez esan daiteke “hitz horietan atzarri nintzan busti bustirik begiak”. Eta nekezago esan daiteke horren ondoren azken bertsoan dakarren hau: “Burua gordez han hasi nintzan berriz Jaunari lo galdez, bainan amentsa nuen bilatzen, ez nindabilan lo-galez”.

Amentsa berritu nahi hori, hain grafikoki adierazia, ez dut uste asmatutako zerbait denik.

Zeinen errexki eta ederki antzestu daitekeen Xalbadorren bertsozko aments bitxi hau! Ez legoke lan haundirik egin beharrik antzoki bat asmatzen. Merezi luke artzainak hoinbesteko eskerrik.

Eta hasi gaitezen sarrerako bertso bikainarekin. Hona:

Bizia ez da nehoiz egoiten bere dohainen betean,
aldakorra da nola eguna goizetik arrats artean,
bildu bezanbat galtzen baitzaio urteak iragaitean;
zahartzean zer pentsatzen den ta zer senditzen den gaztean
joan den gau batez ikusi dut nik aments nahasi batean
aments nahasi batean.

Ez da erraza hitz gutxiagotan eta hitz juxtuagotan aditzera ematen zer eta nola den gure izaitea eta gure bizitza mundu honetan.

“Bizia ez da nehoiz egoiten bere dohainen betean”. Hori ateraldiaren guztikotasuna!

Aro edo garai bakitzak bere alderdi onak eta bere eskasiak ditu. Behin ere ez dago bere “dohainen betean”. Eta non ikusiko hori, eta “aments nahasi batean” ikusi” du joan den gau batez.

Hori bertso puska, esanen beteaz eta ederrez, eta esanen esateko moduz! Bikaina bertsoa.

Eta hona hemen orain, hurrengo bertsoan, “zer senditzen den gaztean”. Entzun artzaina:

Aments ausartak igan ninduen baratze baten hegira,
han bi amoros zoin amultsuki (maiteki) zeuden elgarri begira;
heien arteko mezu guziak zatozkidan beharrira,
hitz kartsu heien beroa eta behako haren dirdira,
adin huntako begi beharriz ezin prezatuak (apreziatuak) dira,
ezin prezatuak dira.

Nora “igan” edo igo duela esan digu “aments ausartak”? “Baratze baten hegira” eraman du. Baratze bat zen, paradisu omen zena ere.

Xalbadorrean izan den edozeinek badaki, hantxe etxe aurrean edo “etx-aintzinean” dagoela haien baratztea. Eta hegi-hegian dagoela, egon ere. Leku airosan dago, ez zoko batean. Hara igan ote zuen gure artzaina gau haretako “aments ausartak”?

Baratze haretan bazen, ez bazen, hor non ikusten dituen “bi amoros” edo maitale “elgarri begira” “amultsuki”, maitekiro.

Ez daude urrun elkarrengandik bi amorosak eta Xalbador. “Heien arteko mezu guziak” ederki datozkio belarrira. Eta haien “behakoen dirdira” ere ikusten du amesgileak.

Baina “hitz kartsu heien beroa eta behako haren dirdira –dio artzainak– adin huntako begi beharriz ezin prezatuak dira”.

Horra, beraz, amentsa: baratze batean “bi amoros” gazte amodiotan, eta adineko jaun bat haien ihardunaren testigu.

Testigu bai, baina ez da gauza apreziatzeko amorosen arteko “hitz kartsu heien” eta “behako haren” balioa. Eta irudipen txarretan sartzen da. Hona testiguen zalantzak:

Nonbait gau hartan loratua zen bi horien maitasuna,
eta jadanik (dagoeneko) mihian zuten betiko leialtasuna;
ez dakit xuxen gutietsirik oraiko gaztetasuna,
edo hoinbertze berri lazgarri badutalakotz entzuna,
heien leloa ez naukan beti bihotzaren oihartzuna,
bihotzaren oihartzuna.

Horra gure jaun heldua –zahartua bere esanetan, “zahartzean zer senditzen” baitio–, “gau hartan loratua zen” bi amoros haien arteko maitasunarekin gaizpentsutan.

Berak ere ez daki garbi nondik datozkion zalantza horiek: edo den “oraiko gaztetasuna” gutxiensten due-lako, edo den “hoinbertze berri lazgarri” entzun due-lako.

Baina “heien leloa”, “betiko leialtasuna” eta horiek, ez dirudio “bihotzaren oiartzuna” denik.

Baina amodioak badu “zer sala” edo zer kontatua baratze haretan gau hartan. Hona:

Baratze harek bazuen bada amodioaz zer sala,
nola pentsa nik bi gazteak han irriskuan zabiltzala?
Zeuden lekua distaranta zen, ni nindagona itzala,
hortan ote zen estakurua (aitzakia) heiei oldartu nintzala,
adimendu ta zuhurtziaren mandatari bat bezala,
mandatari bat bezala.

Nahiko iluna gertatzen zait neri bertso hau. Esanak ez dira ilunak, baina esanen arteko lotura nik ez dut argi ikusten, ez bertso honen barrukoena, eta are gutxiago hemengoek aurreneko bertsokoekin dutena.

Delako “gaztetasuna” gutxieste harek eta delako “hoinbertze berri lazgarri” entzute harek ez al dute esan nahi bi “amoros” haien arteko leialtasun deklaratu hura faltsu izan daitekeela? Nola esaten zaigu, bada, orain “nola pentsa nik bi gazteak han irriskuan zabiltzala”?

Eta irriskurik ikusten ez badu eta gazte haien amodioaz zalantzarik ez badu, nolaz hasten da, “adimendu ta zuhurtziaren mandatari bat bezala”, haieri predikuan?

Baina nere iluntasunak iluntasun, edo nere ulertezinak ulertezin, han hasten du gure testiguak bere “uhar (jasa) beldurgarri” hura “bi amoros” gazte haien gainera. Entzun:

Erran nioten: “Bazagon bihotz atzo elgarren aldean...
Eta egungo hegaldatuak dituzu bi aldetarat airean!”
Nornahi errex loak hartzen du ara (era) berrien legean.
Nolaz irauten ahal duzua gau batez bildu fedean (konfiantzan),
ordrea eta leialtasuna konda ez diren mendean,
konda ez diren mendean?

Horra “adimendua” mintzo. Horra “zuhurtzia” edo zentzua mintzo. Eta horra eskarmentua mintzo.

“Bazagon bihotz –hori esateko modua! Ez dago Orixe zutik. Aterako lizkioke hotzak Laffite jaunari!– atzo elkarren aldean”. Atzo bai, eta gaur? Non dira gaur? “Hegaldatuak” dituzu “bi aldetarat airean”. Egi hori ondo ikasia dauka artzainak. Penaz eta dolorez dauka ikasia.

“Hegaldatu” horiek ere bazuten ustez leialtasuna. Eman zioten zinez hitza elkarri. Beren artean bazuten “fedea” edo begikotasuna. Haien artekoa baino batasun haundiagorik eta fuerteagorik ez zen posible... Ustez!

Eta non dira egun bihotz haiek? “Hegaldatuak” bi aldetarat airean”. Sinesteak ere lan du.

Eta zuek espero duzue, bi amoros gazteok, “gau batez bildu fedean” iraungo duzuela? “Nolaz irauten ahal duzue”, “ordrea eta leialtasuna” –gizalegea hitz batean– “konda ez diren mendean?”

Horra zentzuaren predikua. Horra eskarmentuaren ahotsa. Horra minaren minak egiten duen aitormena.

Eta azkenean jarri die baldintza, beren “gau batez bildu fede” edo begikotasun hori iraunkorra izan dadin. Hona azken puntua 6. bertsoarena: “biek higatu behar duzue gaur erran hitzen esklabo”.

Horra amodio iraunkorraren baldintza: esklabotasuna. Norbera, bere gogoz eta nahita, bere lagunaren esklabo bihurtzen da, gertatzen dena gertatzen dela, eta jotzen duen haizeak jotzen duela.

“Alda soinuak” “zuentzat ere jo dezake” esango die artzainak; baina “fede izpi bat zuetan baldin badago

-esango die Xalbadorrek-, biek higatu behar duzue gaur erran hitzen esklabo". Horra predikua.

Entzun ditzagun oiartzunak. Artzainak berak esango digu. Nolako benetakotasunez egin duen predikua esango digu. Ez da berriketakoa 7. bertsoa. Entzun dezagun:

Luzaz oraino ixuri nuen golkoan nuen uretik,
iduri uhar (jasa) beldurgarri bat hedoi (hodei) beltzenen barnetik;
bainan ene bi maitalariak, ene garrasien gatik,
beren bihotzen beste goresten ari ziren ahapetik,
urrikalkorki behatuz eni argizko arku batetik,
argizko arku batetik.

Eta segiran erantsi dezaiogun 7. honi zortzigarrena, biek osatzen baitute ikusten ari garen koadro harrigarria. Hona:

Mixteriozko arkuan zauden, argiz elgarri josiak,
iduri zuten bi aingeruño zeruetatik jautsiak;
geienik nihaur joa ninduen bota nuen erauntsiak,
agertu baitzen nik nituela sendipen kordak hautsiak,
sehi (serbitzari) berriak bazituela lehengo ene nausiak,
lehengo ene nausiak.

Hori koadro bitxia, artzainak pintatu diguna! Erdia argi da, erdia itzal. Bera itzalean dago, ilunpean. Hala egoteko hobe al dago gaizoa!

Urrikalkorki behatzen diote "bi amoros" gazteek. Hartarainoxe dago joa gure testigua. Bota duen "uhar (edo jasa) beldurgarri" horrek bera jo du, batez ere.

Besteek han segitzen dute, Xalbadorren "garrasien gatik", "beren bihotzen beste goresten".

Halakoxe egoeran ere daude. "Mixteriozko arkuan zauden, argiz elgarri josiak, iduri zuten bi aingeruño zeruetatik jautsiak".

Hori argizko edertasuna! Horixe "mixteriozko" ikuskizuna, "bi aingeruño zeruetatik jautsiak" diruditela.

“Distaranta” da lekua. Distarantak pertsonaiak. Dena da argi, dena dirdir, dena argizko argi txuri.

Nola “oldartu” litekeen ere bat hor, “garrasi” eta “uhar beldurgarri”, koadro hori ikuitzen, eta nola ez zen liluratua gelditu edertasun horren aurrean, ez hitz eta ez kantu eta ez beste, eternidadez eternidade zorionean?

Ez zen gelditu. “Sendipen kordak hautsiak” zituen. Berandu ohartzen da, festa hori guztia ez zela zera hau besterik: “sehi (serbitzari) berriak bazituela lehengo ene nausiak”.

Haatik, bera jo du, batez ere, amoresei bota dien erasoak. “Geienik nihaur jo ninduen bota nuen erauntsiak” aitortuko du artzainak. Errukarria benetan gure artzaina! Eta amorosak eman dioten erantzunaren aurrean, negar egingo du gaizoak. Hona beraren hitzetan:

Gero aldizka kar berarekin mintza zitzaizkidan biak.

Mutilak zion: “Ene asmoak osoki dira garbiak”.

Neskatzak aldiz: “Jauna, zuk erran gauzak ez dira egiak”.

Hitz horietan atzarri nintzan, busti bustirik begiak:

amodioan deus etzuela aldatu mende berriak,
aldatu mende berriak.

Zer egurra eman dion artzainak bere buruari! “Busti bustirik” begiak esnatzen da. Besterentzat botatako erauntsiak bera jo du, eta han apaldu du eta zapaldu. Zeini ez zaio kupitzen artzain gixaixoa!

Futbolaren edo futbolisten kontuetan ari bagina, jokuz kanpo harrapatu duela artzaina esango genuke bi amoros gazte horien amodioak. Argitan egon beharrean, itzalean dago Xalbador.

Hala ere, gazteen erantzunak atzarrazi edo esnarazi dute gizona, eta ohartu da “amodioan deus” ez duela “aldatu mende berriak”. Eta haren “lehengo nausiak”. “sehi berriak” badituela.

Eta entzun dezagun orain artzainaren azken pentsamendua amodioaz. Hona 10. bertsoa, bukaerakoa:

Burua gordez han hasi nintzan berriz Jaunari lo galdez (eske),
bainan amentsa nuen bilatzen, ez nindabilan logalez;
amodioa, gaur egun ere hoin sendo bada ahalez (indarrez)
bihotzez bihotz mundu guzia kurri dezala hegalez,
tristura eta herra lur pean sar diton haren ahalez (lotsaz),
sar diton haren ahalez.

Horra amentsa bukatu. Alperrik dabil “burua gordez” eta “Jaunari lo galdez”, berriro amentsa harrapatuko duelakoan.

Atzarri da artzaina. Eta Xalbador-Xalbadorrek, ez amentsaren testiguak, bere ondorioak ateratzen ditu, eta amodioaren aldeko oihu bat botatzen du. Hauxe:

Bihotzez bihoz mundu guzia kurri dezala hegalez,
tristura eta herraa lur pean sar diton beren ahalez.

Hori da artzainaren deiadarra. Hori Xalbadorren oihua. Hori bihotz neurtezin baten garraisia: “Amodioak mundu guzia kurri dezala hegalez”.

Biba amodioa! Gora Xalbador artzaina!

Honetan utzi nezakeen nik azken aurreko kapitulu hau; baina ba al dakizu, irakurle adiskide, kantu hau bukatzen dudan bakoitzean galdera batzuk hasten zaizkidala buruan? Entzun nahi?

Lehen-lehenik, zerk sortarazi ote zion aments hori urepeldarrari galdetzen diot ene buruari; zein ote zen haren barnearen egoera.

Eta honelatsu egiten dut galdera ene baitan: Zer zebilen artzainaren buruan, “amentsetan” horrela leher-tzeko?

Eta gero honela segitzen dut galdezka: amodioaren hesiak hertsiegiak edo estuegiak ote zirudizkion, bera bizi zen gizartean? Beste harreman modu bat desiratzten ote zuen jendarterako?

Eta aurrerago ere segitzen dut galdezka. Honela: “elgarren aldean” egondako bihotzek, eta gero “hegaldatuak bi aldetarat airean”, ondo egiten zutela ote zerizkion? Edo pentsatzen ote zuen berrizko elkartasu-

nak ere lehengoaren irrisku bera izango zuela, eta behin “maitatzen” jakin ez zuenak, berrizkoan ere ez zuela jakingo? Hori ere buruan ote zerabilkien?

Eta gero, pintatzen digun koadroa ikusiz, “bi amoros” haiek han “mixteriozko arkuan” “argiz elgarri josiak” “bi aingeruño” diruditela, hau galdetzen diot neure buruari: artzainak ez ote dio mugarik ipintzen amodiozko besta miresgarri horri?

Horra nire galderak.

Olerkari bakarra

**Izan ote da ere
egundaino nehon
Jainkoaz beste
olerkaririk?**



Xalbador, Donostiako txapelketa batean.

Harritu, irakurle?

HONERAINO iritxi-eta hor aurreko hitz horiek irakurri dituzunean, zure harrimenaren bi begiak, edo milak!, zabal-zabak-zabal egin ote dira?

Ez dakit zenbakarrena izango zaren, irakurle, nere liburuxka hau irakurtzen honeraino iritxi zarena.

Zarengarrena zarela, ez duzula apustu egundaino irakurri esaldi hori eta horren parekorik?

Odolaren mintzoa liburuan daukazu, 66. orrialdean. Behin eta berriz errepikatuak daude gainera. On-do ikasi dezagun nahi dute, nonbait, artzainaren ateraldi bitxi hori.

Idatzi, urepeldarrak bekarrik egin du. Eta buruan pasa ote du inork inoiz tankera horretako pentsamendurik?

Eta zerk sortarazi edo jaioarazi ote zion burutapen hori Xalbadorri?

Galdera hori egiten diot nik aldioro neure buruari, lehenengo aldiz irakurri nituen une beretik.

Zuri ez zaizu jaiotzen hola moduzko jakin-minik?

Neri gauza batek ematen dit pena: ez dakidala badakidan erantzuten. Hari galdetzeko betarik, berriz, ez genuen izan, hura hil zen egun berean jaio baitzen liburua.

Gainera, bertsolari baten liburuan, haren bertsoei botatzen diegu begia batez ere, harek haien aurretik esan dezakeenari baino gehiago.

Beraz, haren erantzunik ez daukagunez gero, geurok ematen dugunarekin konformatu beharko dugu. Hemendik atzera datorrena, galdera horren erantzun bila egindako bidea izango da. Goazen!

“Hauxen da poza bertsoz ezin esana!”

L 982a zen urtea. Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa ari zen jokatzeko Donostian.


Azkenetan zen norgehiagoka. Biren artean zegoen jada jokoa. “Emakumea” eman zitzaien gai, Txapelketako azken hiru bertsoak kanta zitzaizkien.

Eta honela kantatu zuen aurrena tokatu zitzaizkien, bere hirukotik lehenengoa:

Emakumea esanda
esana da dana.
Emakumetan bada
bat txit bakana.
Irratian han dago
sortu ninduana;
Balda-tikan oraintxe
noa beragana.
Aita dut joana,
hau pena dudana!
Baina haren dama
bizirik dut ama.
Hauxen da poza bertsoz
ezin esana!

Horra gure Amuriza bizkorra ezinean. “Ezin esana” da ama alargundua ondoan izatearen poza.

Zenbati ez ote zaio atertu hitza, bere barnean duen sendimendu haundiren bat aditzera eman nahirik hasitakoan!



Ezkerretik, A. Valverde, N. Etxaniz eta txapelduna Orixe.

“Ezin esanaren miña; miñen ezin esana”

ORIXE mintzo zaigu orain. Ama Naigabetuari du izena olerkiak. Hona nola hasten den:

Txikidanik izan nintzan zori gaitzaren lagun;
etxe artan egunero ezbearra bagenun;
zure miñak gureekin gauez oroi genitun;
agurtza (errosarioa) esan ondoan kantak arintzen gindun.

Gure sukaldean ziñan miñetan aipatua.
“Erregiña eder ori, nekez inguratua”.
Negar-aspertua baiñon obe genun kantua;
baiña bein eten zitzaigun... Miña zan alakoa!

Quito-n arrebarekin liburuan, berriz, honela dio
44. orrialdean: “Sukalde doakabea! Beti ubarrazkian!”.
Hau da, beti ezbeharrean.

Sukalde hura utzi eta handik urte askotara ari da
poesia hori idazten. Entzun zer dioen azken bi ahapal-
dietan:

Ba nago egon ta egon. Neurtitz ezin egiña!
Ordûn bezala malkoa ixuri zat samiña;
neurtitzik ez da munduan zorigaitz aren diña.

.....

Motx gelditu naiz esaten Ama-Semeen lana;
gañera nereaz nâsi! Barka zuzen ez dana!
Eskein dizuet biori biotzean dedana;
eziñ-esanaren miña; miñen ezin esana.

“Neurtitz ezin egiña!”. Izan ere, “neurtitzik ez da
munduan zorigaitz haren diña.

Horregatik “motx gelditu” da esaten “Ama-Semeen lana”. Eta hitz eta esan egokirik eskaini ahal izan ez dielako, “bihotzean” daukana eskaintzen die:

“eziñ-esana
ren miña;
miñen ezin esana”.

“Poza” du “ezin esana” etxanotarrak. Mina du “ezin-esana” orexarrak; baina ezinean bi haundi eta bizkor hauek ere.

“Esan beharrak hitzen larruan kabitzen ez direnean”

ETA neretxo bat ere kontatuko ote dizut, irakurle, harira datorrenez gero? Barkatuko ahal didazu nerekeriatxo hau.

Ama nerea izeneko bertso sail bat badut nik egina, bere sabelean, eta magalean, eta besoetan, eta inguruan, eta batez ere bihotzean erabili ginduen andrea-ren omenez eta gogoangarritan.

Hona zer dioen bigarrenak:

Bi besoak zabaldutzen zaizkit bakarrik nagoenean, sendimenduek zunpa egiten baididate barrunean. Esan beharrak hitzen larruan kabitzen ez direnean, keinuek gehiago diote beren mututasunean.

Bertso horiek egin-nahia buruan nerabilkiela, gure amaren oroitzapenekin batean, askotan zabaltzen nituen bi besoak bakarrik nengoenean, zera esanaz bezala neure buruari:

–Hi ez haiz gauza haren dinako bertsorik egiteko.

Eta “bi besoak zabaltzen” zitzaizkidan.

Eskas ikusten du norberak bere burua, “esan beharrak hitzen larruan kabitzen ez direnean”.

Horra ezina etxanoarrak, horra ezina orexarrak eta horra ezina gazteluar honek ere.



Amuriza.

“Gosta gabe deusik ez”

LAU hitz horiek *Odolaren mintzoa* liburuan dauzkazu, eta 67. orrialdean hasten den kapitulu baten izenburua dituzu.

Honela hasten du artzainak kapitulu hori: “Nik ez dakit bertzek nola egiten dituzten kantuak, bainan eni segurik ederki gostatzen zaut batzuetan”. Horra nekearen aitormena Xalbadorrek.

“Gostatzen batez ere hastea”. Zenbat atzera-aurrera lanari ekin baino lehen! Ez erraza balitz.

Eta berezko neke horri, lan horretan erabat aritu ezinarena gehitu behar zaio: “Gogoaren hartan atxikitzea”, alegia, berak esango duen bezala. Burua erabat hartan ezin eduki, gure hitzetan esanda. Izan ere, “hainbertze lan eta buru hauste bada” artzainaren “bizi moduan”.

Eta neke hoieri, doinuarena gaineratzen zaio. Berak musikarik egiten ez daki Xalbadorrek, eta besterenak ez egokitzen harek nahi bezain ongi, berak senditzen eta pentsatzen duenarekin. Zer pena!

Hori dela-eta, hona zer aitortzen digun urepeldarrak: “Baditut pertsutan agertu nahi nituzken gai batzu utziak ere, heier loakiketen (lijoakien) airerik ezin bilatuz”. Hori penaren pena!

Horregatik esango du 51. orrialdean “hortan bekaizti nitzazio Xuberoa’ko izarra den horri”. Inbiria diola, alegia, Etxahun Hirurikoari, xuberotarrak badakielako musika egiten eta urepeldarrak ez.

Zer pena ematen duen hori entzun beharrak! Ez al zaizu zertxobait kupitzen artzaina? Neri bai.

Ai, eskolaren inguruan musika ikasi ahal izan balu, bere "hameka urte inguruan" eskolako aulkiak utzi "behar" izan zituen muttiko erne harek! Berak ez du adin horretan eskola utzi izanaren damurik. Nik bai.

Ikusten zenbat ezinen mende dagoen gure artzaina?

Ai, berak senditu eta pentsatu bezala-bezalaxe lehertu izan balitza artzainaren bihotza eta mintzatu haren mihia!

“Izan ote da ere egundaino nehon Jainkoaz beste olerkaririk?”

POZAK ezin-esana sortu dio Amurizari. Minak gauza bera egin dio Orixeri. Neri ere, nereak zerbait balio baleza, hala egin dit.

Artzaina ere neketan ikusten dugu. Mugatua.

Zerk uste duzu, irakurle, nekeak bestek pentsa erazi ziola Xalbadorri, Jainkoa beste olerkaririk ez ote daitekeen izan?

Olerkari izan ezinak, esana eta izana bat gerta erazi ezinak, eragin dio Xalbadorri, guztia den eta dezakeen Hura olerkari bakar deklaratzera. Harek bakarrik du Hitza, esan eta izan bat bera dena.

Horra gure Olerkaria.

Eta... barkaidazu beste susmotxo bat, gure haserako galderaren argigarri. Ezin dut mihiaren puntatik kendu.

“Ez begik ikusi, ez belarrik entzun...” ez duen beste Hori nolabait sumatu izanak ere ez ote dio esan erazi eder-esanaren iturri bakarra Hura dela, eder-izanarena ere Hura delako bakarrik?

Galdera asko ez ote dut egin, eta erantzun gutxi eman?

Ongi eginak balira, hala ere, gaitzerdi.

2001 - IX - 7



Xalbador.

Aurkibidea

Atarikoa.....	9
Bertso-jartzaile hasi berria	
edo "oilanda arroltzeño"	11
Oilanda arroltzeño	13
"Ene arreba Marik, berriz, laudatu zauzkitan pertsu horiek"	17
"Hogoi eta hamairu urte horietan gauza gutti ikasi dutela"	21
"Beren huts nabarmen guziekin"	25
"Pertsulariak pertsuak egin behar ditu"	29
"Mendian sortu bainintzan..."	33
"Mendian sortu bainintzan..."	35
"Korota'ko lepoa	39
"Gizon xumeen langintza"	41
"...xume..."	43
"Hamalau urtetako ene gain..."	47
"Ardier erne begia, bihotzez heier josia"	51
"Mendiko ene maitea"	63
Hori mendia!	71
Sortetxe ta sortetzeko	73
"Oi gure etxe maitea"	75
"Leku pausakor hobeagorik..."	79
"Maitasunaren ohantze?"	83
"Zure egina nauzu muina ta hezurra"	85
"Pentsa zazute alargundu bat ez daike izan urusa"	89

“Hogoi urtetan bezala”	91
“Ama maitea”	97
Hori etxea!	107
“Hotz ikara ilun bat...”	109
Euskal Herria	115
Kontseilutxo bat	117
“Ez nuen nahi ene burua frantsesez mintzo aditu...” ..	121
“Betitikako arrain haundien lege okaztagarriak”	125
“Hemen dago ama bat bere hurrek hila”	129
“Nigarra begian”	133
“Fededun erdaldun”	139
Xalbador eta fedea	145
Ustekabeko sarrera	147
“Ez sorturikan Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan....	149
“Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezen”	155
“Den baino ere gogorragoa bilaka (gerta) bekit bizia”...	163
Amodioa “Amentsetan”	171
“Nihaurek (neronek) maita behar orain bien partez”	173
Olerkari bakarra	183
Harritu, irakurle?	185
“Hauxen da poza bertsoz ezin esana”	187
“Eziñ-esanaren miña; miñen ezin-esana”	189
“Esan beharrak hitzen larruan kabitzen ez direnean” .	191
“Gosta gabe deusik ez”	193
“Izan ote da ere egundaino nehon Jainkoaz beste olerkaririk?”	195

**Joxe Mari Aranaldere
beste liburuak:**

*Egaztien mundua, (Margo ederdun
entziklopedia)*


Xalbador pertsularia

Bihotzak dion hura

Xalbador

Bertso kontuak

Xalbadarren barrua





Barrua, edo barnea, edo barrena, edozeinena dela ere, hondorik bilatzen ez zaion zerbait dugu. Eta sekretu haundi-haundi bat. On-gaitzen iturburua.

Hala ere, “bihotzean dagoenetik hitzegiten omen baitu mihiak”, barne ezkutu horretan barna ibil gaitzke, esanen argia eskuetan dugula.

Hori egin du Joxe Mari Aranaldek liburu honetan: Xalbadorren esanak hartu, eta haren sendimenduak eta pentsamenduak erakutsi.

Hori aberastasuna artzainaren barrunbe horretakoa! Bidai gustagarri bat gertatuko zaizula iruditzen zait, Aranalderen eskutik Xalbadorren “gogoan” barna egin nahi duzun hau. Ondo ibili, irakurle.

ISBN 84-95378-45-0



9 788495 378453

